



**IKASKETA FEMINISTAK ETA GENEROKOAK MASTERRA
MASTER EN ESTUDIOS FEMINISTAS Y DE GÉNERO**

2011-2012 Ikasturtea

Ikerketa lana

"Gizon taldeak eta maskulinitatearen inguruko diskurtsoak: EAEko talde batzueganako hurbilpena."

Egilea:

Jokin Azpiazu Carballo

Tutorea:

Marta Luxan Serrano

2012ko Iraila

Aurkibidea:

1	Sarrera	1
2	Testuinguru teorikoa	8
2.1	Feminismoaren subjektu politikoa eta bere eraldaketa	12
2.2	Generoa eta bere deseraikitzea	23
2.3	Generoa deseraikitzea eta bere ondorioak gizon eta emakumeentzat	37
2.4	Maskulinitatearen inguruko ikerketak	49
3	Testuinguru metodologikoa	64
3.1	Diskurtso analisia: abiapuntuak	65
3.2	Diskurtso analisi kritikoa	72
3.3	Diskurtso analisi kritiko feminista: ikuspegi feminista txertatuz	75
4	Corpusaren analisia	84
4.1	Aztertutako dokumentuen inguruko zehaztapenak eta irizpideak	85
4.2	Modernitatea eta tradizioaren arteko leia	94
4.3	Maskulinitatea irudikatzeko moduak	96
4.4	Nola banatzen dira gizona, berdintasunaren aldeko gizona, emakumea eta berdintasunaren aldeko emakumea?	98
4.5	Etxeko lanak eta espazio domestikoa	102
4.6	Pribilegioak, abantailak, kargak eta kalteak	104
4.7	Gizona, bakarrik edo bikotean? Bikotea, heterosexuala ala ez? Seme alabarik? Eta familia, ondo?	105
4.8	Zergatik eta zertarako aldaketa?	108
4.9	Emozioak	110
5	Ondorioak eta etorkizunerako lan lerroak	114
6	Erabillitako bibliografia	122

1 - Sarrera

Azken urteotan asko entzun dugu “maskulinitate berria” kontzeptua eta asko izan dira haren inguruan idatzi diren artikulu, ikerketa eta baita maila “kaletarrago” batean prentsa-artikulu, *blog* eta komentarioak. Hain da horrela, non testu eta idatzi ugarian jada ez den maskulinitateaz hitz egiten bere horretan, baizik eta adjektiboz lagunduta. Honela, maskulinitate hegemonikoak, klasikoak edo tradizionalak aipatuko dira hainbat testu eta idatzietan (Connell, 1995; Seidler, 2006; Carabí & Segarra, 2000). Maskulinitatea singularrean aipatzeak, ez du jada zentzurik gaia ikertzen ari diren ikerlari gehienentzat.

Marra bat marrazten ari da beraz lehengo (nahiz eta “lehen” horrek ez duen kokapen historiko edo tenporal zehatzik) eta oraingo maskulinitateen artean. Baieztapen ukaezinak irudikatuz, gizona jada egiten ez ditugun gauzez hitz egiten da, jadanik ez ditugun jarrez. Aldaketak erabatekoak omen dira, atzeraezinak gainera, eta haustura bat suposatzen dute.

Ez da noski, maskulinitatea ikuspegi sozio-historikotik hausturaren paradigma horretan kokatzen den gertakari edo identitate sozial bakarra. Feminitateaz aritzean, eta orokorrean emakumeen egoera sozial, material eta identitatezkoaz aritzean ere asko dira desoreka edo desberdintasun sozialak paradigma horretan kokatzen dituztenak. Are gehiago, atzemandako berdintasunaz hitz egin dezakegu, zeinetan eremu sozialean (berau era zabalean ulertua eta bertan aspektu ekonomiko, politiko edo filosofikoak txertatua) emakumeek jokatzen duten paperaren eta imaginario sozialean hartaz dagoen pertzepzioa ez datozen bat.

Zer esanik ez, errealitate sozialaren eta berau deskribatzeko erabiltzen diren diskurtsoen artean dagoen amildegi honek ez die mesederik egiten berdintasuna lortzeko beharrezkoak liratekeen eraldaketa sozialei, izan ere, berdintasun falta iraganeko gertakari (ia-ia patologia) bezala irudikatzean, zailagoa da berau ekiditeko mekanismoak martxan jartzea, haien beharra irudikatzea gaitzagoa den heinean.

Arestian aipatutakoek ez dute ordea genero rol eta irudikapenetan eman diren aldaketak ukatzen. Are gehiago, eman diren aldaketa horiek ukatzea bidegabekeria litzateke hamarkada guzti hauetan feminismoak plazaratu dituen debate eta aldarrikapenetik eratorri diren transformazioak ukatzea bailitzateke. Garaipen horiek ez aitortzea praktika eta teoria feministen gaitasun politiko, sozial eta epistemologiko eraldatzaileak ukatzea litzateke, eta ez da hori lan honen helburua.

Beharrezkoa litzateke ordea, eraldaketa hauek (garaipen hauek, txikiak eta handiak) testuinguru zabalago baten markoan kokatzea, eta aldaera horiek (arloan ekonomikoan, politikoan eta sozialean gorpuztu direnak, baina baita ere gizarte bezala dauzkagun kontzepzioetan, identitateetan eta jarreretan) nolabait erlatibizatzea, eta aurretik aipatutako terminologia probestuz, erabateko hausturaren paradigmatik ateratzea. Eraldaketa batzuk eta beraien efektuak epe laburrean behagarriak diren arren, gauza jakina da transformazio sozialak, sakonak badira behintzat (eta genero ezberdintasuna gizartean oso sakonki finkatua dagoela esan dezakegu) denbora luzea eskatzen dutela.

Bide horretatik, kuestionatzekoa litzateke maskulinitateak aldatzen ari diren eta zenbateraino. Zein leku zehatzetan, ze aspektutan, ze klase eta talde sozialen baitan... Ez zaigu nahikoa aldaketak ematen ari direla esatea, aldaketa horiek ondo identifikatu eta neurtu beharko ditugu, atentzioa jarritz bere horretan mantentzen ari diren maskulinitatearen aspektutan, etorkizunean eragin beharreko lerroak marraztu ahal izateko.

Honetaz harantzago, jakin badakigu diskurtsoek errealitatea sortzeko gaitasuna badutela, edo behinik behin gure errealitatearen pertzepzioa moldatzekoa (galdera filosofiko sakona da gure errealitatearen pertzepziotik urrunago errealitaterik ote dagoen, baina hor ez gara sartuko). Baieztapen hau ontzat emanda, esan dezakegu talde sozial batek egiten duen diskurtsoak ez duela soilik gaitasun espresiboa (diskurtsoa eratu dutenen ikuspegia esplikatzen duena) baizik eta halako gaitasun performatiboa duela errealitatea eraldatuz sortzeko gaitasuna (eta askotan bokazio zintzoa) .

Aitzitik, baiezta dezakegu giza-talde guztiek ez dutela diskurtsoa sortu, garatu eta helarazteko gaitasun berdina, edozein izanik haien esparrua. Genero harremanen kuestionatzean hala ematen da ere. Azken urteotan garatu diren eta plazaratu diren maskulinitateen inguruko diskurtso ugari sarbide erreza izan dute hainbat esparrutan, eta zailagoa beste batzuetan. Diskurtso hauek gizonezkook egiten ditugunean, gure posizio soziala dela medio sarbide erreza izan dute adibidez berdintasuna defendatzen duten hainbat esparru instituzionaletan. Botere harremanak ikuspegi erradikaletik kuestionatzen dituzten espazio autonomo eta ez-instituzionaletan ordea, sarbide zailagoa izan dute ugaritan, eta honek baditu bere arrazoiak, kontutan hartu beharrekoak. Askoren iritzia da berdintasunaren alde beraien ekarpena egiteko asmo zintzoaz, emakumezkoen espazio politiko garrantzitsua (garrantzitsuena ez bada), feminismoarena nolabait “okupatzen” ari direla maskulinitate berrien bilaketan dabilzan hainbat talde edo eragile.

Gizonezkoen taldeek eta maskulinitateen inguruko ekimenek berdintasuna lortzeko izan dezaketen balioa onartzetik abiatzen da berauek sortzen dituzten diskurtso eta praktiken behaketa kritikoa egitearen beharra. Ekimenon eta bertan parte hartzen dutenen balioa eta asmo ona onartu ezean, ez nuke halakorik mahai-gaineratuko. Ingurunera begiraturaz, hego Euskal Herrian talde hauek oraintsu biderkatzen ari direla ematen du. Nahiz eta aspaldi egon den halako talderik, azken urteotan da beraien presentzia nabarmenagoa. Are gehiago, esan genezake, halako talde edo ekimen batek arreta bereganatu dezan orain daudela aukerak eta posibilitateak, arestian aipatutako “maskulinitatearen krisiaren” eta “maskulinitate berrien” kontzeptuen loratze eta orokortzea dela-eta.

Hain zuzen ere horregatik izan daiteke beharrezkoa oraingo une honetan, diskurtso horiek hedatzen ari direla, berauen azterketa kritikoa egitea, nondik abiatzen diren eta beste esapide batzuekin nolako harremanak dituzten ikustea.

Era berean, gaiaren inguruko interes pertsonala aspalditik datorkit. 2005. urtean Bartzelonan bizitzera joan eta urte betera edo gizon-talde bateko kide izan nintzen. Taldeak “*Alcachofa*” zuen izena, guk gizontasunaren metafora bezala ulertzen genuen: kanpoko orriak gogorrak izan arren barruan biguntxoia eta jangarria da alkatxofa, eta hala

ere erdigunean bertan ere zapore arraroa du, gazi-goza, eta jaterakoan deserosoak egiten diren iletxo horiek. Hala irudikatzen genuen guk maskulinitatea, deseraikigarria (kanpoko orriak kenduz), baina garai haietan esentzialismoak alboratzeko ahalegin handietan genbiltzanez, ez genuen nahi barrukoa esentzia eder eta gozagarri bezala irudikatu nahi. Ez genuen larregi sinisten gizon onak bilakatzearen kontu hartan, nahikoa genuen hain gizonak ez izatearekin. *“La masculinidad no la tenemos que reformar, la tenemos que destruir”* esaten zuen taldetik gertu ibiltzen zen lagun batek.

Talde heterogeneoa zen oso, Bartzelona bezalako hiri batek eskaintzen dituen aukera guztiak gurekin geneuzkan: klase sozial ezberdinetatik gentozen pertsonak, testuinguru kultural oso ezberdinetatik, sexu-aukera ezberdinetakoak, bizi-aukera ezberdinak egindakoak... Horrek aberastasun handi-handia eman zien gure barne eztabaidei. Han aritu ginen, urte eta piko luzean, etxe okupatu bateko zentro sozialean biltzen, gure esperientziez hitz egiten, testuak irakurri eta eztabaidatzen, denari bueltak ematen eta gure arteko sexualitatea ere tarteka lantzen.

Queer teorietatik oso gertu geunden, emozio handiz irakurri genituen Butler eta enparauen testuak, baita hirian ematen ziren *queer* ekimenetan parte hartu ere (baziren holako hilabeteroko topaketak, *“kafeta desviada”* izenekoak, eta han ematen ziren eztabaidak, *performance*-ak, musika eta dantzaldiak)... Eta hala ere eztabaida luzeak izaten genituen *queer* komunitateko kide askorekin. Ez zuten ulertzen guk nola sortzen genuen gizon taldea gizon kategoria bera zalantzan jarri nahi bagenuen. Han geunden gu, kontraesan ikaragarri horretan, gizonak izan nahi ez baina aldi berean gizon bezala portatzen ginela, gizon bezala atzematen gintuztela eta gizonezkoen pribilegioak geneuzkala ohartzearen artean. Pribilegioak, asko hitz egiten genuen horren inguruan. Eta indarkeria, eta sexu-erasoak, eta nola landu harremana hiriko mugimendu feministarekin (urte haietan emakume eta lesbiana talde batek MAMBO emakumeentzako etxea okupatu zuten, eta mugimendua indartsu eta mila aldetatik lehertzen ari zen)...

Barnera begirako jardun honetan urte eta piko eman genuen. Orduan halako urgentzia sortu zitzaigun kanpora begira zer edo zer egiteko, gure ekarpen txoa egiteko. Proiektu oso

ederra hasi genuen, fotonobela bat publikatu nahi genuen. Gidoia ia-idatzita zegoen eta argazkiak egiten ere hasi ginen. Bizitzaren joan-etorriak medio, ez genuen amaitu inoiz. Orduan gonbite pareta heldu zitzaizkigun. Alde batetik hango auzo bateko jai herrikoien programaketan bazela eztabaida bat sexismoaren inguruan eta gure iritzia ere nahi zutela esan ziguten auzoko feminista talde batekoek. Bestalde, unibertsitatean gay, lesbiana eta *trans*¹ talde batek gonbidatu gintuen, gai bertsuaren inguruko eztabaida batetara.

Ni izan nintzen hilabete batzuk lehenago lan publikoa egitearen beharra gehien azpimarratu zuenetakoa, eta beraz, proposamen haiek primeran hartu nituen. Taldean ez zen banaketa handirik sortu, baina batzuk besteek baino gogo handiagoa genuen eztabaidotan parte hartzeko. Pare bat lagun joan ginen. Pozik hartu genuen feminista artean egotearen kontu hori, bestalde, gure egunerokoan oso komuna zena, mugimendu feministako kideekin bizi baikin.

Bi eztabaidotan mugimenduko jende oso interesgarriekin egon ginen: emakume gazteen taldeak, lesbiana feministenak (Bartzelonan oso ibilbide interesgarri eta luzea zutenak), historialari feministen taldea... Eztabaidak ondo joan ziren, baina atera genuen inpresio nagusia gure taldeari atentzio handia (handiegia) eskaintzen zitzaiola izan zen. Eztabaidetako batean feminismoaren etorkizuna zein zen ere galdetu ziguten! Galdera horren erantzuna guri ez zegokigula sentitu genuen hein handi batean. Orduan konturatu ginen espazio publikoaren okupazioaren inguruan egindako hausnarketa horiek guztiak ez zirela nahikoa izan, eta arreta handiagoa eskaini behar geniola kontu hari. Erretiratu egin ginen esparru publikotik, nahiz eta gure artean hausnartzen eta eztabaidatzen jarraitu.

Handik gutxira, bizitzaren joan-etorriak medio berriz ere, taldearen jarduna bertan behera uztea erabaki genuen, baina gutariko askok kontaktuan jarraitzen dugu oraindik ere, eta aukera dagoenean kontu haietaz eta beste hainbatez eztabaidatzen. Euskal Herrira bueltatu eta soziologia ikasketak amaitzeko erabakia hartu nuen, baita komeria batzuen

1 *“Trans”* terminoa erabiltzen dudanean berez oso zabala den errealitateari buruz ari naiz. *Trans* laburuduraren azpian transexualitatea, trans-generismoa edo trabestismoa bezain ezberdinak izan daitezkeen egoera, errealitate eta nortasunak biltzen saiatu naiz. Ez ditut berauek sinplifikatu nahi, baina oso zaila litzateke aldiro-aldiro denak aipatu behar izatea, *trans* mugimenduko sektore batzuek onarturiko hitza da, eta proposamen horrekin bat egiten dut. Hitza hemendik aurrera ere kurtsiban agertuko da, euskal hiztegian existitzen ez den heinean.

ostean lortu ere. SIMReF ikerketa metodologia feministaren inguruko mintegietan parte aktiboa hartzen hasi nintzen, eta ikerketa gai honen inguruan lehen pausuk ematen, Genero eta ikerketa feministen masterrean izena eman eta master amaierako lan bezala gain honetatik tiraka jarraitu dut, gure taldearen esperientziatik -era inkontzientean bada ere- nolabait abiatuz, Euskal Herrian dauden talde berri eta ez hain berri hauen jarduna aztertu asmoz. Horren fruitua da esku artean edo ordenagailuko pantailan duzun lana.

Ezin aukera hau galdu ikerketa txiki hau egiterakoan bidean lagundu nautenei, nahiz eta jakin badakidan nor edo nor ahaztuko dudala: Marta Luxan nire tutore eta lagunari eskainitako atentzio eta animo guztiengatik, eta lanean eta nire buruarengan konfiantza berreskuratzen laguntzeagatik haizea alde egon ez denenan; Matxalen, Zesar, Esti, Gisela eta unibertsitate inguruan mugitzen diren ikerlari, ikasle eta irakasleei; masterreko ikaskide, arduradun eta irakasleei, irakurketa gomendio, ideia eta izandako eztabaidengatik; Barbara Biglia eta Jordi Bonet eta SIMReFeko lagunei, Bartzelona eta Bilbokoei, diskurtso analisiaren inguruan jasotako laguntzagatik eta, oro har, bidelagun izateagatik; etxekoei: arreba, aita, ama, txikitxoei, *absolutamente* denagatik; Iboni, berak ikerketa arras potoloagoa esku artean eduki arren, nire ikerketatxoaren ingurukoak entzun eta ulertzeagatik eta Oskarrek bezala iritzi *makarrak* plazaratzeagatik; lagunei noski, nire kontuak konpartitzen uzteagatik; Alcachofa gizon-taldean nirekin egondakoei eta ikerketaren inguruan distantzia bideko jarraipena egin duten Bartzelonako lagunei, Sam, Nahxeli, Miguel...; urte guzti hauetan zehar nire Ermuko nerabezarotik hasita nire inguruan egon diren mugimendu feministako kideei, euren kezka, hausnarketa, min eta ekimen politikoak nirekin eta nire inguruan konpartituz horren esparru emankorra irekitzeagatik; LGT eta *queer* mugimenduko lagunei ere, babesagatik, borrokagatik; berriz ere, eta errepikakorra suertatu arren, ahaztu zaizkidanei.

2 – Testiuinguru teorikoa.

2. - Testuinguru teorikoa: sarrera

Gai zehatz bati ekiteko orduan ikuspegi ugari baliatu daitezke. Edozein ikerketa gai baditu hainbat eta hainbat ikuspuntutatik ikertua izateko aukera. Aukeratu dudan ikerketa gaiak ere -gizon talde eta ekimenen diskurtsoen azterketak- hainbat ikuspuntutatik ikertua izateko aukera ematen du. Nik haietako bat aukeratu dut eta hori dela eta ikerketaren emaitza ere halakoa izan da: aukera posibleetan bat. Hori berori azaltzeko, atal honetan nire abiapuntu teorikoak zeintzuk izan diren azalduko dut.

Azken urteotan gizon taldeen eta maskulinitate berriak bezala izendatuak izan diren maskulinitate ereduengatik inguruan hainbat buelta eman ondoren, eta bereziki lagun ugariarekin -mugimendu feminista ezberdinetako emakumeak, gizon taldeetan aritzen diren edo eta aritu izan diren hainbat gizon, gay eta lesbianen mugimenduko hainbat kide, irakasleak, SIMReF² mintegietan eta beste gune batzuetan ezagututako ikerlari feministak, lagun eta senideak...- gaiari buruz asko aritu ondoren ez daukat beldurrik onartzeko zalantzaz beteriko bidea izan dela ikuspegiaren aukeraketa.

Berez, ikerketa prozesua beti da zalantzaz beteriko prozesua, nondik hasi, zein metodologia erabili, ikerketa gaia nola mugatu... eta haietan zailena egin zaidana agian ikuspegi zehaztearena izan da. Gai honen inguruan irakurri edo eta gainbegiratu ditudan ikerketa gehienek (Carabí & Segarra, 2000) Seidler, 2006; Bergara, Riviere, & Bacete, 2008) abiapuntu oso antzerakoa zutela iruditu zait, oso auto-erreferentziala gainera. Ikerketa gehienetan aipatzen diren autore eta abiapuntuak oso antzerakoak eta "maskulinitateen ikerketetan" oso zentratuak daudela iruditu zait. Alegia, hein handi batean teoria eta mugimendu feminista erreferentziatzen hartzen duen mugimendu batean -ustez behintzat hala pentsatzen nuen nik- autore emakume feministen gabezi handia ikusten nuen -eta ikusten dut oraindik ere- bibliografietan. Ematen du maskulinitateei buruzko ikerketek askorentzat oso norabide propioak dituztela eta are gehiago abiapuntu teoriko

2 SIMReF (*Seminari Interdisciplinar de Metodologia de Recerca Feminista*) ikerketa metodologia feministaren inguruan hausnartu eta ikertzen duten diziplinarteko gunea da. Bartzelonan zein Bilbon ikastaroak eta mintegiak antolatzen ditu, online ikastaro eskaintzarekin batera, besteak beste. <http://simref.net>

ezberdinak ere.

Eta horrek larritzen nau, nahiz eta orokorrean maskulinitateen inguruko ikerketetan erreferente garrantzitsuak izan diren autore batzuen analisiak -beti bezala ñabardura eta desadostasun batzuekin- orokorrean konpartitzen ditudan. Raewin Connel (Connell, 1995a, 1995b) edo Oscar Guasch (Guasch, 2006) bezalako idazleen lana interesgarria eta argigarria iruditzen zait maskulinitatea ulertzeko. Noski, edozein ikerketa esparruren bueltan gertatu daitekeen bezala, maskulinitatea ikertu duten beste askoren ikuspegiak ez ditut larregi konpartitzen. Harritu egiten nau nola maskulinitatearen inguruko ikerketa askotan erreferentzialtasuna oso zirkularra den, maskulinitatearen inguruko ikerketak beraiek direla erreferentzia nagusia, askotan teoria feministarekiko lotura eza erabatekoa delarik gai honen inguruko lan askotan.

Askotan gainera, oso ikuspegi zehatza eta itxia ematen da maskulinitateaz, beste ikuspegi batzuetatik maskulinitateen inguruan egin diren ikerketa ugari albora utzita. Horien artean niretzat adierazgarrienak gay maskulinitatean izan daitezke, edo eta maskulinitate femeninoak. Judith Halberstam-en lanean (Halberstam, 1998) adibidez, emakumezkoek dauzkaten ezaugari maskulinoak, edo are gehiago, beraien maskulinitateak bizitzako aro ezberdinetan (nerabezaroan kasu) nola artikulatzen diren aztertzen da, generoan eragindako aldaketa edo subertsioak nola zigortzen diren aztertuz: *“Gender, it seems, is reversible only in one direction, and this must surely have to do with the immense social power that accumulates around masculinity. Masculinity, one must conclude, has been reserved for people with male bodies and has been actively denied to people with female bodies”* (Halberstam, 1998:269). Maskulinitateak emakumezkoen gorputzetatik jardutean suposatzen dituen ondorioak ikertu ditu beraz. Raquel Lucas Plateroren lanak ere norabide horri eutsi dio, espainiar estatuaren kasuan jarritz erdigunea (Platero Méndez, 2010).

Besteak beste, hori dela eta, maskulinitateen inguruko ikerketak egon badaude marko teoriko honetan, baina ez dira lanaren abiapuntua izango. Testuinguru teorikoaren laugarren atalean (*“Maskulinitateen inguruko ikerketak”*) gaiaren inguruan egin diren

hainbat ikerketa aipatuko ditut berauen gaitasun eta mugak identifikatu nahian, eta lanaren abiapuntua testuinguru teorikoaren beste ataletan islatuko da gehiago.

Lehen atalean, lan honen egokitzapena suposatzen duen gaia landuko dut, alegia, feminismoaren subjektu politikoarena, Azken finean, nire interesa gai honekiko hortik zetorren hasiera batean, eta garai hartan neuzkan zalantzak ez ditut erabat konponduta sentitzen oraindik ere. Mugimendu feminista eta pentsamendu feministak subjektu politikoaren eztabaidari eusten dion ahala, eta ikuspegi horretatik abiatuz, zeintzuk dira sexismoaren aurkako borrokan gizonen parte-hartzearen ondorio teoriko eta praktikoa?

Bigarren eta hirugarren ataletan, “genero” kontzeptuari berari buruzko hausnarketak biltzen ditut, hain zuzen ere azken hamarkada bietan pentsamendu feministan mahaigaineratu diren eztabaida garrantzitsuei lekua emanez, hirurogeita hamargarren hamarkadan feminismoak garatu zuen genero kontzeptuaren berrikusketak izan dituen inplikazioak aztertzeko. Zer esanik ez, inplikazio hauek eragina dute lehen atalean mentaturiko subjektu politikoaren gain, eta ondorioz egokia deritzot maskulinitatearen inguruko diskurtso hauek aztertzean oinarri hori ere eztabaidatua uzteari.

Aldi berean, eta hirugarren atalean bereziki, post-estrukturalismoan oinarri duen eta azken hamarkadetako feminismoetan hainbeste eragin izan duen “deseraikitzea” (“*deconstrucción*” gazteleraz) aztertuko dut era laburrean, ez horrenbeste kontzeptua bera azaldu asmoz, baizik eta ikertutako gaiarekin izan ditzakeen inplikazioak era xumean bada ere marrazteko.

Laugarren atalean, esan bezala, maskulinitatearen inguruko hainbat ikerketei gainbegiraturia eman nahi izan diet, hain zuzen ere arestian aipaturiko kezka abiapuntutzat, beraien aukera eta mugak identifikatu nahian, teoria feministarekin duten loturatik begiraturik zein bestela. Ikerketa lerro horretan sortu diren korrante ezberdin batzuk identifikatu ditut edo, hobe esanda, eztabaida sortu duten kontzeptuak.

Lau atal hauen helburua, beraz, lanaren nondik norakoak zehaztu dituen eta ondorengo

ataleko metodologiaren aukeraketa eta aplikazioa ere baldintzatu izan duen abiapuntua (ahal den heinean era laburrean) azaltzea da.

2.1 - Feminismoaren subjektu politikoa eta bere eraldaketa.

*“Propongo trabajar juntas tanto en lo común
como con la heterogeneidad de las experiencias;
reflexionar sobre las diferencias
y el papel que ocupamos cada una”³*

Carla, feminista negra lesbiana, inmigrante sin papeles.

“Who's that girl?”

Madonna

Azken bi hamarkadetan subjektu politikoarena izan da mugimendu feministen baitan garrantzi handia izan duen eztabaidetako bat. Eztabaida horren nondik norakoak ulertzeko, ezinbestekoa egingo zaigu mugimenduaren eta berarekin batera garatu den korpus teorikoaren inguruan ikuspegi historikoa aplikatzea. Izan ere, subjektu politiko feminista ez da era errazean historian zehar irudikatu daitekeen subjektua, beharrezkoa da berorren azterketarako ariketa bikoitza egitea. Alde batetik garai bakoitzeko testuinguru historiko, kultural eta soziala kontutan izatea, garai bakoitzean emakumea izateak zer suposatzen zuen jakiteko, eta ondorioz, genero harremanak bideratzen zituzten patroio edo jokabide-ereduak zeintzuk ziren irudikatzeko. Bestalde, ezinbestekoa dugu gaur egun, azterketa egiten dugunon garai eta unean, ariketa berbera planteatzea, izan ere, historia gaur egunetik besterik ezin dezakegu begiratu, eta horrek gure begirada baldintzatzen du.

Labur azalduta, hirurogeigarren eta -bereziki- hirurogeita hamargarren hamarkadan osatu zen gaur egunean -edo behintzat urte luzeetan- ulertu izan dugun bezalako mugimendu feminista. Mugimendu sozialak ez ditut soilik beraien ikuspegi instrumentaletik ulertuko, alegia, ez ditut soilik gizarte zibilaren aurrean eskaera eta aldarrikapen zehatzak egiteko

3 “Mujeres preokupando” aldizkaritik hartua, 2008-2009 alea, Bartzelonan argitaratua. Aldizkari hau espainiar estatuko gune ezberdinetan rotazioz egin izan dute mugimendu feministako kide askoren artean azken hamarkada t'erdian.

gaitasunetik neurtuko. Era berean errealitate sozialen sortzaile badira, alegia, jendartean ematen diren nortasun prozesuen eragile⁴. Ezinbestekoa izango dugu, hortaz, subjektuen eraketa eta transformazioetan duten eraginari so egitea.

Alde horretatik esan dezakegu, mugimendu haren oinarrian zegoen subjektua, alde batetik mugimendua bera sortzeko aukerak eskaini zituen eta bestetik mugimenduak berak indartu eta -hona hemen paradoxa- eraldatu zuena, identitate finkoa zuen subjektua zela. *“Durante las décadas de los años sesenta y setenta, el sujeto político del feminismo, entendido éste como aquel sobre el que se articula la praxis feminista, es un sujeto de carácter universal, de corte ilustrado (la Mujer, en singular).”* (Trujillo Barbadillo, 2009:162). Honela, identitate zurruna zuen subjektuaren inguruan artikulatu zen mugimendua dugu garai hartakoa, ziur aski garai haietako egoera historikoak eta gerra ostean gertatu zen genero balore tradizionaletara itzulerak ahalbidetu zuena.

Mugimendu feminista haren kariatara garatu zen pentsamolde feminista anitz eta ikuspegi ugariak subjektu horren nolabaiteko haustura ekarri zuen hurrengo hamarkadetan zehar. Mugimendu feministaren txoko ezberdinetatik sortu ziren hausnarketa ugari zeuden gertaera honen oinarrian. Alde batetik, oinarri-oinarrizko mugimendu feministaren aldarrikapenetako batzuk betetzen hasi ziren (parte-hartze politikoari zegozkienak, eskubide zibilei buruzkoak, hezkuntzari buruzkoak...) ⁵ eta horrek nolabaiteko konplexutasuna ekarri zien mugimenduaren aldarrikapenei. Honekin batera, mugimenduaren baitan, alegia, “emakume” identitate haren baitan biltzen ziren hainbat emakumek beraien espezifikotasunetik hitz egiteari ekin zioten. Ipar Amerikako testuinguruan, adibidez, arrazaren inguruan sortu ziren hainbat aldarrikapenek eragin

4 Interpretazio markoak sortzeko mugimendu feministaren gaitasunaren azterketa egiten du Ana de Miguel-ek *“El movimiento feminista y la construcción de marcos de interpretación: el caso de la violencia contra las mujeres”* (De Miguel, 2003) eta *“El movimiento feminista y la construcción de marcos de interpretación: praxis cognitiva y redes de acción colectiva”* (De Miguel, 2007) artikuluetan. Bertan, bereziki Melucci (1994) italiarraren lanetik abiatuz mugimendu feministaren ekarpena azaltzen du genero indarkeriaren inguruan interpretazio marko berria eraikitzerakoan. Ikuspegi honen arabera, mugimendu sozialen jarduna ez litzateke soilik alderdi instrumentalean geratuko (aldarrikapenak egin, lorpenak eskuratu...) baizik eta aldi berean esparru kognitiboan eragingo luke ere. Honela, genero indarkeriaz zer ulertzen dugun dezente aldatu da azken urteotan, eta horrek zerikusia du mugimendu feministaren jardunarekin.

5 Noski, kasu honetan, mendebaldeko herrialdeetan, nagusiki Ipar Amerika eta Europan garatu ziren prozesuez ari gara. Esan gabe doa, emakumeen eskubideen inguruko borrorak erritmo ezberdinak, eta baita ondorio eta fruitu ezberdinak eman dituela kokapen geografiko eta kultural ezberdinetan.

handia izan zuten. Angela Davis bezalako autoreen eskutik, (Davis, 1983) zapalkuntza anitzak izendatzen hasi ziren: genero zapalkuntza, klase zapalkuntza eta zapalkuntza arrazista biltzen eta kontutan hartzen zituen teoria garatu zuten bera bezalako hainbat emakume afroamerikarrek, beraien komunitateetan gertatzen ari ziren egoera zehatzei azalpena eta erantzuna eman nahian.

Bide horretatik ere, sexualitatearen esparrutik sortu ziren bestelako aldarrikapen batzuk. Egun -eta segun ze testuingurutan- ulertzen zaila egiten zaigun arren, lesbianismoaren gaiak hauts ugari harrotu zituen bere garaian, bai ingurune anglo-saxoian baita gure ingurunean ere. Adrienne Rich-ek adibidez, *“Compulsive heterosexuality and the lesbian existence”* (Rich, 1986) idatzi zuen bere garaian, eta lan horri eginiko hitzaurrean zera zioen: *“Quería que el artículo sugiriera nuevos tipos de crítica, que suscitara nuevas preguntas en las aulas y en la revistas universitarias y que esbozara, al menos, un puente sobre el vacío existente entre lesbiana y feminista”*. (Rich, 2009:145) . Aldarrikapen horien inguruko loturak (zubiak) ez zeuden beraz hain argi garai haietan (Rich-en testua 1978an hasi zen, argitaratu gabe, talde feminista eta LGT⁶ batzuen artean elkarbanatu eta eztabaidatzen) eta beraz, mugimenduak bere egin behar izan zuen oraindik ere nolabait bizirik dagoen eztabaida, sexualitatearena, sexu-aukerena.

Era berean, mendebaldetik kanporako hainbat feministen ekarpenak oso garrantzitsuak izan ziren, gerora feminismo post-kolonial bezala izendatuak izan diren hainbat egilerenak: Kum Kum Bhavnani, Gloria Anzaldúa edo bell hooks, besteak beste (Hooks et al., 2004) . Anzaldúak, adibidez, *“Borderlands”* liburuan (Anzaldúa, 1993) *“La mestiza”* figura erabiltzen du, mugaren kontzeptua emakumeen gorputzetara eramanez, eta mugak estatuen arteko marrak izateaz gain gure gorputzak eta nortasunak ere zeharkatzen dituztela adierazteko. Bere emakume errealitatea, eta bere komunitatearena, ez ziren emakume subjektu zurrun hartan kabitzen, nolabait⁷.

Eztabaida hauek guztiak, nahiz eta orrialde hauetan autore ezberdinen ahotan irudikatu ez

6 Lesbiana, gay eta *trans* mugimenduari egozten zaion laburdura.

7 Estatu Batuekin mugan dagoen herrialde batetik idazteagatik, besteak beste, bere eragina handia izan da testuinguru teoriko feminista estatubatuarrean.

dira gerora mugimenduan eragina izan duten testuinguru akademikoan garatutako eztabaidak. Askotan, mugimenduari errebaso historikoa egitean tentazio horretan eror gaitzke, alegia, nolabait garai bakoitzean eman ziren eztabaiden testiguak ziren testuak abiapuntutzat hartzea. Noski bada, testu horiek eragina izan zuten eztabaida guzti haien norabidean, baina arestian esan bezala, emakume komunitate ezberdinetan ematen ari ziren eztabaiden adierazle eta isla dira. Kontutan hartu behar da, adibidez, orain arte aipatu diren teorilari feminista guztiak aldi berean mugimenduetako militanteak zirela.

Era berean, mugimenduetako kideek txertaturiko hausnarketa eta subjektu “berri” hauen agerpenari, maila sozial eta politikoan laurogeita hamargarren hamarkadan ematen diren aldaketak daude. Silvia L. Gilen hitzetan (Gil, 2011), estatu espainiarrari begira garrantzitsuena errepresentazioaren krisia litzateke (*“crisis de la representación”*), hiru aurpegi izango lituzkeena. Alde batetik gizarte zibila eta botere politikoaren arteko distantziaren haztea, erabaki politikoetan esku hartzea ezinezkoa delakoaren ideiarekin hedapenarekin batera. Bigarrenik, alderdi politiko, sindikatu eta bestelako antolakunde sozio-politikoengandik urruntzea, herritarrek beraien interesetatik urrun sentitzen dituztelako. Azkenik, identitatea oinarri izan zuten mugimenduak (langile identitatea, emakume identitatea...) krisian sartuko dira; izan ere identitate hertsia horiek gero eta zailago egiten zuten ustez batzen zituen subjektuen esperientzien ordezkaria.

Horrek denak mugimenduaren inguruko pertzepzio aldaketa sakona dakar: *“la percepción subjetiva y social de movimiento de los años ochenta se pierde en los noventa. Son años en los que se constata que no hay vuelta atrás”* (Gil, 2011:37). Eztabaidak norabide guztietan lehertzen dira, eta haiekin batera eztabaidetan hain garrantzitsua izan den galdera: nor da gaur eta hemen feminismoak behar eta nahi duen subjektu politikoa?

Hari honi tira apur bat eginez, esan genezake hain zuzen ere eztabaida horiek bizirik mantentzea eta beldurrik gabe berauek mahai gainean jarritako erronkei aurre egiteko borondatea izan dela mugimendu feministaren bertuteetako bat.

“Como iniciativa democrática, el feminismo (...) ha asumido que cada uno de

nuestros valores más preciados está siendo disputado y que continuarán siendo zonas políticas disputadas. Puede que esto suene como si estuviera diciendo que el feminismo nunca podrá construir desde algo, que se perderá en la reflexión sobre sí mismo, que nunca se moverá más allá de este movimiento de autorreflexión hacia un compromiso activo con el mundo. Por el contrario es precisamente en el decurso del compromiso y de la práctica política que estas formas de disensión interna emergen. Yo añadiría categóricamente que precisamente la resistencia a resolver esta disensión y convertirla en una unidad es lo que mantiene vivo el movimiento” (Butler, 2010:249).

Norabide berdinean adierazten du Nancy Whittier-ek ere bere iritzia: *“Un movimiento permanece vivo mientras exista un conflicto entorno a su identidad colectiva”* (Whittier, 1995:18) . Eztabaida hauek, eta eztabaida bera, era orokor eta abstraktuan, positibotzat jo izan dituzte hainbatek mugimendu feministari begira. Horrek ez du esan nahi ordea, eztabaida prozesuak beraiek ez direnik izan -eta oraindik ez direnik- zailak eta askotan mingarriak ere.

Eztabaida guzti horien artean subjektu politiko “berriak” mugimendura batzearena dago. Horren ispilu izan daitezke 2009ko Granadako topaketa feministak, zeinetan, beste hainbat eztabaidaren artean, identitatea, subjektua eta mugimendu politikoan parte hartzeak definituriko triangelu horren baitan hainbat mahai inguru eta eztabaida garatu ziren (kasu batzuetan nahikoa sutsuak gainera). Horren testigu dugu *“Granada 30 años después”* liburu eta DVDa. (VA, 2010) . Hainbat artikulutan azaltzen dira bertan postura ezberdinak, eztabaida eta elkar-ulermenerako bokazioz, baina diferenteak azken finean. Horrek adierazten digu eztabaidaren bizitasuna, eta noski, beharrezkotasuna ere.

Teresa Maldonadok, adibidez, mugimendu feministari eginiko barne-kritikaren inguruko kezka batzuk azaltzen ditu. Onarturik emakume nortasun zurruna ezartzeak ekarri ahal izan duen kalte eta ordezkapen eza, “aniztasunaren” ikuspegiaren inguruan ezkutatu daitezkeen arrisku batzuk seinalatzea du helburu bere artikulua. Aniztasun funtzionalaren adibidea dakarkigu eztabaidara: *“tras el concepto de ‘diversidad funcional’ se encuentra*

–aunque no sólo– el elogio indiscriminado y abusivo de la diferencia que estoy criticando. No parece semánticamente muy adecuado hablar de personas con o sin diversidad funcional, como no lo es hablar de personas con o sin diversidad cultural, religiosa o sexual.” (Maldonado, 2010:64). Bere ustetan ezberdintasunak bere horretan goraiatzek, bira arriskutsua ekarri du, zeinetan berdintasun falta (“*desigualdad*”) analisi politikotik alboratu den, eta ondorioz ezkutatu. Kondizio sinbolikoei (desberdintasuna eta bera izendapena) hainbeste atentzio jarriz, kondizio materialak albora uztea salatzen du beraz. “*¿De qué precisan, de redistribución igualitaria o de reconocimiento de su diferencia?*” (Maldonado, 2010:63) galdetzen du.

Artikulu beraren amaieran zera dio: “*...tenemos que huir del esencialismo excluyente que se olvida de las diferencias y desigualdades entre las mujeres (... y huir también del biologicismo) pero sin llegar tan lejos por ese camino que disolvamos el propio sujeto del feminismo (y por tanto, la posibilidad del mismo). La lucha de las mujeres sigue siendo necesaria*” (Maldonado, 2010:65). Arestian esandako bezala, bi muga horien arteko esparruan kokatzen du berak ere feminismoaren erronka.

Liburu berean Granadako jardunaldietan zeresan handia eman zuen “*Reflexiones feministas sobre el no-binarismo*” dugu (Solá & Missé, 2010) *Defendemos el feminismo como un movimiento comprometido con la libertad, que no teme su desaparición con el cuestionamiento de sus presupuestos más básicos*” (Solá & Missé, 2010) *ueremos manifestar la violencia y la marginación que conlleva seguir afirmando a “las mujeres” como el único sujeto del feminismo, sobre todo, si esta categoría es entendida de forma biologicista, excluyente y normativa*” (Solá & Missé, 2010).

Dena dela, artikuluan azaltzen dute ez dela beraien asmoa emakume identitatearen erabateko deuseztatzea, baizik eta kategoria ontologikoa bera kuestionatzea. Horrek, haien ustez ez dakar kategoria bera erabiltzeari uko egitea ezinbestean. Identitateen erabilera estrategikoa eta esplizitua egitearen alde azaltzen dira, zapalkuntza mota ezberdinak (generoa, arraza, klasea...) mailaka-ezinak direla argudiatuz. Honela, azken hamarkada eta erdian espainiar estatuan sorturiko kolektibo eta talde batzuen lana jartzen

dute adibidetzat feminismoa ulertzeko modu hori zilegi eta posiblea dela esateko: “*se puede afirmar que la política feminista de hecho funciona ya en muchos lugares sin un sujeto que esté basado únicamente en la categoría “mujeres” y sin que esto implique dejar de aludir a las mujeres*” (Solá & Missé, 2010)

Bide honetatik jotzen dute ere mutil bezala bizi diren *trans* pertsonen mugimendu feministaren parte aldarrikatzeko. Historikoki eztabaida sortu izan du mugimendu feministaren baitan transexualitateak. Bere garaian eztabaida ugari eman ziren *trans* emakumeak kolektibo batzuetan integratzeko, nahiz eta gaur egun badirudien nahikoa onarturik dagoela⁸. Gaur egunean ordea, *trans* gizon bezala bizi diren baina feminista sentitzen direnen inklusioan legoke eztabaida, Granadan gertatu zen bezala⁹.

Zalantza asko izan dira mugimendu feministaren baitan, hain zuzen ere gizon izatera igaro diren *trans* pertsonen inguruan, nolabait zapaltzailearen identitatea onartzen dutelako, maskulinitatearen pribilegioak bere eginez. Baina beste era batera ikustea ere badago, Miquel Missé-ren hitzetan: “... *quizá deberíamos reformular la pregunta y decir algo así como: una persona que nació como mujer y que ahora vive en masculino pero al mismo tiempo trata de resistir a las premisas de la masculinidad patriarcal y visibilizar una identidad distinta, una identidad trans, puede considerarse feminista?*” (Solá & Missé, 2010).

Argi dago mugimendu politiko eta sozial baten mugak marrazteari eta ezabatzeari buruz ari garela. Subjektuaren inguruko eztabaida hau bizi izan duen beste mugimendu politikoetako da gay mugimendua. Joshua Gamson-ek horri buruz idatzitako artikuluan (Jiménez, 2002) komunitateen muga politikoak negoziatzearen gora-beherak aipatzen ditu, komunitate etnikoen inguruan egindako hainbat azterketa baliatuz, baina sexu-aukeraketan oinarrituriko komunitateetan zentratuz. Komunitateen mugak definitzea ezinbestekoa da edozein talderentzat haren aburuz, baina are gehiago, eta hau bereziki

8 Transexualitatearen eta feminismoaren arteko harremanaren inguruko hausnarketa burutzen du, besteak beste, Laura Bugallo *trans* aktibista galziarrak “*Feminismo y transexualidad: Aproximación a la vivencia de la sexualidad femenina desde la transexualidad femenina*” artikuluan (Bugallo Sanchez, 2001).

9 Eztabaida honen bideoak online ikusgai daude: <http://vimeo.com/10207180> eta <http://vimeo.com/10216659> helbidetan. (2012-08-28an kontsultatuak).

garrantzitsutzat dut, komunitatearen mugak definitzea ez dagokio soilik “barruan” daudenen erabaki kontzienteei, negoziaketa politiko hutsari. Era berean arauketa politiko eta instituzionalek bere eragina dute honetan: “... *la identidad colectiva se construye no sólo desde dentro, sino que también está constituida y limitada por regulaciones políticas e instituciones, políticas de inmigración, políticas de recursos ligadas a grupos étnicos,,,*” (Jiménez, 2002).

Argudiaketa lerro honek pista interesgarriak ematen dizkigu, mugimendu feministaren eta bere subjektu politikoaren definizioari begira. Alegia, mugimenduak berak ez badu erabateko hitza bere izaeraren gain (edo gutxienez bere izaeraren inguruko pertzepzio sozialaren gain), kontutan hartu beharko dira ere “kanpo”-faktore horiek eta beraien eraginak, eta beraz, horren inguruan hartutako erabaki batzuk etikoak izateaz gain estrategikoak eta politikoak ere badirela onartu¹⁰.

Hala beraz, subjektuaren eta zapalkuntza anitzen inguruan ez nituzke soilik gogoeta filosofikoak aintzat hartuko, baizik eta aldi berean haien inguruan esparru ugarian, instituzioenean kasu, hartzen ari diren erabakiak edo politika zehatzak. Aniztasunaren inguruko hausnarketetatik abiatuz, adibidez, hainbat eremutan “berdintasun sailak” edo “gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako guneak” zirenak “aniztasun sailak” bihurtzen ari dira edo horretarako saioak egin izan dira. Hortaz, aniztasunaren eztabaidak, adibidez, badauzka mugimenduaren kontroletik kanpo dauden elementu ugari, baina bere jardunari eragiten diotenak.

Bestalde, lehenago ere aipatu den argudioari jarraituz, nortasunean oinarrituriko politiken eta nortasun-osteko politiken¹¹ arteko dikotomiaren faltsutasuna seinalatzen du Gamson-ek. Faltsutasun horren oinarrian bien ala bien zilegitasun eta beharrezkotasuna legoke. Alegia, egungo testuinguruan, ezin daiteke ziur aski politika zentzudunik egin biak kontuan hartzeke: “*En el centro del dilema se halla la coexistencia de fuentes culturales de opresión (que hacen de la disolución de las categorías una estrategia inteligente) y fuentes*

¹⁰ Zer esanik ez, ez nago iradokitzen hau hala egiten ez denik, edo kontutan hartzen ez denik. Soilik aspektu garrantzitsua da nire aburuz eta azpimarratu nahi dut.

¹¹ Honela itzuli dut “*políticas post-identitarias*” terminoa, beste kasu batzuetan “*activismo post-identitario*” bezala ere agertzen dena.

institucionales de opresión (que hacen de la rigidez de las categorías una estrategia inteligente)” (Jiménez, 2002)

Eztabaida sakona da, eta ez da nire helburua berorri irtenbidea ematea. Baina badira orrialde batzuk hari buruz nabilela eta oraindik ez dut arrazoitu nire argudiaketa guzti honetaz hitz egiteko gizon taldeen eta maskulinitateen inguruko diskurtsoen gainean dabilen lan batean. Ekin diezaiozun bada.

Maskulinitatearen inguruko eztabaidan subjektu politikoaren gaia erabat alboratzen ari garelakoan nago. Ez dut esango, inolaz ere, ez denik honen inguruan ikuspegi horretatik hitz egiten ari, baina esango nuke gaiari teorikoki edo politikoki eustean, alboratu egiten dela. Eztabaida ugari, ziur aski gizonezkook jendartean dugun paper erreferentea dela eta, maskulinitateen balizko eraldaketan, ekimen batzuen ausardian edo maskulinitate berrien definizioan zentratu dira. Jokoan dagoenak, ordea, objektiboa gizonezkoetatik kenduz gero, beste hainbat aurpegi dauzka. Haietako bat nire aburuz sexismoaren aurkako borrokan gizonezkoon parte-hartzeak izan dezakeen inplikazio politikoa da, eta hauxe izan da hain zuzen ere lan hau abiatzeko kezketako bat.

Kontziente naiz eztabaidatu izan dela guzti honetaz gizon-talde batzuen baitan eta baita mugimendu feministaren hainbat inguruetan ere. Dena dela, nago eztabaida honek ez duela eman eman zezakeen guztia, eta are gehiago, askotan, zuzentasun politikoa errespetuarekin nahastuz ez dela garbi hitz egin -ez behintzat publikoki- honen inguruan.

Esaterako, azter genezake, gizon taldeen edo ekimenen izaera publikoa. Zer eragin izan dezake honek feminismoaren inguruan dagoen pertzepzio publikoan? Zer behar da feminista izateko? Nor da mugimendu feministako kide? Duela gutxi entzun nion gizon bati bere iritzia ematen “mugimendu feministako kide” bezala. Bere ikuspegitik, pentsamendu feministarekin bat egitea eta horren alde lan egitea nahikoa da bere burua mugimenduko kide izendatzeko.

Feminismoaren baitan gizonezkook jokatu beharreko paperaren ingurukoa oso eztabaida

zaharra dugu: “... *mucha gente, dentro y fuera del movimiento, argumenta que la liberación de la mujer entraña la liberación del hombre. Mucha gente sostiene que el movimiento no podrá hacer nada a menos que logre convencer a los hombres...*” (Mitchell, 1977:60). Hala adierazten zuen Juliet Mitchell feminista sozialistak hirurogei eta hamargarren hamarkadan. Berrogei urte beranduago eztabaida antzerakoak entzutea ez da arraroa.

Aspaldiko tira-bira izan arren, badu nire ustetan gaur egunean halako kondizio berezia. Hain zuzen ere, arestian aipaturiko kanpo-faktoreen harira lotzen badugu, egun egoera kuriosoaren aurrean gaudela esango nuke. Badira hainbat urte ustezko berdintasun formalean bizi garela; are gehiago, baditugu testuinguru horretan hezitako belaunaldiak, eta haietako batzuk helduak dira jada. Askok eta askok, beraien generoaren inguruko hausnarketak egin dituzte, bakarka edo era kolektiboan (gutxienetan) eta horren ondorioz gizon matxistaren irudia eta irudikapena ahultzen hasi da, errealitateari erantzuten ez diotelakoan. Noski, aldi berean eta txanponaren ekidin ezineko beste alde den heinean, patriarkatuaren eta bere efektuen inguruko pertzepzioa ere gero eta ahulagoa da, “hautemandako berdintasun” egoera eraikiz. Hautemandako berdintasunaz ari garenean esan nahi duguna da, genero berdintasun formala duten gizarteetan, bestelako berdintasun faltan pertzepzioa (materiala, ekonomikoa, politikoa...) hautematen zailagoa bilakatzen dela. Alegia, efektu materialetan daukaguna baino berdintasun gehiago daukagula uste dugu, finantza krisia lehertu aurretik aberatsak ginela uste genuen era berean.

Testuinguru honetan ze paper joka dezake feminismoak? Horrela izendatzeak dauzkan zailtasunak zer direla-eta gertatzen dira? Eta noski, guzti horretan ze eragin dauka hainbat gizonek/ok bere/gure burua feministatzat jotzeak? Feminismoa emakumezkoek osotasunean irabazi eta eraiki duten esparrua izanik, nola eragingo du subjektu berri maskulinoen¹² gehitzeak?

12 Lehenago aipaturiko *trans* mutil eta gizonen kasua ez da hemen esku artean darabildana. Uste dut *trans* mutilen kasuak beste analisi mota espezifikoagoa beharko lukeela. Bi kasuen arteko loturak ikusten ditudan arren, ez naiz ausartzen horren inguruko nire iritzia “bio-gizonen” kasuarekin batera, espezifikotasun gabe, ematen.

Ohar bedi galdera ugari planteatu ditudala eta erantzun urriak. Baina, iritziak baditudan arren, erantzunik ez dudala diot hau. Argi dut, dena dela, gizon talde/ekimen eta maskulinitatearen gaiari eusterakoan ikuspegi hau kontutan hartzea ezinbestekotzat jotzen dudala, eta beraz bertatik nahi izan diot aurre egin gizon taldeen testuok aztertzearen lanari.

2.2 - Generoa eta bere deseraikitzea.

*“Hey, ain't much of a difference
Between a bridge and a wall
Without me right in the middle, babe
You would be nothing at all”*

Hedwig, Hedwig and The Angry Inch

“You make me feel like a natural woman”

Carole King, (You make me feel like) A natural woman

Azken hogei urteotan berebiziko garrantzia izan du pentsamendu feministaren baitan batik bat post-estrukturalismoarekin harremanetan jarri den korronte teorikoak, bestela esanda posmodernitatearekin loturiko teoriak. Aurreko atalean aipaturiko subjektu politikoaren inguruko eztabaidak bere erroak garapen horretan ditu. Urte hauetan zehar hainbat izen ezberdin jaso izan dituzte korronte hauek, askotan gainera korronte bakarraren pean kokatuak izan direlarik apur bat era artifizialean, beraien artean horrenbesteko batasunik erakutsi ez arren: feminismo posmoderno, feminismo post-estrukturala, feminismo post-identitarioa, post-feminismoa, feminismo *queer*, transfeminismo... Kasu batzuetan pentsamendu lerro berberari izena jartzeko adiera ezberdinak, beste batzuetan pentsamendu lerro dezente ezberdinak zaku berean sartu ahal izateko izenak.

Edonola izanda ere, zer ote dago hainbeste “post” daramaten etiketa guzti horien atzean? Non dira eta nork ezarri zituen (inork hala egin bazuen) pentsaera lerro horren ildo nagusiak? Aurreko atalean ikusi ahal izan dugu nola mugimendu feministaren subjektu politikoa definitzerako orduan subjektu bakar eta zurrunaren ideia errefusatu izan dutela hainbat autore eta aktibistek, eta horrek nahikoa eztabaida sortu izan duela. Honen oinarrian subjektua eta identitatea bera ulertzeko modua dago, mugimendu politikoaren subjektuaz harantzago, gizatasuna ulertzeko modua hain zuzen ere. Horregatik, pentsamendu korronte hauen inplikazioa ez da aspektu politikoan geratzen, esparru

filosofiko eta epistemologiakoari ere eragiten dio.

Askotan Judith Butler filosofo amerikarra jartzen da abiapuntu bezala “post” kutsuko feminismoaren hasiera seinalatzerakoan. Bere ekarpena, dudarik gabe, handia izan da feminismoaren oinarri filosofikoak eztabaidan -osasungarrian- jartzerako orduan, baina pena litzateke bere pentsamendua era isolatuan aztertzea, izan ere, badago lerroa marrazterik (nahiz eta lerro zuzena ez izan) bere aurretik eta berarekin batera subjektuaz, identitateaz, bizigarritasunaz eta sexualitatea eta generoaren arteko bidegurutzeaz lanean jardun duten beste autore feminista batzuegana.

Honela, nahiz eta kapitulu honetan nagusiki Judith Butlerren subjektuaren inguruko hausnarketak azalduko ditudan, saiatuko naiz erreferentziak egiten bere aurretik izandako pentsalari feminista batzuei (Gayle Rubin, Adrienne Rich eta Monique Wittig kasu) zein berarekin batera pentsamendu lerro horiek garatzen aritu diren beste batzuei (Donna Haraway, Luce Irigaray, Anne Fausto-Sterling...). Interesgarria deritzot beste autore askorekin “eztabaidatu” -zuzenean ala ez- izan duelako Butlerrek, eta unean uneko teoria feministaren ezagutza handiarekin jokatu izan duelako.

Lan handia hartuko luke pentsaera feministaren historia bere hasieratik berregitea. Subjektuaren aferan soilik finkaturik ere, oso historia zabala litzateke. Hori dela eta, eta ikusita subjektu politikoaren inguruko eztabaida sakonenak orduan hasi zirela ematen, Simon de Beauvoir-ek “*El segundo sexo*” idatzi osteko erreakziotan zentratuko dut analisia. Hirurogeita hamargarren hamarkadatik abiatuko naiz, Beauvoirren testuaren irakurketak eta mugimendu feministaren hazkunde eta bilakaerak subjektuaren inguruko hausnarketa emankorrenak sortzen hasi ziren hamarkadatik.

1975. urtean Gayle Rubinek bere “*El tráfico de mujeres: notas sobre la economía política del sexo*” (Rubin, 1986) argitaratu zuen, dudarik gabe teoria feministan oso garrantzitsua izan den lana. Bertan, antropologia, politika eta psikoanaliarekin solasean (alegia, berauen oinarrietan dauden dogma batzuk zalantzan jarriz) emakumezkoen esplotazioa sistema bezala definitu zuen. Berea da “*sistema sexo-genero*” kontzeptua, orduz geroztik

feminismoarentzat oso erabilgarria izan dena: “... *un sistema de sexo-género es el conjunto de disposiciones por el que una sociedad transforma la sexualidad biológica en productos de la actividad humana, y en el cual se satisfacen esas necesidades humanas transformadas*” (Rubin, 1986:97). Sexu-genero sistema, beraz, eredu patriarkarrean antolaturiko gizarteek berauen ongizatea genero zapalkuntzan oinarritu ahal izateko beharrezkoak dituzten mekanismoek osatuko lukete. Zer dagoen zapalkuntza horien oinarrian? Errealitatea (sexu biologikoa) zapalkuntza arrazionala (gizatiarra) bilakatzeko gaitasuna. Sistema soziala bera da, jendartea antolatzeko modua, sexismoa sortzen duena.

Sistema horrek ordea, gizon edo emakume izan beharra ere bultzatzen du, bestela inolako garrantzirik hartuko ez lukeen ezberdintasunari (sexu biologikoari) garrantzia emanaz. Hala dio Rubinek: “...*nosotras no solamente estamos oprimidas como mujeres; estamos oprimidas por tener que ser mujeres, u hombres, según el caso*”. Banaketa bera, hortaz, sistema sozialaren ardurapean jarriko luke antropologo estatubatuarrak, baina bere mugak garbi izanik, bere ametsetako utopia azaltzen digunean kasu: “*El sueño que me parece más atractivo es el de una sociedad andrógina y sin género (aunque no sin sexo), en que la anatomía sexual no tenga ninguna importancia para lo que uno es, lo que hace y con quién hace el amor*” (Rubin, 1986:135).

Gayle Rubin berak, ordea, bere ikuspegia hein handi batean konplexuago egin nahi izan zuen eta berehala sentitu zuen sexualitatearen gaia aipatzeko beharra. 1984-rako argitaratua zuen “*Reflexionando sobre el sexo. Notas para una teoría radical de la sexualidad*” (Rubin, 1989). Bertan sexualitatearen inguruko hainbat hausnarketa plazaratzen ditu, autore feminista zein LGT ugariaren lanean oinarriturik. Dagokigun gaiari eutsita, bere ekarpena sexualitatea zapalkuntza bektore bezala definitzea da: “*El sexo es un vector de opresión. El sistema de opresión sexual atraviesa otros modos de desigualdad social, separando a individuos o grupos según su propia dinámica interna. No es reducible ni comprensible en términos de clase, raza, grupo étnico o género*” (Rubin, 1989:159).

Une hartan behintzat, Rubinek bere zalantzak zituen sexualitatearen inguruko teoria erradikala eraikitzeko orduan teoria feministaren askitasunaz. Marxismoak genero zapalkuntza azaltzerakoan erakutsitako mugak oinarri harturik, feminismoak ere hein handi batean sexualitatean oinarrituriko zapalkuntza azaltzeko bere mugak zituela pentsatzen zuen¹³. Dena dela, argi zuen epe luzera ikuspegi kritiko biak (sexualitatearen ingurukoa eta genero zapalkuntzaren ingurukoa) bilduko zirela: *“A largo plazo, la crítica feminista a la jerarquía de género deberá ser incorporada a una teoría radical sobre el sexo, y la crítica de la opresión sexual deberá enriquecer al feminismo...”* (Rubin, 1989:186).

Eztabaida horrek luzerako eman du mugimendu feministaren baitan, eta ezin daiteke amaitutzat eman, sexualitatearen lanketa beti ere gatazkatsua izan baita teoria feministaren baitan. Edonola ere, azpimarratuko nuke Rubinen eta beste pentsalari batzuen ekarpenaren ondorioz zapalkuntza mota anitzen ideia azaleratzen hasten dela teoria feministaren baitan, eta horrek zerikusirik baduela subjektuaren ikuspegi aldaketa batekin, nahiz eta “kausa-ondorio” harreman zuzenean ezin dudan kokatu.

Rubinek sexualitatearen inguruko aipatu artikulua argitaratu aurretik, laurogeigarren hamarkada oraindik ate joka zebilela, Adrienne Rich poetak *“Compulsory heterosexuality and the lesbian existence”* (Rich, 1980) argitaratu zuen. Komunitate feministetan eragin handia izan zuen testuak, bereziki lesbiana feministen artean. Artikuluan idazleak pentsaera feministaren ataripean argitaraturiko lau lan ezberdinekin eztabaidatzen du, feminismoak hein handi batean lesbianismoaren existentzia (aukera politiko eta alternatiba erreal bezala) behar beste aztertu eta azaldu ez duela mahai gainean jarri asmoz. Bere ekarpen teoriko nagusia -nire aburuz- heterosexualitatea sistema politiko bezala definitzea izan zen, betebehar bezala (“Compulsory”), eta beraz, feminismoak problematizatu eta salatu beharreko gai bezala¹⁴: *“I am suggesting that heterosexuality, like motherhood,*

13 Kontutan izan beharra dago artikulua idatzi zuenean estatubatuar feminismoa eztabaida sutsuan zegoela sexualitatearen inguruan hain zuzen ere, hainbat feministen jarrera “puritanistek” eta beste batzuen ikuspegiak talka egiten zutelako pornografia, lesbianismoa edo S/M sexu praktiken inguruan, besteak beste. Eztabaida horren lekuko da hain zuzen ere Rubinen testua biltzen duen *“Placer y Peligro”* testu konpilazioa (Vance, 1989).

14 Heterosexualitatea ikuspegi horretatik lantzea ez da erreza bere ustetan, hala ere merezi duela argudiatzen du: “To take the step of questioning heterosexuality as a “preference” or “choice” for women-

needs to be recognized and studied as a political institution --even, or especially, by those individuals who feel they are, in their personal experience, the precursors of a new social relation between the sexes” (Rich, 1980:637).

Heterosexualitatea, beraz, ez litzateke sexu-harremanak izateko aukera hutsa, sistema sozial eta politiko zehatza ezartzen duen praktika diskurtsiboa baizik, eta berau ez aitortzea hanka sartzea litzateke feminismoarentzat. Haren ustez: *“Yet the failure to examine heterosexuality as an institution is like failing to admit that the economic system called capitalism or the caste system of racism is maintained by a variety of forces, including both physical violence and false consciousness” (Rich, 1980:648).* Heterosexualitatea sistema politiko inposatu bezala definitzeaz gain, *existentzia lesbianoa* eta *continuum lesbianoa* ere aldarrikatzen ditu, lehengoa historian zehar erregimen heterosexualari erresistentzia egin dioten emakumeak ikusi arazteko aukera ematen duen estrategia bezala; bigarrena lesbianismoa jarrera zabal bezala ulertuz, sexu-aukeraz harantzago aukera politiko, afektibo eta sozial bezala.

Preseski sexualitatearen eta lesbianismoaren ulermen horretatik abiatuko dira ere urte beretsu haietan Monique Wittigek argitaratutako hainbat artikulu, gerora liburuan konpilatuak izan direnak (Wittig, 2006). 1985eko *“No se nace mujer”* artikuluan, esaterako, atentzioa “emakume” kategorian eta subjektibatze prozesuetan jartzen du. Bere ustez emakumea ez da talde edo kategoria natural bezala “erreal”. Emakume kategoria fikzioa da, alegia, opresioak berak sorturiko kategoria litzateke: *“Un análisis feminista materialista muestra que lo que nosotras consideramos la causa y origen de la opresión es solamente la «marca» que el opresor impone sobre los oprimidos: «el mito de la mujer», que con sus manifestaciones y efectos materiales en las conciencias y en los cuerpos apropiados de las mujeres” (Wittig, 2006:34).*

Bere ustetan, emakumezkoen mugimenduaren abiapuntuan zapalkuntzaren onarpena

and to do the intellectual and emotional work that follows-will call for a special quality of courage in heterosexually identified feminists but I think the rewards will be great: a freeing-up of thinking, the exploring of new paths, the shattering of another great silence, new clarity in personal relationships” (Rich, 1980:648).

dago, hain zuzen ere, beren burua klase bezala ulertzea. Klase kontzeptuak, ordea, marxismoak definitu izan zuen bezala, subjektibotasuna bera ukatzen, du, eta hori dela-eta, labur geratzen da emakumeen askapen prozesuari laguntzeko. Alegia, nork bere burua zapaldutako klase bateko kide bezala identifikatzea ez da nahikoa askapen prozesua burutzeko, nork bere subjektibotasuna eraiki beharra du aldi berean, zapalkuntzaz harantzago, eta hori da, bere ustez, akats historiko baten jatorria: subjektibotasuna eraiki asmoz emakumetasunaren mitoa sinistu eta egiazkotzat ematea¹⁵.

Are gehiago, feministei dagokie, bere aburuz, ikuspegi materialista batetik norbanako subjektua izatea zer den definitzea. Lan hori, zaila eta kontraesankorra izan daiteke, eta nahi eta nahi ez klase kontzientziatik abiatu beharko da. Alegia, emakumezkoek jasaten duten zapalkuntza norbanakoen kontua ez dela esplikatzea lehen pausua litzateke, baina ezin daiteke zeregin hori hor geratu: *“... una vez que hayamos mostrado que todos nuestros problemas supuestamente personales son, de hecho, problemas de clase, aún nos quedará responder al problema del sujeto de cada mujer, tomada aisladamente; no el mito, sino cada una de nosotras”* (Wittig, 2006:42).

Subjektuaren eraikuntza horren beharrari erantzuteko, esan bezala, akatsa litzateke Wittigen ustetan naturalizaturiko emakumetasunaren irudietara jotzea. Aukera hobe deritza lesbianismoaren iruditik abiatzeari, bere ustetan maskulinitate eta feminitatearen dikotomiari ihes egiten baitio, hain zuzen ere feminitatearen oinarria diren betebeharrei (heterosexualitateari, sistema bezala) uko egitean, bere klaseko desertore bilakatzen dira lesbianak (*“Somos desertoras de nuestra clase”*). Hau da, hain zuzen ere, frantses autorearen kezka nagusia, klase bezala jokatu ahal izatea baina iparra klase horren (emakumeen klasea) desagerpenean jarriz: *“nuestra supervivencia exige que nos dediquemos con todas nuestras fuerzas a destruir esa clase -las mujeres- con la cual los hombres se apoderan de las mujeres”* (Wittig, 2006:43).

Arestian aipaturiko ikuspegi hauek oso erabilgarri egingo zaizkio Judith Butlerri bere

¹⁵ *“Y ya que ningún individuo puede ser reducido a su opresión, nos vemos también confrontadas con la necesidad histórica de constituirnos como sujetos individuales de nuestra historia. Creo que esta es la razón por la que están proliferando ahora todas esas tentativas de dar «nuevas» definiciones a la mujer”* (Wittig, 2006:39).

generoaren inguruko ikuspegia garatzeko. 1990. urtean oraindik ere bere lana ezagunen egiten duen testua kaleratu zuen: *“El género en disputa: feminismo y subversión de la identidad”* (Butler, 2001). Liburuak, eztabaida handia sortu zuen inguru feministetan, eta oraindik ere sortzen du. Lehenago ere aipatu dudana bezala, gaztelerara hainbat urte beranduago itzuli zuten¹⁶, eta horren ondorioz, espainiar estatuan eta Euskal Herrian bere ideien inguruko eztabaida askoz beranduago iritsi zen.

Entseguaren helburua sexu, genero eta sexualitate kontzeptuen inguruan hausnarketa egitea da, feminismoarekin solasean subjektu politikoaren inguruko gogoeta batzuk konpartitzeko. Guzti horren oinarrian ordea subjektuaren eta identitatearen inguruko ikuspegia dago. Hain zuzen ere, Wittig-ek mahai gainera ekarritako abiapuntua euskarri harturik, sexu kategoria bera kolokan jartzea planteatzen du filosofo estatubatuarrek. Wittig-ek, ikusi dugun bezala, ez du sexu kategoria egiazkotzat ematen, baizik eta zapalkuntza sistemak eraikitako “marka” bezala. Preseski, sexua generoaren emaitza bezala aurkezten du Butlerrek hortik abiatuta. Alegia, genero zapalkuntzaren oinarri izan ordez (gizakion egitura fisiologiko/biologikoak sortzen du banaketa, eta banaketa horren desoreka litzateke genero zapalkuntza) bere produktu bezala aurkezten du, “generoaren sustantziatzko metafisika” izendatzen duena salatuz:

“Tanto en el caso de «hombres» como de «mujeres», esta afirmación tiende a subordinar la noción de género a la de identidad y llevar a la conclusión de que una persona ES de un género y lo ES en virtud de su sexo, su sentido psíquico del yo y diversas expresiones de ese yo psíquico, entre las cuales destaca el deseo sexual. En este contexto prefeminista, el género, ingenuamente (y no críticamente) confundido con el sexo, sirve como principio unificador del yo encarnado y mantiene esa unidad por encima y en contra de un «sexo opuesto», cuya estructura supuestamente mantiene cierta coherencia interna paralela pero opuesta entre sexo, género y deseo” (Butler, 2001:55).

Honela beraz, ekuazioaren ordenua era maltzurrian (“*ingenuo*” esaten dio berak) aldatzen

16 Oker ez baldin banago, Mexikon argitaratu zuten gaztelerazko lehen bertsioa 2001ean.

da, eta kausa dena efektu bezala aurkezten zaigu. Alegia, generoaren arau sozialarekin topo egin aurretik generoa dugun pertsonak bagina bezala irudikatuak gara. Wittigen ikuspegi materialistatik tratatuz gero, eta klase sozialarekin analogia eraikiz, esan genezake pobrea -edo klase baxuko pertsona- kapitalismorik gabeko jendarte batean jaio izango balitz pobre izango litzatekeela dena dela.

Honen kontra, generoa hiru elementuen arteko batasun metafisiko bezala ulertzen du Butlerrek: “... *una UNIDAD de experiencia, de sexo, género y deseo, sólo cuando sea posible interpretar que el sexo de alguna manera necesita el género -cuando el género es una designación psíquica o cultural del yo- y el deseo -cuando el deseo es heterosexual y, por tanto, se diferencia mediante una relación de oposición respecto del otro género que desea-*” (Butler, 2001:55). Beraz, sexua bada generoaren osagaietako bat, baina ez generoa bera definitzen duen aurrebaldintza materiala, baizik eta generoaren eraikuntza diskurtsiboak baldintzatzen duen kategoria. Emakume edo gizon izan ahal izateko, horrela pentsatu, adierazi eta desiratu behar dugu, heterosexualitatearen ekonomia sinbolikoaren baitan. Sexua bera, hortaz, bestearen begiradarekin lotua dago, eraikuntza soziala litzateke.

Emakume edo gizon izatea beraz, soilik ekonomia diskurtsibo horren baitan da posible. Noski, generoa hiru elementu hauen batasun bezala aurkeztean, sexua elementu bezala ulertzea zaila suertatu daiteke. Alegia, ukatu dezakegu biologia bera? Esan dezakegu gure sexua definitzen duten elementuak (genitalak, gorputzeko ilea, konplexioa...) faltsuak edo eraikiak direnik? Noski ezetz, baina adierazi dezakegu ezaugarri horiek kulturalki irakurtzen ditugula.

Thomas Laqueur sexologoak garai bertsuan (1990ean) idatzi zuen “*La construcción del sexo*” liburua, espainiar estatuan 1994an argitaratu zena. Liburu horretan sexu kategoriaren bilakaera historikoa deskribatzen du, gizarte guztietan eta garai historiko denetan sexua binomio bezala ulertu izan dela ukatzeko. Historia horren une zehatz batean baina era progresiboan sexua binomiala denaren ideia gailentzen doa: “(...) *a finales del siglo XVII, las diversas corrientes intelectuales que hicieron posible la*

transformación del conocimiento humano denominada la revolución científica (...) habían socavado radicalmente toda forma galénica de comprender el cuerpo en relación con el cosmos. Significo esto, entre otras cosas, el abandono de los isomorfismos entre hombre y mujer...” (Laqueur, 1994:266).

Paradigma aldaketekin batera (paradigma zientifikoaren garaiak finkatzen hasten direnean) sexua biko bezala ulertzea finkatzen doa beraz. Honek egia biologikoaren ideia eta zientziaren neutraltasunaren dogma alboratzera garamatza. Alegia, unean uneko eraikuntza diskurtsiboak direla medio eraikitzen dira egia biologikoak ere¹⁷ eta honek izaera kontingente eta politikoa ematen dio sexuaren kategoria propioari. Laqueur-ek azaltzen du nola frantses iraultzaren ostetik, eskubide sozial eta politikoen eztabaida pil-pilean dagoela, medikuntzak eta baita biologiak paper garrantzitsua jokatzen duten sexu banaketaren finkapenean. Eskubideez aritzean, biologia bera oinarritzat aurkeztea ohikoa izan zen garai hartan¹⁸, eta oraindik ere bada: *“La creación de una esfera pública burguesa, en otras palabras, agudizó la cuestión de qué sexo(s) debería ocuparla legítimamente. Y en todas partes la biología entró a formar parte del discurso”* (Laqueur, 1994:331).

Zientzia, erlijioa eta generoaren inguruan estatu espainiarraren testuingurua *“Medicos, Donjuanes y mujeres modernas”* liburuan era zabalean aztertu duen Nerea Arestik zera dio honi buruz: *“A lo largo del último cuarto de siglo del siglo XIX, la ciencia se convirtió en la forma de conocimiento más autorizada para explicar, justificar y perpetuar la supremacía masculina en todos los niveles de la vida social”* (Aresti, 2001:55). Liburuan zehar, besteak beste, sexu banaketa eta hierarkizazioa justifikatzerako orduan zientziak jokaturiko rola azaltzen du, gehienetan uste denaren kontrara, erlijioak kasu askotan emakumeentzako askatasun maila handiagoa eskaintzen zuela argudiatuz, zientziaren

17 *“Ciencia y feminismo”* liburuaren laugarren kapituluan, *“El androcentrismo en la biología y en las ciencias sociales”* izenekoan, biologiaren eta generoaren inguruko hausnarketa egiten du Sandra Harding-ek (Harding, 1996:73-98).

18 Dela emakumeen zapalkuntza justifikatzeko, beraien gorputzak baldintzatutako errealitate bezala, dela homosexualitatearen inguruan eraikitako diskurtso bio-mediku eta psikologikoa, direla emakumezkoen plazeraren inguruan eraiki ziren argudiaketak... Hemeretzigarren eta hogeigarren mendeko literatura mediku eta biologikoa errealitate soziala “ordenatu” eta zapalkuntza ezberdinei oinarri zientifikoa emateko aburuz osaturiko teoriak betarik dago.

zurruntasun misoginoarekin alderatuz behintzat.

Hari horretatik tiraka, Anne Fausto-Sterling-ek sexu bikoaren oinarriak kuestionatzen ditu hain zuzen ere biologiatik *“Cuerpos Sexuados”* (Fausto-Sterling, 2000) liburuan. Hermafroditismoa fenomeno historiko bezala eta inter-sexualitatea gaur egungo gertakari bezala aztertuz, hainbat biologo eta zientzialarien ekarpenekin bat egin eta sexua jarraipen lerro bezala (*continuo*) azaltzen du, bitan polarizaturiko errealitate bezala esplikatu ordez: *“La masculinidad y la feminidad completas representan los extremos de un espectro de tipos corporales posibles. El que estos extremos sean los más frecuentes ha dado pábulo a la idea de que no sólo son naturales (esto es, de origen natural) sino normales (esto es, la representación de un ideal estadístico y social). El conocimiento de la variación biológica, sin embargo, nos permite conceptualizar como naturales los espacios intermedios menos frecuentes, aunque sean estadísticamente inusuales”* (Fausto-Sterling, 2000:100).

Bere proposamenak, inter-sexualitatea “duintzea” luke helburu, alegia, egoera natural bezala azaltzea. Baina, horretaz harantzago, sexua jarraipen lerro bezala aurkeztean, kategoria bera kuestionatzen laguntzen digu¹⁹, biko horren izaera egiazkoa zalantzan jartzen, eta are gehiago, egoera sozial eta politikoaren kontingentzian kokatzen. Bere ustea da, halaber, sexu banaketa garbia bultzatzeak, gure egitura sozialaren beharrekin harremanetan dagoela, eta beraz ondorio sozialak eta materialak dituela, jendearen bizimoduetan eraginez²⁰.

Honela beraz, behin sexua egia biologiko dikotomiko bezala gezurtatuz²¹, eta sexualitatea sistema sinboliko eta politiko bezala aurkeztuz (heterosexualitateari instituzio eta diskurtso

19 Kuestionatu beharrekoa litzateke apika emakume eta gizon “osoak” lerro horren punta banatan jartzeak ez ote dakarren berezko hierarkizazioa, tipo “idealak” definitzean.

20 *“Cuanto más nos acercamos al prototipo (por ejemplo, de mujer o de hombre), menos contradicciones o problemas de identificación tendremos, mientras que al complejizar nuestras diferencias con el prototipo aumentamos exponencialmente nuestra indeterminación y el riesgo de ser expulsadas de la categoría identitaria el la que nos habían/habíamos insertado, cayendo en un limbo de desidentificación que nos lleva a no ser”* (Biglia & Lloret, 2010:213).

21 *“...cualquier teoría del cuerpo culturalmente construido debería cuestionar el cuerpo por ser un constructo de generalidad sospechosa cuando se concibe como pasivo y previo al discurso”* (Butler, 2001:160)

bezala egindako kritikaren bitartez) generoaren ikuspegi konplexuagoa izango genuke, gizon eta emakume kategoriak, edo hobe esanda, kategoria horien izaera ontologikoa kolokan jartzen dituen: *“Si la noción de una sustancia constante es una construcción ficticia producida a través del ordenamiento obligatorio de atributos en secuencias coherente de género, entonces parece que el género como sustancia, la viabilidad de hombre y mujer como sustantivos, se pone en duda por el juego disonante de atributos que no se ajustan a modelos consecutivos o causales de inteligibilidad”* (Butler, 2001:57).

Nola gauzatzen da, beraz, genero eraikuntza? Bere lanean Butlerrek azaltzen diguna “performatibitatearen teoria” da, handik aurrera hainbat liburutan garatuko duena (Butler, 1998, 2004). Zer esan nahi du ordea honek? Testuinguru metodologikoaren atalean zabalago aztertuko dut performatibitatearen nozioa, izan ere hizkuntzalaritzan eragin handia izan duen nozioa da. Esan dezagun momentuz, arestian azaldu ditudan mekanismoen bitartez, generoak berak irudikatu eta deskribatzen duen irudia sortu egiten duela, material bilakatzen: *“... el género resulta ser performativo, es decir, que constituye la identidad que se supone que es. En este sentido, el género siempre es un hacer, aunque no un hacer por parte de un sujeto que se pueda considerar preexistente a la acción”* (Butler, 2001:58).

Hortaz, egiten dugunak garena egiten du, edo garena egiten dugunaren ondorio da. Horren oinarrian prozesu bikoitza dugu, alde batetik errepikapena eta bestetik zigorra. Alegia, imitazioaren bidez (inoiz ez dena imitazio perfektua izango) eraikitzen ditugu nortasun sozialak, baina nortasun horiek eraiki ahal izateko, nolabait arautegia ezagutu eta inkorporatu behar dugu. Bourdieu-ren habitus-aren teoriarekin eztabaidan, zera diosku Butlerrek: *“... el cuerpo no es un fenómeno puramente subjetivo que alberga los recuerdos de su participación en los juegos convencionales del ámbito social; su competencia participativa depende en si misma de la incorporación de esta memoria cultural y su conocimiento”* (Butler, 2004:249).

Bazterketa mekanismoak medio, ordea, ezin dezakegu performatibitatea nozio boluntarista bezala ulertu. Alegia, gure nortasuna egiteko gaitasuna, gure

performatibitatea ez da egintza boluntarioa, ez da aukera librean garatzen den jarduera, baina aldi berean ez dago mimesiaren erabateko kartzelan harrapaturik. Bi prozesu hauen arteko batura da performatibitatea: alde batetik errepikapena eta beste batetik errepikapen horren desbideratzean larregi urruntzen denari zigorra eta bazterketa.

Elvira Burgosek (2012) azaltzen digun bezala, performatibitatearen teoria ulertzeko ezinbesteko elementua da Butlerrek *“exterior constitutivo”* izendatzen duena, alegia, gizakiaren ulergarritasunaren mugetatik kanpo kokatzen dena, eta bazterketa mekanismo bezala eragiten duena generoaren konstituzioan. Muga marrazten duen “kanpotasun” hori ezinbestekoa da, eta gainera, boterea ez dago subjektuarengan, preseski horrek egintzaren aurreko subjektu autonomoaren²² existentzia suposatuko lukeelako: *“La performatividad, a la vista de estos apuntes críticos sobre el constructivismo, es concebida por Butler (...) como una práctica discursiva de reiteración de normas, y de reiteración de prácticas de exclusión el la que el poder de hacer lo que se nombra no se halla en la voluntad del sujeto hablante sino que este poder es una función derivada de la cadena ritual de la reiteración”* (Burgos, 2012:108).

Butlerrek genero eraikuntzaren teoria (konstruktibismoa) pausu bat harantzago eramatea du helburu, hain zuzen ere, korrante horrek topa ditzakeen mugak seinalatuz: alde batetik, sexua genero diskurtsoen aurreko baldintza bezala azalduz gero, konstruktibismoa bere izaerarekiko kontraesanean eroriko litzateke, eraikuntzari muga ipiniz (“hemendik aurrera eraikia da eta hemendik aurrera naturala”). Bestalde, erabateko konstruktibismoaren ikuspegitik begiraturaz gero, dena litzateke eraikuntza diskurtsiboa, eta beraz subjektuen agentzia ehuneko ehunean ukatuko litzateke, berak *“lo performativo divino”* (Butler, 2002:24) izendatzen duena beharrezkoa bilakatuz, alegia, “jainkozko” esku ikusezin baten presentzia, diskurtsoen pareko.

Dikotomia ezinezko hori hausteko planteatzen du Butlerrek performatiboaren teoria.

22 Subjektu autonomoaren ideia bera kolokan jartzea izan da Butlerren asmoa “Vida Precaria” (Butler, 2006) edo “Marcos de guerra” (Butler, 2010b) bezalako lanetan. Lehenengoan batik bat autonomiaren ideia alboratu eta elkar-dependentiaren eta bizitzaren prekaritatearen inguruan ekarpen interesgarriak egin ditu, “vulnerabilidad” nozioan sakonduz, teoria teoria feministan emandako autonomia/dependentzia bikoaren inguruko eztabaidari ekarpena eginez.

Beretzat, hortaz, eraikuntza baino deseraikitzea da garrantzizkoa, horrek gizakiaren ulergarritasunaren mugak zabaldu eta demokratizatzeko aukerak eman ditzakeelako: *“En la propuesta de Butler (...) la construcción se ha de entender (...) como un proceso que en el curso de su devenir temporal funciona por la reiteración, citación, de unas normas que son la ocasión para la formación del sujeto, de las nociones de sexo y género, y que son al mismo tiempo la ocasión para la desestabilización del sujeto sexuado y generizado”* (Burgos, 2012:107).

Generoa egintza performatiboaren bidez sortzen den egitate soziala dela agertuz, Butlerrek teoriak ekinbide politiko berriak proposatu dizkio agenda feministari. Nolabait, eta aurreko atalean azaldu bezala, feminismoaren subjektu politikoa bera ere eraikuntza bezala ulertu eta berorren deseraikitzearekin jarraitu du feminismoak. Generoa, beraz, eraikigarri eta deseraikigarri bezala ulertu izan da. Hortik ere, emakumezkoek beraien generoa deseraikitzeaz gain (feminismoak, era batean edo bestean, orain bezain esplizituki izan ez arren, bere hastapenetatik finkatu duen helburu politikoa da hau) gizonezkoek ere gure generoak deseraikitzeke asmoa azaldu dugu kasu batzuetan.

Honela, gure generoa eraiki duten konbentzioen inguruan kontziente izan eta berauek era kritikoan aztertzeke erronka planteatu izan dute hainbat gizonek. Dagokidan kasuan, gizon-talde eta gizontasunaren inguruko hainbat ekimenek ere helburu hori dute. Eta horren oinarrian dagoena, edo funtsean hori posible izatea ahalbidetzen duena hain zuzen ere generoaren ikuspegi hau da, eraikuntza sozial eta kulturalarena. Gure gizontasunetik “egoki” ez deritzoguna kendu eta “egoki” deritzoguna mantentzeko ahalegina litzateke beraz, dagokiguna.

Subjektuaren krisiarekin (ez subjektu feministaren, baizik eta subjektuaren beraren krisiaz ari naiz orain, posmodernitatearekin batera etorri omen zaigun horretaz) bat egiten du honek, nahiz eta oso zaila den kausa-ondorio harremana irudikatzea. Ondorioz, deseraikitze hau helburu oso ezberdinekin eta ondorio oso anitzekin egin daiteke. Eta deseraikitze horrek borondate maila ezberdinak izan ditzake. Alegia, bularreko ileak kentzen dituen gizonak, bere herrialdetik urrun dagoen eta bertan egingo ez lukeen

“emakumezkoen lana” (demagun jende adinduaren zaintza) egin behar duen gizona, gizon-talde batean sexismoaz arduraturik dagoen gizona... Zer dute guzti hauek komunean. Esan dezakegu beraien gizontasuna, maskulinitatea, deseraikitzen ari direla. Baina zein interesekin? Zergatik edo zerk bultzaturik? Ze mailatako agentzia jokatuz?

Hemen beraz, sexismoarekin arduraturiko horien, alegia, nola edo hala -eta baieztapen honek dakarren konplexutasun guztiarekin- agenda feministarekin bat egiten duten horiena. Baina honek ez du esan nahi deseraikitze hori problematizatu ezin daitekeenik. Berdina al da deseraikitze hori subjektu kokapen maskulinitatik edo feminitatik? Zer suposatzen du batak ala besteak? Hurrengo atalean horren inguruan jardungo dut.

2.3 - Generoa deseraikitzea eta bere ondorio gizon eta emakumeentzat.

*“Bat-batean hutsune batek
bete dit barrua,
eta betiko zuloa tapatuta, ez da ezer konpontzen.”*

Ainhoa Mendibil, izenik gabeko poema²³

Aurreko atalean generoaren inguruko ikuspegi teorikoa azaltzen saiatu naiz, batik bat Judith Butler eta beste autore batzuen lanean oinarriturik. Arestian aipatu izan dudana bezala, bai Butler eta beste autore post-estrukturalista²⁴ batzuen lanak adostasun maila ezberdinak sortu ditu mugimendu eta pentsamendu feministaren baitan, hala nola eztabaida sutsuak. Estatu espainiarraren kasuan, Butlerren pentsamenduak sortu dituen gatazka eta ikusezintasunak dezenteak izan dira, eta horretarako arrazoi bat bere testu eta liburuak (eta bere pentsamendu korrante bertsuetan mugitzen diren beste batzuenak) oso berandu heldu izana dugu: *“Plantear una lectura a conciencia de la obra de Judith Butler implica ya un primer movimiento en su defensa”* (Soley-Beltran & Sabsay, 2012:12).

Hein handi baten, bat egiten dut planteamendu honekin. Nire ustez Butler eta beste post-estrukturalista feminista batzuen obrak ez dira nahikoa atentziorekin irakurri eta horren ondorioz askotan ez da jakin izan beraien potentzial osoa aprobetxatzen, nahiz eta erabateko adostasunik ez izan beraien argudiaketa lerroekin. Dena dela, ez litzateke batere zilegi izango eztabaida guzti hauen oinarrian ezjakintasuna jartzea. Hainbat eta hainbat izan dira Butlerren pentsamenduarekiko ikuspegi kritikoa azaldu dutenak arrazoi pisutsuak mahai gainean jarritz, eta bere lanaren ezagutzatik abiatuta.

Aurretik ere azaldu dudana bezala, uste dut ez dela egokia eztabaidaren mutur batean edo

²³ 2011ko martxoak 14an publikatua <http://hankahutsik.blogspot.com> blog-ean.

²⁴ Honela kalifikatuko ditut nahiz eta ondo jakin beraien artean ezberdinak diren autoreak post-estrukturalista bezala definitzeak ez duela ezinbestean beti errealitatearekin bat egin behar.

bestean kokatzea nire burua. Azken finean dikotomia horren (teoria moderno/posmoderno) bi aldeek ere oso konplexutasun handia eskaintzen digute (teoria kritikoa ugari nahasten dira, abiapuntu oso ezberdinak, ñabardura oso erabakigarriak) eta beraz nire lanaren alderdi teorikoaren xedea hor nonbait kokatzea da: azken hamarkadetan garatu diren teoriak kontutan hartuz baina erabateko ziurtasuna ematen ez didatela onartuz, aurretik eta atzetik idatzi, eztabaidatu eta praktikatu izan direnak berreskuratu eta balioan jarriz. Jakin badakit ziur aski askori postura eroso irudituko zaiela, eta ulergarria da, baina nire kokapenetik, beste aukerarik ez dudala sentitzen dut.

Lehen ere azaldu dudana bezala, subjektibazioaren inguruko eztabaidak LGT mugimenduan (*queer* aldarrikapenen bidez) izandako eragina kontutan hartuta, uste dut badaudela -ezberdintasunak ezberdintasun, eta ez dira gutxi- komunean jarri daitezkeen puntu batzuk. Era berean, uste dut subjektu politikoaren inguruko eztabaida hauek lagungarri izan daitezkeela maskulinitatearen inguruan lanean dabiltzan talde, ekimen eta ikerlarietarako. Hortik nire interesa ere gai honetan sakontzeko lanaren ikuspegia finkatzerakoan. Hori guztia dela eta lehen kapituluaren ere aipatu dudana Joshua Gamson-en “¿*Deben autodestruirse los movimientos identitarios?*” artikulura itzuliko naiz (Jiménez, 2002).

Artikulu horretan 1993 inguruan San Francisco hiriko gay eta lesbianen prentsan eman ziren eztabaidak aztertzen ditu, hain zuzen ere *queer* terminoa indarrez agertzen hasi zen unean. Eztabaidak ugariak izan ziren urte horretako “*pride*” ospakizunean (ekainak 28an burutzen den gay, lesbiana eta *trans* pertsonen aldeko manifestazio-desfile koloretsua) bisexualen eta *trans* pertsonen ikusgarritasuna areagotzea planteatzen zuten ahots batzuekin. Gaur eta hemen jorratzen ari naizen gaiari begira, ez zait hainbeste interesatzen aldarrikapen hauen zilegitasunak²⁵, baizik eta planteamendu horien aurrean eman ziren postura ezberdinen jatorria.

25 Bisexual kategoriaren baliagarritasun politikoa zalantzan jarria izan da hainbat aktibisten eskutik, izan ere, norbaitek bi sexuetakoko pertsonekin harremanak baditu, gatazka sortzen duena kasu gehienetan bere sexu berdinekoekin ere harremanak dituela da. Zentzu horretan harremanari izaera politiko zapaldua ematen diona pertsona horren alde gay edo lesbikoa da, ez bisexuala izatea, bere harremanen “erdia” zinez onarturik dagoelako jendartean.

Queer eztabaidak une hartan kolokan jartzen zituen kategoria *guztiak*. Heterosexual/homosexual binomioa kritikatzeko, gizon/emakume bikoia ere. Kategoria guztiak kolokan jartzen zituela esatea baino are egokiago izan daiteke kategoriak kasu guztietan kolokan jartzearen aldeko apustua (kontziente edo inkontzientea) egin zutela *queer* ikuspegitik abiatzen zirenek. Kategorien kuestionatze horretan ordea, errealitate materialekin topo egiten dugu, eta horregatik Gamson-ek azaltzen du nola, bere aburuz, lesbianek urduritasun eta haserre handiz erantzun zioten proposamenari. Ziur aski, besteek baino gehiago zeukaten galtzeko. Gay mugimenduak bazeramatzan bi hamarkada baino gehiago martxan²⁶ eta aldiz lesbiana taldeek beraien ikusgarritasuna irabazi berria zuten. *“Las reacciones de los gays son menos contundentes puesto que se enfrentan al desafío queer desde una posición política más fuerte; como hombres y como gays tienen una identidad pública mejor establecida. Justo cuando las lesbianas están empezando a ganar terreno político como lesbianas, se les pide no sólo que lo compartan sino también que lo subviertan al declarar “mujer” y “lesbiana” categorías inestables, permeables y fluidas”* (Jiménez, 2002)

Beste behin ere eztabaida berdinarekin harira gatoz, baina oraingo honetan azentua hor jarri nahiko nuke. Nork dauka zer galtzeko subjektu batu eta trinkoaren deseraikitze prozesuan? Alegia, posible al da deseraikitzearen proposamena bere horretan eta era totalizatzailean hartuz gero botere harreman egonkortuei mesede egitea?

Kezka hau ez da nirea, ez eta berria. Hainbat izan dira gai honen inguruan beraien arduraz azaldu duten teorilari eta aktibista feministak, gune formal zein informaletan. Era zuzen eta nahiko argian irudikatu zuen galdera Teresa De Lauretis filosofoak: *“Si la deconstrucción de género incide inevitablemente sobre su (re)construcción, ¿en qué terminos y en interés de quién se realiza esta de-re-construcción?”* (De Lauretis, 2000:61).

Beste era batera adieraziaz, arestian aipatutako *“Reflexiones feministas sobre el no-*

26 Gay mugimenduaren abiapuntu “ofiziala” 1969garren urteko Stonewall-eko istiluen ondoren kokatzen da. Ekainak 28 hartan beste hainbatetan bezala poliziak gay eta *trans* giroko “Stonewall Inn” taberna jazarri zuen, baina beste askotan ez bezala, erreakzio sozial txiki baina kualitatiboki garrantzitsua ekarri zuen. Hortik aurrera gaur egunean ezagutzen dugun bezalako gay, *trans* eta lesbianen mugimendua sortu zen (LGT mugimendu bezala laburtua).

binarismo” artikuluan ere azaleratzen da kezka hau: “¿Deconstruir la diferencia sexual puede llevar a un ocultamiento de la asimetría entre hombres y mujeres? ¿O a la homologación de las mujeres al modelo masculino? Es evidente que es diferente para una mujer y para un hombre transgredir las normas de género. Por ello, es importante distinguir bien entre estas posiciones de poder dentro de la sociedad, es necesario tener presente la jerarquía entre hombres y mujeres” (Solá & Missé, 2010)

Gai honen inguruan hainbat hausnarketa ekoitzi ditu “ezberdintasunaren feminismo” bezala izendatua izan den korrontek²⁷. Frantses feminismoaren tradizioan garrantzi handia izan duen Luce Irigaray-k, elkarrizketa batean honela azaltzen du bere subjektu femeninoa eraikitzeko asmoa, esentzialismoan erori gabe: “...hablar de o sobre la mujer puede siempre venir a ser o entenderse como una recuperación de lo femenino en el interior de una lógica que mantiene la represión, la censura, el desconocimiento. (...) el envite no consiste en elaborar una nueva teoría de la que la mujer sería el sujeto y el objeto, sino en frenar la maquinaria teórica misma, en suspender su pretensión de producir una verdad y un sentido unívocos en demasía. Lo que supone que las mujeres no quieran ser iguales a los hombres en el saber” (Irigaray, 2009:58). Honela, Irigarayk argudiatu nahi duena zera da, emakumezkoak diskurtsioan, logosean, okupatzen duen esparru horretan (izendagarria ez izatea, fikzioaren esparruan kokatua izatea, akatsa izatea) gaitasuna dagoela logika diskurtsibo hori gainditzeko (“exceso”) eta kolokan jartzeko (“perturbar”). Gaitasun hori bere aburuz feminitatea bera ukatzea baino interesgarriago litzateke, baina ezan bezala “feminitatea” ez du definitzen egoera esentzial edo naturala bezala.

Eztabaida honen oinarrian dagoena, esan bezala, emakumeak izendatzeko gaitasuna bera izan daiteke, emakumezkoen “izendagarritasuna”. De Lauretis berak (De Lauretis, 2000), “*Genealogías feministas, un itinerario personal*” artikulua ederrean emakumeen historia trazatu ahal izateko pista batzuk irudikatzeko saioa egiten du. Bertan, literaturaren esparrura joaz, Virginia Woolf-en “*Una habitación propia*” dakar bere artikulua orrialdetara. Bertan, bere ustez, idazleak *emakume bat* ordezkatu orde, *emakumeak* ordezkatzeari lortzen du, eta subjektu bilakatuz, emakumeen arteko lotura, historia eta

27 Ziur aski, berriz ere, korronte multzoez jardun beharko genuke, homogeneizazioa ekiditeko.

helburu komunak ematen dizkie. *“...el texto opera constituyendo una comunidad de lectoras, escritoras y hablantes mujeres, produciendo de esta forma los términos de un discurso crítico de mujeres; en otras palabras, el texto establece las condiciones que hacen posible el pensamiento feminista”* (De Lauretis, 2000:26).

Koska beraz, subjektu feministaz gain, emakumezko subjektuaren aukeran bertan datza, nolabaiteko fikzio batetik abiatuta ere, politika feministaren aukera bera bermatzen duena, alegia, emakumeek emakumeei buruz eta emakumezkoentzako hitz egiteko aukera, historia bera eraldatzeko aukera. Horretarako, hainbatek Judith Butler eta beste post-estrukturalista batzuek egindako planteamenduei ñabardurak bilatu eta berauen irakurketa kritikoa egitearen beharra ezinbestetzat dute. Seyla Benhabid-ek adibidez, hauxe dio posmodernitatean planteaturiko subjektuaren inguruan: *“Dado el frágil y tenue sentido de la identidad de las mujeres en muchos casos, y cuánto tienen de errados sus esfuerzos en pos de la autonomía, esta reducción de la acción de la mujer a una «obra sin autor» me parece que es, en el mejor de los casos, una virtud innecesaria”* (Amorós & Miguel Álvarez, 2005).

Emakumezko subjektua aztertzen eta jarraitzen erreza ez dela onartu beharko dugu, gutxienez. Alegia, subjektuaren deseraikitze prozesuak hein handi batean gizonezko subjektuari erantzuten diola, nahiz eta horrek ez duen nire aburuz deseraikitzearen teoria guztia baliogabetzen. Kontraesan eta bihurgune ugari izango dituen eztabaida baten aurrean gaude, eta are gehiago esango nuke, zaila izango zaigu uneoro eta edozein lekutan gure posturak higiezinak izatea. Rosi Braidottik oso ondo esplikatzeko duela uste dut: *“Que el significante «mujer» sea, por un lado, el concepto en torno al cual se han reunido las feministas en un movimiento en que las políticas de la identidad son fundamentales, y, por el otro, el concepto mismo que debe analizarse críticamente, constituye una descripción perfecta de nuestra situación histórica en capitalismo posmoderno tardío”* (Braidotti, 2004:45).

Judith Butlerrek ere, Luce Irigarayren pentsamenduari jarraiturik, ezberdintasun sexuala galdera bezala irudikatzea planteatzen digu: *“Irigaray afirma que la diferencia sexual no es*

un hecho, no es un cimientto de ningún tipo, y tampoco es la ineludible presencia de lo «real» del vocabulario lacaniano. Por el contrario, es una pregunta, una pregunta de nuestros tiempos” (Butler, 2010:251). Galdera bezala beraz, ez dago konponduta, ez dago erantzunda. Eta ziur aski sekula baieztapen edo ukapen bezala azaldu ezin izan dena da, hain zuzen ere bere galdera izaera dela medio.

Baina bi aspektu hauek -emakumezkoaren identitatea kontingentzia historiko-sozial kontraesankorra izatea eta sexu-ezberdintasuna galdera bat izatea baieztapen edo ukapena izan ordez- ez diote eztabaidari bere sakontasuna kentzen, ez eta are gutxiago erlatibotasun osoaz babesten. Auzi zehatz honen inguruan postura koherente eta jarraia mantentzea zaila izango zaigula esaten dudanean horretaz ari naiz: hartzen dugun jarrera edozein izanda ere, ondorioak izango ditu, eta ez edonolakoak. Beraz, eztabaida hau ahalik eta era arduratsuenean ematea garrantzitsua dela iruditzen zait.

Feminismoaren proiektu teoriko garrantzitsuetakoa izan da preseski subjektu unibertsal maskulinoa kolokan jartzea. Modernitatearen subjektua ez dela unibertsala, maskulinitatearen baloreetan oinarritua dagoela, pentsamendu feministak hainbatetan salatu duen kontua dugu²⁸. Ikuspegi epistemologikotik ere ekin zaio kritika lerro honi, Haraway (Haraway, 1995), Fox-Keller (Fox Keller, 1991) edo Harding (Harding, 1996) bezalako autoreen eskutik eta abiapuntu egokia izan daiteke deseraikitzearen inguruko sesioari eusteko.

Braidotti-k, *“Sobre el sujeto femenino feminista”* artikuluan zera dio: *“..las críticas feministas de la razón teórica como principio regulador (...) han tenido éxito en abordar el concepto de diferencia sexual como una manera de sentar las bases para un modelo de la subjetividad femenina. En otras palabras, pienso que el enfoque feminista específico en la cuestión de la modernidad consiste en la evaluación de los lazos o de la complicidad entre conocimiento y poder, razón y dominación, racionalidad y opresión, y de todos ellos con la masculinidad”* (Braidotti, 2004:38). Bere iritziz, hortaz, modernitatearen eta

28 Askoren artean, Ángeles Peronaren *“La construcción del concepto de ciudadanía en la modernidad”* artikuluan (Perona, 1995) egiten da subjektu modernoaren eraikuntzan emakumeen eskusioaren inguruko deskribapen argia.

ezagutzaren kritika feministaren aburua ez litzateke besterik gabe subjektu maskulino modernoaren deseraikitzea edo kolokan jartzea. Horretaz harantzago subjektibitate femeninoa garatzea posible izan dadin lehen harria jartzea ere bada.

Ideia horrekin loturik *“El sujeto en el feminismo”* artikuluan ere zera argudiatzen du: *“...es una gran oportunidad para quienes, como las mujeres, han sido históricamente privados de su derecho a la autodeterminación, pues para ellos la crisis del sujeto racional masculino puede ser un momento constructivo y positivo”* (Braidotti, 2004:18). Honela, modernitatearen krisia ez du subjektu unibertsalaren krisizat jotzen, baizik eta subjektu hori ezaugarrituz (maskulino bezala) krisi hori erlatibizatu eta aukera bezala irudikatzen du: *“...juzgo la crisis como la apertura a nuevas posibilidades, a nuevas potencialidades”* (Braidotti, 2004:18).

Gatozen bada, nortasunaren eta deseraikitzearen gaira. Althusser-rek (De Lauretis-en zitatua, 2000:46) “interpelazio” bezala definitu zuen hori da generoarenganako atxikimendu prozesua esplikatzen digun teoria. Alegia, Lauretis-ek berak erabilitako adibideari jarraituz, edozein inprimaki betetzean, gure ixa “emakume” edo “gizon” laukitxoan jartzen dugunean, gure burua genero bati atxikitzen diogu, baina horrek ez du esan nahi prozesu libre eta hautazkoa denik. Are gehiago, esan genezake guk laukitxoan ixa jartzen genuela uste genuenean laukitxoak berak jartzen zigula ixa guri (De Lauretis, 2000:46). Hain zuzen ere irudikapen zehatzak eraikitzen dituen teknologia da generoa, eta guk irudikapen horietara atxikitzen gara -irudikapen horiek ez direlarik ezinbestean eta era errazean biko garbietan sailkatu beti, are gutxiago gaur egun-.

Baina, nola eraikitzen dira irudikapen horiek? Zer esanik ez, teorika post-estrukturalista osoarentzat -eta sexualitatearen gaiari begira bereziki- berebiziko garrantzia du Michel Foucault-en lanak (Foucault, 2001, 2005). Bere eragina zabala izan da teoria feministaren garapen lerro batzuegan²⁹, baina horrek ez du esan nahi bere lana ez denik ikuspegi

29 Espainiar estatuan Michel Foucault-en lanak mugimendu sozial zein pentsamendu lerro ezberdinetan izandako eragina aztertzen du Valentín Galvañ-ek *“De vagos y maleantes”* (Galván, 2010) liburuan. *“Ni masculino ni femenino, sino todo lo contrario”* atalean (136-164) sexu askapen mugimenduegan eta mugimendu feministaregan izandako eragina aztertzen du. Mugimendu feministari dagokionez, esan beharra dago ez dituela erreakzio kritikoak apenas aztertzen, erreakzio “positibotan” zentratuz. Hala ere, lan interesgarria da filosofo frantsesaren eraginera hurbilpena egiteko.

kritikorik ere irakurri, ez eta bere teorien “berritasuna” zalantzan jarri ez denik. *“La voluntad del saber”* (Foucault, 2005), *“Historia de la sexualidad”* hirukoaren lehen atalean, sexualitatea ulertzeko moduari buelta eman, eta deskubritu beharreko barne-egia bezala aurkeztu ordez eraikuntza kultural bezala azaldu zuen. Hain zuzen ere garaian garaiko hegemoniaren zaintzaileen interesen arabera eraikitako eredu kultural bezala aurkeztu zuen sexualitatea. Horren arabera, sexualitatea erregulatzeko ez zuten isiltasun pakturik egin, ez eta askotan pentsatu izan den bezala zentsura edo errepresioa -soilik- erabili. Sexualitatea ekoizpen diskurtsiboa da, klasifikazio, neurri, balorazio eta espektatibetan oinarritua.

Foucaulten teorian ordea, non geratzen da emakumezkoen sexualitatea? Berak bere teoria sexu-ezberdintasuna kontutan hartu gabe garatu zuen, eta ziur aski honek sexualitatea bera unibertsal maskulinoan kokatzera darama. Izan ere, irudikapenak nola sortzen diren (ekoizpen diskurtsiboen bitartez) erantzun zuen autore frantsesak -nire ustetan, hankamotza izan arren, era ikusgarrian- baina ez zion erantzun De Lauretisek planteatzen digun bigarren galderari: *“... cómo cada individuo enfrentado a la misma (representación de género) la asimila subjetivamente”* (De Lauretis, 2000:48).

Hots, nola eta zergatik subjektu zehatzek eraikuntza diskurtsibo batzuetara atxikitzea hobesten dute, beste aukera batzuen ondotik. Noski, galdera honek talka egiten du Foucaulten botere banatuaren ideiarekin, eta bere teoriei egin zaien kritika garrantzitsuetakoa da: boterea “horizontalki” banatzen baldin bada³⁰, zailagoa da banaketa horretan ematen den desoreka esplikatzea, eta are zailagoa botere gabeko -edo botere urriko- guneetan kokatzen diren subjektuen aukeraketa diskurtsiboak azaltzea -behin alienazioaren teoria marxista alhora utzita, zeina Foucaulten ikuspegiak berak ukatzen duen-.

Lauretisek Wendy Hollway dakarkigu auzitara, Foucaulti egindako kritika azalduz.

30 *“Para Foucault, el gobierno «moderno» difiere radicalmente del «soberano»: mientras que en este último el poder se mantiene por encima de la sociedad (dictando leyes, dando órdenes, imponiendo normas), en el gobierno moderno ya no existe esta relación de exterioridad: sociedad y poder coinciden. Esto significa que ya no se trata de imponer el poder desde arriba, sino de implicar a la sociedad en la elaboración de esas directrices que la rigen, de hacerla participe de los propios mecanismos de poder”* (Gil, 2011:109).

Foucaultek ez du azaltzen nola pertsonak onarturiko egia batzuen ondorioz osatzen diren, eta ez ordea beste batzuen ondorioz. Bere ustetan, une historiko berdintsu batean sexualitatearen inguruan diskurtso ezberdinak baldin badaude, aukera bat edo beste hartzera bultzatuko gaituena azaldu behar da, alegia zerk garamatzen inbertsioa nun egin erabakitzen. Inbertsioa (ingeleseko "investment"-etik) zera litzateke: *"algo que está entre la adhesión emocional y el interés adquirido por el relativo poder (satisfacción, recompensa, pago) que esa posición promete"* (De Lauretis, 2000:51). Honek azaldu lezake, alde batetik zer dela eta emakume ezberdinek posizio diskurtsibo ezberdinak hartu dituzten, eta baita nola posizio horiek generoaz gain beste eraikuntza diskurtsibo batzuen eraginez mugitzen diren (arraza, klasea, jatorria...). Hertsadura mekanismoaren bitartez ziur aski burutuko da prozesua, eta prozesu horretan okerra litzateke generoa alde batera uztea, alegia, sexualitatearen eraikuntza diskurtsiboek genero ezberdinetan inskribaturikoengan eragin ezberdindua dutela onartzea ezinbestekoa da.

Silvia Federicci ere kritika luzatzen dio Foucaulten sexualitatearen inguruko teoriari, hain zuzen ere arrazoi bertsuetan oinarriturik. *"Calibán y la bruja"* (Federici, 2004) lanean sorginen ehiza aztertzen du, besteak beste, emakumetasunaren ideia modernoaren eraikuntza azaltzeko, ikuspegi materialista eta diskurtsibotik. Bertan, frantses filosofoak eginiko analisisa hankamotz geratzen dela azaltzen du, hain zuzen ere konfesioan zentratu eta sorgin ehiza (Foucaultek aztertutako garai historikoan) alboratu izanagatik: *"Ciertamente podemos decir que el lenguaje de la caza de brujas «produjo» a la Mujer como una especie diferente, un ser sui generis, más carnal y pervertido por naturaleza. También podemos decir que la producción de la «mujer pervertida» fue un paso hacia la transformación de la vis erotica femenina en vis laborativa (...). Pero debemos apreciar el carácter destructivo de este proceso, que también demuestra los límites de una «historia de la sexualidad» en general, como la propuesta por Foucault, que trata la sexualidad desde la perspectiva de un sujeto indiferenciado, de género neutro y como una actividad que tiene las mismas consecuencias para hombres y mujeres "* (Federici, 2004:264).

Sexualitatearen historia eraikitzean (hobe esanda deseraikitzean) abiapuntua non finkatu da kontua idazle italiarrarentzat. Alegia, ezin daitezke prozesu diskurtsiboak deseraiki

kontutan hartu gabe prozesu horiek, bere sorreratik jada, sexuaren arabera banatuta zeudela, ez zirela euskarri hutsak betetzen ari. Gorputzek esanahiak zituzten orduan ere eta beraz eraikuntza diskurtsibo ezberdinak aplikatu zitzaizkiela pentsatzea bidezkoa da: “... *lo que Foucault habría aprendido si en su Historia de la sexualidad (1978) hubiera estudiado la caza de brujas en lugar de concentrarse en la confesión pastoral, es que esa historia no puede escribirse desde el punto de vista de un sujeto universal, abstracto, asexual*” (Federici, 2004:31).

Kritika ugari beraz, subjektuaren deseraikitzea aipatzen denean, emakumezkoaren desagerpena “de facto” gertatu daitekeelako. Identitatea deseraiki asmoz, subjektibitatea deseraikitzen egon gaitezke,

existentziaren beraren kondizioa. Subjektibitatea egintza bezala, agentzia bezala, izateko gaitasun bezala: “...*lo que aquí está en juego es la pensabilidad [thinkability] o la representabilidad de un sujeto femenino con una entidad capaz de representarse a sí misma*” (Braidotti, 2004:50). Literaturaren esparrura ekarriz, Lauretisek Jonathan Culler hizkuntzalariaren teoria dakarkigu, Tania Modleskik aztertua “*Feminism and the power of interpretation, some critical readings*” (Modleski, 1986) artikuluan, alegia, irakurketa identitarioa ez dela zertan gorputz zehatzetatik burutu behar:

“Para Culler, cada estadio de la crítica feminista convierte en cada vez más problemática la idea de la «experiencia de las mujeres». Poniendo en duda esa noción, Culler consigue crear un espacio de interpretación de los textos literarios por parte de los hombres feministas. Así, llegados a un cierto punto, cita la observación de Peggy Kamuf sobre el feminismo como una modalidad de lectura y toma prestado un término de Elaine Showalter para sugerir que «leer como mujer» no es en el fondo una cuestión del género real del lector: Culler habla una y otra vez de la necesidad del crítico de adoptar lo que Showalter ha llamado la «hipótesis» de un lector mujer, en vez de apelar a la experiencia de lectoras reales” (Modleski, 1986:132, De Lauretis, 2000:59-n zitatua).

Hori horrela, Modleskiren irakurketa hurrengoa da: hain zuzen ere bere burua feministatzat duen une horretan, Cullerrek inoiz baino gehiago jokatzen du patriarkatuaren jokoa. Alegia, emakume irakurleak “hipotesi” bezala hartzean, ordezkagarria den subjektibitatea aurkezten digu. Ez dagoenez emakumetasuna bildu dezakeen osotasunik, edozeinek joka dezake emakumetasuna. Honek ez du identitatea deseraikitzen, baizik eta subjektibitatea deuseztatzen. Modleskiren ustez kritika literario feministak ez luke emakumea hipotesi bezala tratatu beharko, baizik eta errealitate bezala.

Hortaz, deseraikitze lan horrekin kontu handia izan beharraz ohartzen gaituzte autore hauek. Izan ere, identitatea eta subjektibitatearen artean banaketa txikia egitea egokia da kasu honetan. Hertsaduraz eta eraikuntza diskurtsiboez sortutako identitateak erabat deseraikiz gero, ez dugu zertan subjektibitatea ukatu behar. Alegia, eta Braidottiren hitzak hartuz: *“...la tarea de pensar nuevas formas de subjetividad femenina, mediante el proyecto de la diferencia sexual entendida como la expresión del deseo ontológico de las mujeres implica la transformación de las estructuras e imágenes propias del pensamiento y no sólo del contenido proposicional de los pensamientos”* (Braidotti, 2004:42).

Subjektuaren inguruko hautemate honek -identitatearen gaiari konplexutasuna gehitzen diona- egokia da aztertutako gaiari begira, eta agentziarekin zerikusi handia du. Azken urteotan “feminismoa denon afera da” mezua zabaldu da, eta egokia deritzot, zer esan nezake nik, gizona izanda ikerketa feministetan aritzen naizen heinean! Bide honetatik ere sortu da gizonezko batzuegan era antolatuan sexismoaren aurkako borrokan parte hartzearen ideia ere, eta lan honetan aztertuko ditudan gizon-talde eta ekimenak ahalegin horren erakusle dira.

Ekimen hauek, gizonezkoon ekarpena zein izan datekeen pentsatu eta proposatzeaz gain ezinbestean zaindu egin beharko dute borroka feministaren esparrua hedatzeak (kasu honetan gizonezko subjektuetara) ekarri ditzakeen ondorioak subjektuaren ikuspegitik. Alegia, ze punturaino mugimenduari lagundu asmoz indar ezberdinen arteko sinergiak osatu ordez esparru batzuen ahultzea suposatu dezakeen parte-hartze horrek, eta ondorioz emakumezkoen agentziaren eta gaitasun diskurtsibo sortzailearen murrizketa

ekarri ere.

2.4 - Maskulinitatearen inguruko ikerketak.

*“Ene! Gizonik ez balego
orduan bai pagotxa.
Ene! Gizonik ez balego
orduan zer?”*

H.M. Enzensberger, Ruper Ordorikak kantatua

“In just seven days, I can make you a man”

Dr. Frank-N-Furter, Rocky Horror Picture Show

Atal honetan maskulinitatearen inguruko lan teoriko batzuen errebasoa egingo dut, bereziki begirada aurreko ataletan azaldu dudan ikuspegitik bideratuz. Ohikoa izaten da maskulinitatearen inguruko ikerketetan maskulinitatea bera definitzeko lan handiak hartzea, edo eta ikuspegi psikologiko edo sinbolikotik abiatuta maskulinitatea osatzen duten elementuak identifikatu nahi izatea. Onarturik lan hori interesgarria eta beharrezkoa dela, ez dut nik hemen horrelako aferetan larregi sakonduko, nahiz eta ezinbestean horrelako aspektutan finkatuko dudan begirada ere.

Abiapuntu bezala azken hamarkadetan burutu diren maskulinitateari buruzko teorizazioetako batzuk hartuko ditut. Maskulinitatearen inguruko ikerketak, eremu akademikoan behintzat, laurogeigarren hamarkada amaieran kokatu ditzakegu. Aurretik ere baziren gaiari buruzko ikerketak baina hamarkada horren amaieran hasi zen maskulinitatea aztertzearen inguruko interesa hedatzen: *“(..) pero ha sido desde finales de la década de los años ochenta cuando este campo se ha desarrollado con mayor ímpetu, y ha despertado un interés creciente también para la investigación histórica, hasta constituirse en un terreno tan fecundo como prometedor que contribuirá a profundizar la mirada de género tanto en el presente como en el pasado”* (Aresti, 2010:14).

Hastapenetatik, maskulinitatearen inguruko ikerketek lotura handia izan dute genero ikerketekin, eta hein batean ere ikerketa feministekin. Nolabait, teoria feministak egindako

generoaren inguruko artikulazio ezberdinek isla izan dute diziplina ezberdinetan, eta horrek maskulinitatea ikertzeko gogoia piztu du haien baitan, astiro-astiro *“men’s studies”* edo maskulinitatearen inguruko ikerketak finkatuz: *“Los estudios de las mujeres han creado, pues, gran parte del vocabulario para discusiones académicas sobre la desigualdad y la construcción del género -a saber, las construcciones culturales de la feminidad pero también de la masculinidad. Inspirados por la teoría feminista, los estudios de la masculinidad expanden y enfatizan, pues, el análisis de la masculinidad dentro de los estudios de género”* (Carabí, 2003)

Dena dela, eta atal teorikoaren sarreran aipatu dudana bezala, gero eta argiagoa da maskulinitatearen inguruko ikerketa hauen autorreferentzialtasuna. Alegia, laurogeita hamargarren hamarkadako ikerketa askotan teoria feministaren presentzia handia bazen bibliografietan, azken urteotan, ikerketa lerro hau akademian tinkotu ahala, gero eta urriagoak dira. Espainiar estatuan ere, lerro honen garapena azken hamar bat urteetan eman dela esan dezakegu, eta joera hau errepikatu egin da hein handi baten -salbuespenak salbuespen-.

Honek zerikusia izan dezake ikerketa lerro hau gure gertuko testuingurura “berandu” heltzearekin, alegia, ez bere hastapenetan baizik eta dagoeneko nolabaiteko korpus teorikoa zeukanean³¹. Kontutan hartu behar da, maskulinitatearen inguruko ikerketetan autore ugari gizonezkoak direla -beste esparru batzuetako genero eta ikerketa feministekin alboraturik, are ikusgarriagoa da alde hau- eta honek erakargarria egiten duela bibliografia hau ikertzaile askorentzat, akademian balioa eta gizentasuna parekatzera ohituak baikara.

Edonola ere, ikerketa esparru hau irekitzeak zerikusia dauka begirada gizonongan zentratzearen ideiarekin. *“No sólo resulta importante, sino que es imprescindible (...) solamente focalizando nuestra mirada en el hombre tendremos nuevas herramientas para*

31 Ematen duenez, eta Judith Butlerren teorien inguruko eztabaidekin, lanok itzuli artean igarotako denborak gerora badu eraginik ikerketa-lerro batzuen garapenean. Dena dela, aipatu beharreko da, halaber, testu inguru anglo-saxoian ematen diren ekarpen teorikoek beti ere pisu handia -larregizkoa- izan ohi dutela beste gune batzuetatik datozenekin alderatuz. Latinoamerikan, esaterako, publikatzen diren liburu ugari ez dute horrenbesteko eragina izaten, nahiz eta gazteleraz idatziak egoteak gertutasuna suposatu printzipioz.

romper lo que se ha denominado “techo de cristal”, es decir, límites reales -e invisibles- con los que chocan las mujeres en la ciudadanía a pesar de que la legislación es, en principio, igual para ambos sexos” (Gabarró, 2009)

Badira hainbat hamarkada ekialdeko gizarte gehienetan legediek esplizituki generoan oinarrituriko diskriminazio eta zapalkuntza oro debekatzen dutela, baina hala ere generoen arteko harremanak ez dira orekatuak. Fenomeno horri hainbat azalpen eman zaizkio, eta azalpen horien arabera planteatzen diren irtenbideak ere anitzak dira. Hainbat ahotssek berdintasunaren erronka lortzeko gizonezkoen parte-hartzea ezinbestekoa dela diote, alegia, emakumezkoek beraien rol sozialak aldatu dituzten bezala, gizonezkoek ere aldatu beharko genituzkeela, alegia: *“Los hombres machistas no están bien y tienen que realizar cambios muy evidentes”* (Gabarró, 2009). Era berean, gizonezkoen parte-hartze hori gabe emakumezkoen askapena ezinezkoa dela azpimarratzen dute batzuek: *“Parto de la convicción profunda de que si no contamos con el concurso de los hombres la causa de la liberación de las mujeres no alcanzara sus fines”* (Valcuende del Río & Blanco López, 2003) Ikuspegi horrek bere isla eduki du ere instituzioetan, eta eragin handia berdintasun sailetatik proposatu diren politika askorengan³².

Begirada gizonezkoengan zentratzeak (genero ikuspegitik) badauzka bere inplikazioak, agenda feministei begira interes maila ezberdinak suposatu ditzaketenak. Alde batetik begirada gizonarengan jartzeak gizonaren beraren izaera unibertsal eta ahistorikoa haustea dakar. Alegia, gizona genero ikuspegitik ikergarria egitea maskulinitatearen izaera esentziala ukatzea da. Maskulinitatea nola eraiki eta moldatu den ikertu badaiteke, berau ez da ezinbestean existitzen den zerbait, eraldagarria da eta ez da, hortaz, unibertsala. Garrantzitsua izan daiteke, beraz, unibertsal eta ukiezintzat eman den subjektua kolokan jartzea.

Bestalde, gizonarengan begirada jartzea ez da deus berria, gizonarengan begirada

32 2008an Izaskun Moyuak, orduan Emakundeko zuzendaria zenak zera adierazten zuen *“Los hombres, la igualdad y las nuevas masculinidades”* liburuaren aurkezpen testuan: *“Todo ello desde la perspectiva de la necesidad del cambio en los hombres como factor determinante para el avance en la igualdad de mujeres y hombres”* (Moyua, 2008). Beste hainbat eta hainbat adierazpen instituzional topa daitezke tonu antzerakoan.

kritikoa jartzea izan daiteke berritasuna gizarte zientzien historian. Kontutan hartu beharko da, ordea, begirada -kritikoa ala ez- nonbaiten jartzeak badauzkala inplikazio sozial eta politikoak. Nerea Aresti historialariaren hitzak dira honakoak: “... *la cuestión no era situar a un mismo nivel la recuperación del pasado de las mujeres y de los hombres -desde luego ellos no requerían semejante empeño- sino incorporar el estudio de la masculinidad, de la construcción de género de los sujetos varones, al proyecto de una historiografía feminista*” (Aresti, 2010:15-16). Argumentu honi tiraka diot begirada desbideratzea bera eginbide politikoa dela oso, inplikazioz betea, eta, hortaz, kontu eta errespetu handiz tratatu beharrekoa.

Maskulinitatearen inguruko ikerketen subjektu nagusia maskulinitatea bera izanik, lan handia jarri izan dute hainbat autorek bera definitu eta bere mugak irudikatzen. Alegia, maskulinitatea zer da, esentzia? Ala portaera soziala? Rol bat da? Identitatea?

Askotan, portaera eta sinismen talde bezala definitua izan da maskulinitatea. Lusi Boninok adibidez, maskulinitatea identifika dezaketen sinismen nagusi bezala identifikatzen ditu honakoak: modernitatearen banakotasunaren ideologia (autosufizientzia, efikazia eta laguntzarik behar ez izatea inplikatzeko duena); ezberdina den horren -bestearen- satanizazioa eta alboratzea; hierarkiak errespetatu eta araua betetzea; eta azkenik emakumezkoen parean nagusitasuna -eremu publikoaren monopolioa dakarrena- (Bonino, 2000:46-47).

Aldi berean horrek hainbat axiomei erabateko errespetua dakar, hala nola, “ez izan emakumea, ezta apur bat ere”, “izan zaitez norbait, norbait garrantzizkoa”, “izan tipo gogorra”, “bidali pikutara nahi duzuna nahi duzunean” edo “bete arauak eta errespetatu hierarkia” (Kuper, 1995. Boninon zitatua, Bonino, 2000:49). Askotan, maskulinitatea definizio zehatzarekin baino arau eta betebeharren zerrendarekin lotzen da beraz: “*En resumen, los hombres de verdad tienen que cumplir lo siguiente: ser distintos y superiores a las mujeres (...), usar la violencia para demostrar su virilidad (...), existe el mandato de que los otros hombres deben agredir a los disidentes (...), la dureza, la valentía y el control de las emociones (...), competir y ganar (...), proveedores de su entorno (...), la sexualidad*

sirve para demostrar su propia virilidad (...)” (Gabarró, 2009:56).

Haatik, bada definizio sintetikoagoak ematen dituenik ere: *“no existe el grado cero de masculinidad, ya que la masculinidad es ni más ni menos que una ideología, un constructo social destinado a justificar la dominación masculina”* (Cortés, 2004).

Maskulinitateari buruz jardutean azaldu ohi den beste kezka handi bat berorren neurgarritasuna da. Alegia, izan daiteke gizona oso maskulinoa edo ez hain maskulinoa? Edo maskulinitatea, arau bezala, bat eta bakarra da eta, ondorioz, betetzen ez duena berehala zigortua da? Eta araua betetzen ez duten horiek, zer dira? Gizon ez-maskulinoak? Gizonak izateari uzten al diote? Edo besterik gabe ez dira “horren” gizonak?

Boninok (2000) azalduko Kuperren (1995) teoriaren arabera maskulinitatea “dena ala ezer ez” logikaren baitan ulertu beharrekoa da. Alegia, araua zehazten duena eredia da, ideala, eta berorrekin bat ez egiteak, beste mugan kokatzen du araua apurtzen duen hori: *“el no cumplimiento del ideal que propone la creencia (lo deseable/idealizado) arrastra inevitablemente al incumplidor a su extremo opuesto: el negativo del ideal propuesto por dicha creencia (lo temido/persecutorio), sin matizaciones”* (Bonino, 2000:48).

Ikuspegi honek aurpegi ezberdinak ditu. Alde batetik maskulinitatearen arauaren (arauen) zurruntasunaz ohartarazten gaitu, beraien hertsadura gaitasunaz eta baita arau horiek haustek hainbatentzat dakartzaten ondorioez. Bestalde errealitate batzuk ezkutatzeko efektua izan dezake maskulinitatearen kontzepzio horretatik errealitateari so egitea, are gehiago gaur egunean. Esan genezake gizentasuna finkatzen duten arauen bat edo beste -neurri batean edo bestean- betetzen ez duten gizonak arbuaiatuak eta jarraitu ez beharreko eredutzat irudikatzen ditugula? Egun, eta betidanik, maskulinitatea bizitzeko hainbat era ezberdin daudela esango nuke, eta arestian aipaturiko arau guztiek ez dutela balio berdina, ez eta hertsadura gaitasun bera, ezta are gutxiago norbanakoa taldetik kanpo uzteko gaitasun bera.

Izan ere, berdina al da gaur egungo euskal gizartean tipo gogor itxura ez izatea,

emakumez janztea edo beste gizonezko batzuekin sexu harremanak izatea? Hirurak ala hirurak (indartsu azaltzea, emetasuna ez esperimentatu/erakustea eta heterosexualitatea) maskulinitatearen arau ukaezin bezala azaltzen dira gizontasunaren inguruko teorietan. Hauetako bakoitza haustek, ordea, oso balio ezberdina du eta ondorio ezberdinak dakartza. Are gehiago, galdetzekoa litzateke maskulinitatearen arau horiek askotan ez ote ditugun estereotipatu edo gutxienez estatiko bihurtu; gaur egun -testuinguru kulturalaren arabera beti ere- gizona izatea apika beste gauza bat da³³. Arauak horrela irudikatzeak, beraz, izan ditzake bestelako ondorio batzuk ere, tartean inor ez dela identifikatzen arau horren betetzaila bezala, eta ondorioz, jarrera aldaketak bultzatzea zaila izan daiteke.

Maskulinitatea beraz, aldatzen ari da ala ez? Eta aldatzen ari bada, ze neurritan? Alegia, oinarrizko bere ezaugarriak aldatzen ari dira ala soilik kanpoko itxura? Honen inguruan ere, eztabaida eta desadostasun ugari. Alde batetik maskulinitatearen irudi lar estereotipatua sortzen ari izateko beldurra egon badago: *“A veces me preocupa que podamos hacer lo mismo con los hombres, identificando la masculinidad con los rasgos más negativos de ésta o al conjunto de los hombres con los más tradicionales, carcas y trogloditas”* (Valcuende del Río & Blanco López, 2003). Askotan azpimarratzen den ideia da hori, alegia, feminismoak edo patriarkatuaren inguruko teoriak gizonezko guztiak zapaltzaile bezala irudikatzeak berarekin dakarren injustizia. Nolabait esanda “zuhaitzak ez digu basoa ikusten uzten” eta hori dela eta gauzak bere lekuan jarri eta nolabait “bakoitzari berea” emateko beharra azpimarratzen da. Honek lotura handia du erruduntasun sentimenduarekin, eta gizon talde askotan horren eragina ikusten da³⁴.

Horretaz gain, ordea, aurreko zitak ere maskulinitatea deskribatzerako orduan

33 Burura datorrit espainiar osasun ministerioak iragan urtean GIB(VIH)ari buruz eginiko kanpaina, batik bat homosexualoi zuzendua zegoena, bideo spot eta kartelen bitartez plazaratua. Lema nagusia *“De hombre a hombre, habla del VIH”* zuen. Argi adierazten du “hombre” kontzeptuak berak bizi duen eboluzioa. Duela berrogei urte inork ez luke hitz hori adieraziko homosexual publikoa interpelatzeko. Are gehiago, garaiko homosexualek ere ez dakit erantzungo lioketen hain errez “hombre” hitzaren interpelazio indarrari. “Hombre” izatea, beraz, ez da arau zurrunez osatzen den kategoria, edo gutxienez arau horiek aldakorrek dira. Kanpainako bideoa hemen ikus daiteke: <https://www.youtube.com/watch?v=sCSaj9T8qg0> (2012-08-29an kontsultatua).

34 Oskar Aranda sexologoak, esaterako, lahaine.org web orrian idatzitako iritzi artikuluko batean zera zioen berriki Eusko Jaurlaritzak martxan jarritako “gizonduz” programari buruz: *“... el programa Gizonduz, donde había codazos de los pro-hombres de la cultura vasca por aparecer en esa foto, como si eso fuera importante para dejar de estar bajo sospecha, presentándose en sociedad como hombres buenos”* (Aranda, 2008). Artikulua izenburua, hain zuzen ere, “Algunos hombres buenos” da.

iraganarekin zerikusia duten adjektiboak erabiltzeko ohitura ere azaltzen digu. *“Tradicionales, carcas y trogloditas”* diogunean maskulinitatea (kasu honetan maskulinitatearen ezaugarri negatiboak) iraganeko kontu gisa identifikatzen ditugu. Victor J. Seidler-ek ere jarrera batzuk orokortzeko joera du: *“Desde la década de los setenta los jóvenes han aprendido a pensar de forma diferente sobre temas de género, sexualidad y poder”* (Seidler, 2006:18). Eraldaketa hau mugimendu feministaren aldarrikapen batzuekin lotzen du, baina kontuz ibili beharko ginateke honek ere efektu bikoitza duelako. Alde batetik, mugimendu feministaren lorpenak eta bere eragina ukatzea negatiboa litzateke, izan ere emakumezkoen eta feminismoaren agentzia eta gaitasuna isilarazten duen tradizioarekin bat egitea. Baina bestalde, aldaketa hauek definitibo eta orokor bezala aurkezteak zailago bilakatu dezake etorkizunean berdintasun faltaren eraginak identifikatu eta azalaraztea.

Honekin batera, tentagarria den arren, ez genuke pentsatu beharko aldaketa horiekiko erresistentziak mundu tradizioaletik edo erligiotik soilik datozenik - *“Sin embargo, también fueron encontrando resistencias debido al resurgimiento del fundamentalismo religioso, que se afanaba por mantener y dar un nuevo vigor a las relaciones patriarcales”* (Seidler, 2006:18) – izan ere, patriarkatuak artikulazio gaitasun handia erakutsi du gizarte moderno eta posmodernoetan, erligioaren eta tradizioaren presentzia oso ezberdina dutenetan ere.

Aldi berean, maskulinitate tradizional hori arbuigarritzat jotzen denean jendarteko sektore zehatzekin lotzeko joera ere badago, genero indarkeria kasu ugarian jatorri ezberdinetako pertsonekin lotzen denean bezala³⁵. Hemen ere, maskulinitate eredu “tradizional” hori erakargarri bezala aurkezten da klase sozial baxukoentzat: *“Tampoco quisiera ser tachado de pesimista, pero creo que existe una clara tendencia, especialmente en los sectores sociales más marginados, a identificarse con las imágenes de una cultura dominante que apuesta por la virilidad misógina...”* (Cortés, 2004:234).

35 Gai honen inguruan jarduten dira, besteak beste, Débora Betrisey Nadali eta Ángel J. Gordo Perez *“Ocultar mostrando: los medios de comunicación y la violencia doméstica”* artikuluan, Barbara Biglia eta Conchi San Martín *“Rompiendo imaginarios, maltratadores políticamente correctos”* artikuluan (Biglia & San Martín, 2007) edo Sabrina Brancato *“Masculinidad y etnicidad: las representaciones racistas y el mito del violador negro”* artikuluan (Carabí & Segarra, 2000).

Maskulinitatearen ikerketan tentsio konstantea da aldaketa eta erresistentziaren artekoa. Aldaketa gertatuzat ematen da eta erresistentziak aztertu, nahiz eta nire aburuz une batzuetan interesgarriagoa suerta daitekeen aldatu ez dena -iraunkorra dena- aztertu eta aldaketen garrantzia kolokan jarri edo erlatibizatzea. Edonola ere, aldaketarekiko erresistentzia, esan bezala, oso presente dago. Pierre Bourdieuk honela azaltzen du gizonezkoen erresistentzia emakumezkoak enplegu zehatz batzuetan lanean hasi zirenean: *“La violencia de algunas reacciones emocionales contra la entrada de las mujeres en tal o cual profesión se entiende si sabemos que las propias posiciones sociales están sexuadas, y son sexuantes, y que, al defender sus puestos contra la feminización, lo que los hombres pretenden proteger es su idea más profunda de sí mismos en cuanto que hombres...”* (Bourdieu, 2007:119).

Aldaketak zalantzan jarri eta bere kontingentzian kokatzea garrantzitsua da, aldaketak ukatzea edo besterik gabe aldarrikatzeak dakartzan arriskuetan ez erortze aldera. Nerea Arestik dio: *“También la masculinidad es una categoría inestable, construida en el tiempo en el seno de una relación de poder con las mujeres y de unos hombres con otros. Su significado, al igual que el de la feminidad, no ha variado al ritmo a veces frenético de los cambios sociales, culturales o del acontecer político. De hecho algunos trabajos han subrayado la relativa estabilidad de los ideales de género...”* (Aresti, 2010:13). Genero eredu horien aldaketak, beraz, ematen duena baino motelagoak lirateke, hain zuzen ere gizarte egituran era sakonean errotzen direlako. Dena dela, bizkaitar teorikoak historiaren balioa aldarrikatzen du “gorputzak aldaezinak diren esentzien eroale huts bezala” ez ikusten laguntzeko.

Maskulinitatearen kontzepzioaren bilakaera aztertzea lan interesgarria da, eta horretarako ezinbesteko aurrebaldintza izango da aldaketa horiek non ematen diren mugatzea. Azken hamarkadetan espainiar estatuaren testuinguruan maskulinitateak emandako jira-birak aztertu dituen Agustín García García honela azaltzen du: *“... no se trata de negar la profunda transformación de los modelos de identificación de género y las relaciones en las que se fraguan, pero hemos de tomar más en serio lo que se dice cuando se pregona que la masculinidad está en crisis y no hacer de ella una respuesta sino el origen de una*

pregunta. ¿Por qué los hombres están en crisis? ¿Todos los hombres están en crisis? ¿En la misma crisis? ¿Qué crisis?” (García García, 2008).

Gehienbat gizonen arteko botere harremanen azterketa izan da maskulinitate terminoa pluralera -maskulinitateak- aldatzera bultzatu duena. Alegia, lehenago ere esan dudana bezala, maskulinitateak hierarkia suposatzen du gizon eta emakumeen artean, baina aldi berean gizonen talde barnean ere. Nolabait gizonok gara maskulinitatearen balioen zaindariak, eta horrek arau nagusietatik aldentzen direnak zigortzera eramaten gaitu, ahulak direnak, femeninoak direnak, ez-hain-maskulinoak direnen kontra eginez.

Aspektu honetan asko sakondu du gizontasunaren inguruko literaturak. Zentzu honetan, emakume subjektuak ezagutu duen deseraikitze prozesuaren parekotzat jotzen da ere subjektu maskulinoa, eta hortaz, homogenea ez den batasun bezala aurkezten da. Interesgarria da, ordea, ekuazio horretan boterearen elementuak nola jokatzen duen. Alegia, gizona baldin bagara maskulinitatearen zaindaria zuhurra, emakumezkoak zein neurritaraino dira feminitatearen zaindaria ere? Nire ustez emakumezkoek ere hertsadura mekanismoak beste emakumeen feminitatea bermatzeko eta desbideratzeak zuzentzeko nola darabiltzaten aztertzea oso garrantzitsua da. Baina *besteari* buruz ari garela, berdina al da gizona emakumezkoen feminitatearen gainean izan dezakegun hertsadura gaitasuna eta emakumezkoek gizona maskulinitatearen gainean dutena? Eta hertsadura hori elkarrekikoa dela onartuz ere, parekoa al da *besteari* desbideratzea zigortzeko ahalmena?

Hala, subjektuaren inguruko eztabaida hauek “maskulinitateez” hitz egitera eraman gaitu³⁶ eta terminoa pluralean jartzeak baditu bere inplikazioak. Alde batetik, esan bezala, gizona arteko botere mailaketa adierazteko eraginkorra zaigu maskulinitateaz pluralean hitz egitea, eta maskulinitatearen inguruan biltzen diren praktika ezberdinak identifikatu eta azaltzeko. Bestalde, ordea, maskulinitatea forma anitzak dituen esentzia

³⁶ Ikus bedi emakumezkoen kasuetan apenas hitz egiten dela feminitateez, eztabaida emakumea edo emakumeak izendatzean zentratu delarik. Autore batzuen lanetan “maskulinitate femeninoez” hitz egiten da, maskulinitatea delarik berriz ere plurala daramana eta feminitatearen esanahia “emakume” izateari lotuta agertzen delarik, alegia “sexu” kategoriari. Beste kasu batzuetan, ordea, “nesken maskulinitatea” da aipatzen dena, genero eta sexu kategorien banaketa egokia eginez. (Platero Méndez, 2010).

bezala aurkeztu dezakegu: *“El riesgo fundamental es pensar que la masculinidad es una esencia que tiene múltiples formas pero que necesariamente tiene que seguir siendo. Es decir, cuando nos encontramos un colectivo que no sigue los dictados dominantes señalamos que es «otra forma de entender la masculinidad»; pero la pregunta que se nos plantea es si eso es masculinidad o simplemente es otra cosa”* (Valcuende del Río & Blanco López, 2003).

Baieztapen honen inplikazioak balioanitzak dira. Alde batetik esperientzien aniztasun hori irudikatu asmoz kategoria bera (maskulinitatea) konplexu bezala azaldu eta problematizatzea egokia izan daiteke maskulinitatea esentzia bezala kuestionatzeko. Azken finean, maskulinitatetik “egokia” ez dena kolokan jarri eta kenduz gero, zer geratzen zaigu? Gizona izateko era berria edo ezereza? Alegia, zentzurik izango luke maskulinitateak kategoria bezala egungo konfigurazioa haustea lortuko bagenu? Galdera egokia da, erantzuna, berriz ere, aldebikoa. Aldebikoa diot erantzunaren ondorio politikoak kontutan hartu beharrekoak direlako. Alegia, gizentasunaren arauen bat hausten duena jada ez bada gizona, nor da gizon? Eta inor ez bada gizon, non daude patriarkatuaren abantailak eta pribilegioak?

Raewin Connell australiarrek *“Masculinities”* liburuan maskulinitateei buruzko ikerketetan oso garrantzitsua izan den nozioa bataiatu zuen: maskulinitate hegemonikoa. Egokia zaigu nozio hau aurreko galderari arduraz erantzuteko. Hegemonia kontzeptua Gramsciren boterearen ikuspegitik dator, eta giza talde batek bizitza sozialean aginte posizioa bere egin eta eusteko beharrezko duen dinamika kulturalari dagokio (Connell, 1995a:77). Honek, ezinbestean, inplikazio batzuk ditu maskulinitatearen ikerketan, erdigunea praktika sozialean jarriz (boterearekin harremanetan). Connellen hitzetan, maskulinitatea azaltzeko hiru korrante edo joera nagusi egon izan dira, bakoitzak bere ekarpena egin arren, bere mugak ere agertu dituela.

Alde batetik maskulinitatearen ikuspegi positibista legoke, fisiologian edo biologian zein joera eta gertaeren ikuspegi estatistikoan oinarria duena. Hormona kopurua dela, ezaugarri fisikoak direla, erakutsitako joeren nagusitasuna dela... Maskulinitatea zer den

azaltzeko ikuspegi positibistatik egindako saiakerek hainbat mugekin egin dute topo, besteak beste, zientzia positiboari gaur egungo epistemologietatik eginiko kritika, tartean epistemologia feministatik. Alegia, ez dago abiapuntu edo kokapen zehatzik ez duen zientziarik, eta ondorioz, maskulinitatea identifikatzeko aldagaiak kulturalki zehaztuta baditugu, noski, aldagai horiek topatzen ditugun lekuan maskulinitatea dagoela esango dugu. Hau da, maskulinitatearen bila gabiltzala, gizon eta emakume izateak eta ondorioz maskulino edo femenino izateak suposatzen duena aldeztu aurretik definitu beharra dugu ikuspegi positibistatik, eta beraz bilatzen duguna topatzeko, objektua bera aurrebaldintza bilakatzen da. Gainera, horren erreza balitz ez genuke maskulinitateaz eta feminitateaz hitz egingo, besterik gabe ar eta emeez arituko ginatke³⁷.

Bigarrenaz maskulinitatearen inguruko azalpen normatiboak daude. Ikusi dugunez azalpen hauek gaiari buruzko literaturan oso ohikoak dira. Berauen mugak gutxi gora behera azaldu ditut arestian ere: arauetan oinarrituriko azalpenak ematean askotan inork benetan betetzen ez duen ereduak identifikatzera jo dezakegu, eta beraz, prototipoa izanda tipoa ez den kategoria hertsia sortzera. Connelek John Wayne edo Clint Eastwood aipatzen ditu. Beraien pertsonaiek maskulinitatearen arau gehienak betetzen dituzte, baina ze benetako gizon identifikatu dezakegu haiekin. Bestalde, arauak betetzea edo ez rol kontua da, eta askotan rola eta izaera (identitatea) nahastuz, oso definizio esentzialistetara jo dezakegu (Connell, 1995a).

Azkenik, maskulinitatea ikuspegi sinboliko edo semiotikotik begiratzen duten ikuspegiak ditugu. Ikerketa kulturaletan asko erabili den nozioa da, baita psikoanalisian -bereziki Lacanen lanetik ondorioztatu denean- ere. Ikuspegi hau erabilgarria izan da generoa bitan banatzen duen eraikuntza diskurtsiboa azaltzeko. Bere muga -atal metodologikoan sakonduko dut honen inguruan- errealitate sozial osoa errealitatea diskurtsiboarekin parekatzea da, semiotikatik egitate sozial osoa azaldu ahal bagenu bezala. Connelek maskulinitatea azaltzeko beste elementu batzuk kontutan hartzearen beharra azaltzen du: *“To grapple with the full range of issues about masculinity we need ways of talking about*

37 *“We could just speak of «men's» and «women's», or «male» and «female», The terms «masculine» and «feminine» point beyond categorical sex difference to the ways men differ among themselves, and women differ among themselves, in matters of gender”* (Connell, 1995a:69).

relationships of other kinds too: about gendered places in production and consumption, places in institutions and natural environments, places in social and military struggles” (Connell, 1995a:71).

Hiru azterketa moduen mugak nolabait orekatu asmoz, Connelek generoa praktika sozialaren egitura bezala aztertzea planteatzen du (*“gender as a structure of social practice”*). Ideia hau bere aurreko *“Gender and power”* (Connell, 1995b) lanean garatu zuen. Bertan genero erregimenez eta generoaren ordenuaz aritzen zitzaigun, generoaren inguruko azterketak maila mikroan (nortasuna, parez-pareko harremanak) edo maila makroan (gizartea bere osotasunean, estatua, politika...) zentratu direla-eta bere desadostasuna azalduz. Bere ustetan, bi horien arteko erdibidean dauden harreman eta instituzioak egituratzen duen praktika da generoa. Espazioaren banaketa, familia, ordenua, estatua... guzti horien arteko lotura sarea litzateke generoa, gure gizarteetan itxura dikotomikoa hartzen duena, baina ez duena zertan hala izan behar, ez duena sexu/genero bikoan oinarritua egon behar³⁸: *“Gender then, is a linking concept. It is about the linking of other fields of social practice to the nodal practices of engendering, childbirth, and parenting. The definition just offered leaves wholly open the question of how extensive and how tight those links are, and what their social geometry is”* (Connell, 1995b:140).

Honela konplexuagoa baina aldi berean erabilgarriagoa izan daitekeen definizioa ematen digu, eta ikuspegi hau maskulinitatearen azterketara ekarriz proposatzen du maskulinitate hegemonikoa kontzeptua: *“Hegemonic masculinity can be defined as the configuration of gender practice which embodies the currently accepted answer to the problem of legitimacy of patriarchy, which guarantees (or is taken to guarantee) the dominant position of men and the subordination of women”* (Connell, 1995a:77). Euskaraz esana, patriarkatuaren zilegitasun arazoari une bakoitzean onarturik dagoen erantzuna gorpuzten duen genero konfigurazioa litzateke maskulinitate hegemonikoa, gizonezkoen nagusitasun posizioa eta emakumezkoen mendekotasuna bermatzen duena, edo bermatzen saiatzen dena.

38 Puntu honetan Gayle Rubin *“Sexu-genero sistema”* (Rubin, 1986) nozioaren balio unibertuala kuestionatzen du.

Maskulinitate hegemonikoaren ikuspegi kuestionatua izan da halaber, ikuspegi ezberdinetatik. Nerea Arestik, adibidez, egokia ikusten du bere erabilera, baina halaber, esentzialismoan erortzeko arriskuaz ohartarazten gaitu: “... *el concepto de masculinidad hegemónica ha sido creado en un contexto, como diría Thomas Laqueur, de «inconmesurabilidad de los sexos», es decir, desde una visión del mundo en la que todo está dividido en dos submundos, el masculino y el femenino, de forma que la convivencia de diferentes modis de ser hombre de acuerdo con parámetros distintos del de género se ve dificultada por la necesidad de crear un estereotipo que sirva de referente universal frente a la feminidad*” (Aresti, 2010:18).

Oscar Guasch-ek ere hegemonia kontzeptuaren inguruan xehetasunak emateko beharra azaltzen du: “*Hay que hablar de masculinidad en plural: masculinidades. (...) existen masculinidades hegemónicas y otras que son subalternas. Existe una jerarquía de masculinidades. (...) Pero las masculinidades subalternas no tienen por qué ser alternativas al modelo hegemónico. Tal es el caso de la masculinidad de los homosexuales en la España anterior al modelo gay, que, pese a ser subalterna no genera modelos alternativos, puesto que se construye con los mismos instrumentos simbólicos que utiliza la dominante*” (Guasch, 2006:24). Ezin ditugu beraz “anitza” eta “hobea” nahastu behar, eta are gutxiago hegemonia horretatik bazterturik dauden maskulinitateak erromantizatu³⁹.

Oso ikuspegi ezberdinetik, Victo J. Seidlerrek ere ez du erabat operatiboa ikusten Connelek proposatzen duen kontzeptua, bere ustetan maskulinitateak botere harremanetatik kanpo (ere) ulertzeko gai izan behar garelako: “*Mientras pensemos la masculinidades como algo atrapado en el interior de una relación de poder, será difícil entender cómo pueden los hombres cambiar mediante procesos de transformación de las masculinidades en el seno de culturas, historias y tradiciones específicas*” (Seidler, 2006:22). Zentzu honetan, bere aburuz, Connellen teoriak ez dio lekurik uzten gizon

39 Alboraturik dauden subjektuen erromantizazioaz ere, ikuspegi epistemologikotik, Donna Haraway (Haraway, 1995) aritu da “*standpoint theory*” delakoaren arriskuak seinalatzen dituenean. Testuinguru metodologikoan arituko naiz horretaz.

(gazteen) esperientziei: *“El empleo de un marco teórico que se establece exclusivamente desde la razón deja poco espacio a las diversas voces de los propios jóvenes”* (Seidler, 2006:23).

Bide honetatik, Seidlerrek arrazionalistatzat jotzen du Connellen teoria, maskulinitate hegemonikoaz aritzea hegemoniko bilakatu dela salatuz, subjektu modernoaren ikuskeratik operatzen baitu kategoria honek. Bere ustez, honek kulparen ikuspegian⁴⁰ kokatzen ditu gizonak, eta horrek eraldaketa ezinezkoa egiten du. Laburbilduz beraz, bere apustua identitateetan atentzioa jarriz botere harremanen inguruko ikuspegia “erlaxatzea” litzateke.

Nire ikuspegiak bat egiten du gehiago Connellekin Seidlerrekin baino kontu honetan. Identitatean oinarrituriko ikerketak oso beharrezkoak iruditzen bazaizkit ere, egungo testuinguru akademikoan garrantzia emango nioke botere harremanak eta egiturak oso presente dituen kontzeptualizazioak erabiltzeari. Aurreko ataletan subjektibitatearen inguruko eztabaida feministak birpasatu ditut, eta hortik ondorioztatu dezaket nortasuna -eta nortasunaren inguruko politikak- elementu oso garrantzitsua dela bizitza sozialaren azterketa kritikorako, baina ezin dela inolaz ere bere osotasunarekin parekatu.

Era berean, botere harremanetan eta bere egiturak lotzen dituen korapiloetan atentzioa jartzeak ezin gaitzake eraman norbanakoan ematen diren aldaketak kontutan ez hartzera; ikuspegi holistikoa izatea lagungarria izango zaigu. Era berean, genero ikuspegitik, gizonezkoontzat gure subjektibitatea boterearen ikuspegitik konfrontatua izatea ezerosoa dela ulertu behar dugu, eta kointura horretan ziur aski erosoagoa dela maskulinitatearentzat botereaz baino nortasunaz aritzea. Are gehiago, hainbatetan aipatu dudan subjektu unibertsal arrazional maskulinoaren “krisi” testuinguruan lagungarria izan daiteke *eztabaida osoa* nortasunean finkatzea genero ordenuaren mantenuerako, honek ez duelarik inolaz esan nahi identitatearen inguruko azterketa ez denik beharrezkoa.

40 *“... tendió a reproducir una política de la culpabilidad que no permitía la posibilidad de un cambio. Más bien tendía a reproducir una política masculina antisexista que fue útil en la medida en que contribuyó a concienciar a los hombres de la violencia y el sufrimiento experimentado por tantas mujeres, pero que los dejó a ellos sintiendo que la masculinidad, concebida exclusivamente como una relación de poder, era el problema que tenía que ser deconstruido y que no podía ser parte de la solución imaginada”* (Seidler, 2006:106).

Azkenik eta singularitasun edo pluralitasunaren inguruko eztabaidan sakondu gabe, lan honetan zehar batik bat maskulinitatea erabiliko dut, singularrean. Arestian aipatutako aniztasun eta gizonen arteko mailaketaren inguruan esandakoak onartu eta berretsi arren, maskulinitatea botere harremana bermatzen duen egituraren gorpuzte bezala egokian iruditzen zait singularrean tratatzea. Garbi dut maskulinitatea ez dela “aldatzen den esentzia”, lehenago Nerea Arestiren hitzetan aipatu dudana bezala, baina aldi berean genero harremanen barneratze mailaren sakontasuna ikusirik, atentzioa aldatu ez den horretan jartzearen aldekoa naiz, beste era batera artikulatuz lehengo ondorio bertsuak ematen dituen sisteman. Dena dela, pluralarekin ez dut berebiziko arazorik, eta beraz posible da non edo non hala agertzea ere.

3 – Testuinguru metodologikoa.

3.1 - Diskurtso analisia: abiapuntuak eta oinarrizko ideia batzuk.

Lan honen helburua maskulinitate talde eta ekimenek plazaratu edo publikaturiko testuen bitartez gaur egun eta EAE-ko testuinguruan sortzen eta moldatzen ari diren maskulinitateen inguruko diskurtsoak aztertzea da. Horretarako, eta ezinbestean diskurtso bezala zer ulertzen dudan azaltzea beharrezkoa iruditu zait. Aldi berean, eta erabiliko den ikuspegi metodologikoa (diskurtso-analisi kritiko feminista) nahiko berria denez, baliagarritzat jo dut ere ikuspegi metodologikoaren nondik norako batzuk azaltzea. Honela, lanaren ekarpen aplikatuaz gain, nire aukeren baitan, ekarpen metodologiko xumea egin nahiko nuke, hain zuzen ere, azken hamarkadan bereziki garatzen ari den ikuspegi metodologiko horren inguruko azalpen txikia⁴¹.

Abiapuntu bezala, diskurtsoak praxi sozial bezala ulertuko ditut. Alegia, testuak eta berauetan era esplizitu edo inplizituan artikulatzen diren diskurtsoak ez dira zeinu edo sinboloen konbinazio hutsak, simple ala konplexuak. Hain zuzen ere, eta Foucault-ek adierazi bezala, diskurtsoei erreparatzeko ezin ditugu zeinu eta sinboloen konbinaketa bezala ikusi edo irakurri. Bere ustetan klabea hortan dago: *“en no tratar -en dejar de tratar- los discursos como conjuntos de signos (de elementos significantes que envían a contenidos o representaciones) sino como prácticas que forman sistemáticamente los objetos de que hablan.”* (Foucault, 2009) . Ezin dezakegu, beraz, norabide bakarreko harremana irudikatu sinboloen eta diskurtsoen artean, zeinetan sinboloak (hitzak, eleak, diskurtsoek) objektua (errealitatea) ordezkatu edo errepresentatzen duen, baizik eta alde biko harremana zeinetan praktika diskurtsiboak eta errealitateak harremantzen diren.

Bide horretatik tiraka, diskurtso sozialak ez dira soilik existitzen diren errealitateen adierazle hutsak. Diskurtsoak berba eta lengoaiaren produktu bezala, komunikazioa ahalbidetzen duten era berean berorren mugak ezartzen dituzte. Nolabait komunikazio sozialaren paretak seinalatzen dituzte, beraz, aldi berean, diskurtsoak komunikatzeko tresna dira, komunikazioaren aukera bera, baina baita ere gizarte bizitza mugatu

41 Diskurtso analisi feminista kritikoaren inguruko genealogia moduko bat burutzen du *“El género en el discurso”* artikulua, beheago oinarri bezala hartuko dudana generoaren eta diskurtso analisiaren arteko harremanaren errepaso historikoa egiteko. (West, Lazar, & Kramarae, 2000)

dezaketen gordailuak, esanahien eta errealitateen kontentzio indarra. Hau dela eta, eta boterearen banaketaren azterketari so eginez, diskurtsoen garrantzi analitikoa berebizikoa da, izan ere, alde batetik botere harremanen bortxazko onarpena dakar, baina aldi berean ere, izateko, izena izan eta munduan egoteko gaitasuna bera ere dakarte beraiekin batera. Nolabait esateko, hertsaduraren inposaketarekin batera erresistentziarako gaitasuna bera ere gordetzen dute diskurtsoek: “...*el discurso no es simplemente aquello que traduce las luchas o los sistemas de dominación, sino aquello por lo que, y por medio de lo cual se lucha, aquel poder del que quiere uno adueñarse.*” (Foucault, 2008)

Dena dela, diskurtsoak honela aurkezteak baditu bere alde gatazkatsuak ere. Eman dezake diskurtsoak beraiek beren kabuz bizitza propioa izan dezaketela, inork erabili edo garatu aurretik ere. Post-estruturalismoaren irakurketa zehatz horri jarraiki hainbat autore eta korrontek errealitate soziala bera diskurtsotara mugatzea planteatu izan dute, eta ikuspegi hau oso problematikoa izan daiteke, hain zuzen ere egintza bera eta subjektu sozialaren jarduna erabateko hertsaduran uzten baitu, erreakziorako gaitasun gabe, totalizazioan. Errealitate soziala beraz ez da errealitate diskurtsibo hutsa. Bertatik abiatuz planteatu dezakegu diskurtsoen eta hizkuntzaren gaitasun performatiboa, eta berorrek pista ugari eman diezazkigu diskurtsoen funtzioen inguruan.

“Hizkuntzaren performatibitatea” kontzeptua arakatzeko John Austin hizkuntzalariarengana jo dezakegu, abiapuntu bezala, eta ondoren beste autore batzuek, eta zehatzago autore feminista batzuek nola baliatu duten azaldu.

Austinek “Cómo hacer cosas con palabras” bere 1962ko idatzian (Austin, 1998) taularatu zuen beraz hizkuntzaren performatibitatearen gaia. Bere abiapuntua zera da: egunerokoan erabiltzen ditugun esapide, espresio eta eraikuntza linguistikoek ez dutela beti funtzio deskriptibo hutsa betetzen. Are gehiago, kasu batzuetan ez dutela inolako funtzio deskribatzailerik betetzen. Hori azaltzeko “falacia descriptiva” terminoa bereganatuko du, hain zuzen ere deskribatzaileak izan gabe deskribatzailetzat dauzkagun esapideen portaera esplikatzen. Esamoldeak beraz, bere ustetan, bi taldetan banatuko dira: esamolde baieztatzaileak (“constatativos”) eta performatiboak (“performativos”).

Lehendabizikoek errealtatearen azalpen hutsa egingo lukete, bigarrenek ordea ez dute errealtatea baieztatzen, baizik eta egintzara bideratzen dira, errealtatea bera eraldatu edo sortzera. Halako esamoldeak, adibidez, ezin ditzakegu egiazko edo faltsu bezala kalifikatu, beraien funtzioa ez baita hori.

Honekin batera, Austinek nolabait azaltzen du ere (Austin, 1998) -nahiz eta bere azalpena ez izan oraindik oso garbia, eta hortik gerora beste autore batzuek egingo dizkioten puntualizazioak- esamolde performatiboek, eraginkorrak izan nahi badute, nolabaiteko autoritatea beharrezkoa dutela. Berak adibide bezala zera jartzen du, itsasontzi bati izena ematea, bere kontra botila bat hautsiz. Honela, “bautizo este barco como Stalin” diogunean, izena ematen diogu, ez dugu aurretik zuen ezaugarria azaltzen. Baina are gehiago, edonork eta edozein momentutan ezin dezake ekintza hori burutu. Eta izendatze hori burutzen duena ez baldin bada pertsona egokia, ez du inolako eraginik izango, eta itsasontzia ez da izendatua izango, edo asko jota “solik formetan” izango da izendatua. Izena ematearen adibidea hain zuzen ere, oso egoki datorkigu, izan ere, urte dezente beranduago Judith Butlerrek adibidea berreskuratuko du performatibotasunaren inguruan bere teoria esplikatzeke, oraingo honetan zuzenean generoaren problematikarekin lotuz.

Bere “Cuerpos que importan” (Butler, 2002) liburuan estatubatuarrak, Austinen performatibitatearen ideiatik abiatuz, urte askotan zehar bere teoriarik ezagunena -eta polemikoena- eraikitzen du. Ideia bera sakontasunez aztertu eta kuestionatzen du, beste autore batzuen ekarpenekin gurutzatuz eta berauekin eztabaidan jarritz.⁴²

Autorearen ardura handietako bat bere teoriak interpretatzerakoan materialtasuna albora utzi eta performatibitatea koertziorik gabeko testuingurutan ulertua izan dela da. Honela, aipaturiko liburuaren zazpigarren atalean, zera dio: “*en contra de la idea de que la*

42 Aurretik ere, Butlerrek, bere “El género en disputa” (Butler, 2007) liburuan kritika zorrotza egin zion bere ustetan desegokia zen dikotomiari. Bere ustetan, feminismoak hirurogei eta hirurogeita hamargarren hamarkadetan genero kontzeptua garatu eta politikoki erabilgarria egin zuenean, halako dikotomia bat sortu zuen, zeinetan kultura, ikasitakoa, sozializazioa (generoa) alde batetik eta gorputzak, oinarria eta egia biologikoa (sexua) bestetik geratu zen. Berarentzat gorputzen errealtatea bera ere -diskurtsoen (genero diskurtsoen) inskripzio gune bezala- kuestionatu beharra dago, teoria feminista emantzipatzaileak sortzeko, eta horretarako eta horregatik garatu izan zuen, besteak beste, performatibitatearen teoria.

performatividad es la expresión eficaz de una voluntad humana en el lenguaje, este texto apunta a redefinir la performatividad como una modalidad específica del poder, entendido como discurso." (Butler, 2002). Bere aurreko liburuan (Butler, 2007) atal osoa garatu zuen Drag Queen-ek emakumezkoen generoa antzezteko modua aitzaki jarriz generoaren eta sexuaren izaera ez-natura aditzera emateko. Esan bezala, proposamen hura irakurtzeko modu batzuek hainbat autore eta gizarte eragile generoaren performatibotasuna jolas edo giza-borondatearen eskutan dagoen aukera bezala ulertzera eraman zituen. Ideia honen kontra, eta nahiz eta bere lehen planteamendutan bazegoen, autoreak horretan sakontzen du bere hurrengo lanetan.

Horretarako Derridaren lana erabiliko du (Derrida, 1977) eta bere irakurketaren bitartez performatibotasuna jokua izan ordez, mekanismo konplexu bezala aurkeztuko du. Hain zuzen ere edonola eta edonoren eskutan ez dagoen mekanismo gisa. Autore frantsesaren zitazioaren noziotik abiatuta adieraziko du funtzio performatiboa beti ere deribatiboa dela, alegia, zitazio prozesuen baitan gertatzen dela. Hau da, hizkuntzaren bidez aldeztu aurretik dagoena eta gure zitaren bidez indartzen edo berresten dena aipatzeko gai gara. Baina -eta hor legoke eraldaketarako aukera- zita hori ez da inoiz aurrekoaren errepikapen hutsa, edo ez behintzat errepikapen mimetiko edo zehatza. Dena dela, bere ustetan galdera klabeena hau litzateke: "*¿En qué medida obtiene el discurso la autoridad necesaria para hacer realidad lo que nombra mediante una cita de las convenciones de autoridad?*" (Butler, 2002), alegia, nola zehazten da diskurtsoek duten zilegitasuna zitazioaren bitartez performatibo izateko, esaten dutena errealitate material bilakatzeko gaitasuna lortzeko? Adierazi bezala, honek ezinbestean botere mekanismoak eta hertsadura aztertzea garrantzitsua da, hain zuzen ere hau izanik estatubatuarraren lanean atentzio gutxien jaso duen esparrua, nahiz eta berak nahikoa era esplizituan taularatu bere defendatzaile sutsu zein maiseatzaileek albora utzi dutena. Esan genezake bere performatibitatearen teoriaren baitan errepikapen mekanismoak asko azpimarratu ditugula irakurleok eta ez horrenbeste hertsadura mekanismoak⁴³.

43 "*Ello mostraría que la materialización del sexo, del cuerpo, no implica determinismo -tampoco, desde luego, voluntarismo- porque no es de ningún modo y nunca completa, ya que se exige persistir en ese proceso repetitivo de materialización*" (Burgos, 2012:103). Elvira Burgos Judith Butlerren performatibitatearen teoriaren baitan zita honetan, baina egokia zaigu performatibitatearen prozesuaz beraz jarduteko. Bereziki interesatzen zait prozesu horretan "boluntarismo" ez dagoela azpimarratzea.

Honi loturik, arestian aipatu denaren harira, diskurtsoak ikuspegi totalizatzaile batetik ikusteko joera ere badago, non berriz ere alde bakarreko harremanak ezartzen diren diskurtsoen eta errealitate materialen artean, kontutan hartu gabe harreman hauek konplexuak eta alde bikoak direla. Hain zuzen ere ekarpen hain garrantzitsua izanik diskurtsoak gertakari sozial bezala ulertzea, alegia, errealitatearen deskribatzaile hutsak baino gehiago direla adostea, pena litzateke gaia beste mugara eramanez errealitate sozialak ekoizpen diskurtsibo huts bezala ulertzea. Honek materialtasuna kanpo uztera eramango gintuzke, eta horrek ondorio sozial eta politiko larriak izan ditzake ikuspegi feministatik, berdintasun gabeziak eta berorren ondorio materialak hein batean alboratzera eramango gintuzkeelako⁴⁴.

Diskurtsoen analisisan sakondu duten hainbat autorek zein genero gaiak ikertu dituztenek ere norabide honetan azaldu dituzte beraien kezka eta planetamenduak: *“...la gente, a través de su comportamiento lingüístico (y no lingüístico) produce más que refleja las identidades de “mujer” y “hombre” en situaciones históricas y culturales particulares, a pesar de que estas identidades sean vistas a menudo como naturales e inmanentes...”* (Lazar, 2007) . Hemen, Michelle Lazar-ek gizon eta emakume nortasunak kolokan jartzen ditu, eraikuntza kultural eta historiko bezala aurkeztu, baina aldi berean arriskua badela adierazten du: *“localizarlo todo en el discurso y pasar por alto aspectos materiales y experienciales de las relaciones de poder e identidad. Esto es, en lugar de ver el discurso como un elemento de las prácticas sociales, la tendencia ha sido ver el discurso como absolutamente constitutivo de lo social”* (Lazar, 2007) Joera honek, bere ustetan eta lehen esan bezala, errealitate materialak alboratu eta berdintasun faltaren aspektu ukigarriei ez eustea ekar lezake.

44 *“En ciertos pasajes de sus textos (...) se ha percibido un determinismo lingüístico anti-biologicista sin remisión que consistiría en sostener que todo, incluso el cuerpo, es lenguaje o que no hay nada más que la substancia de las palabras”* (Burgos, 2012:101). Butlerren lanari eginiko kritika batzuk erantzuteko asmoa du Elvira Burgosek “Deconstrucción y subversión” artikulua honetan. Bere teorian sakondu beharra aldarrikatzen du batik bat: *“Parece haber, afirma Butler, construcciones discursivas constitutivas en el sentido de que sin ellas no parece posible la vida. En tal caso, dirigir la mirada hacia el cuerpo como algo en cierto modo construido exige un ejercicio de reflexión sobre lo que llamamos «construcción»* (Burgos, 2012:103).

Diskurtso analisiaren ikuspegitik ere berebiziko garrantzia izan duen kontua da hau⁴⁵. Horretan aritzen direnen artean adostasunik ez dagoen arren, eta korrante ezberdinak ere sortu diren arren, hainbat autore izan dira errealitate sozialen materialtasuna eta diskurtsoak elkarren harremanean ikertu beharra azpimarratu dutenak.


Norman Fairclough-ek, adibidez, "Language and power" bere lan garrantzitsuan diskurtsoa praktika sozial bezala definitzen du, eta horrek errealitate materiala isla dezan, hiru aurrebaldintza ezartzen dizkio diskurtsoari egitate soziala den heinean: "*que el lenguaje es parte de la sociedad, no de alguna manera externo a ella. En segundo lugar, que el lenguaje es un proceso social. Y tercero, que el lenguaje es un proceso condicionado socialmente por otras partes (no lingüísticas) de las sociedades*". (Fairclough, 1989). Honela, lengoia ezin daiteke gizartearen prozesutatik aparte ulertu, bere joera eta portaera propioak balitu bezala. Hizkuntzen gramatika, jendartearen gramatikarekin⁴⁶ lotuta dago, eta hala daude ere lexikoa, etimologia eta lengoaiaren beste aspektu denak. Hortaz, lengoia testuinguru sozialean sortzen da, testuinguru sozialean garatzen da eta testuinguru soziala ekoiztera bideratzen da. Dena dela, aldi berean zera adierazten digu: "*mientras que todos los fenómenos lingüísticos son sociales, no todos los fenómenos sociales son lingüísticos*" (Fairclough, 1989). Nahiz eta askotan ez izan kontziente gertaera sozialen alderdi diskurtsiboaz, eta horren garrantziaren aldarrikapena ontzat eman, berriz ere errealitatea diskurtsora mugatzearen arriskuaz ohartarazten gaitu.

Bere diskurtsoa aztertzeko proposamenean, beraz, errealitate sozialaren esparru ezberdinak uztartzen dituen ereduak taularatzen du. Diskurtsoak interakzioan ematen dira, eta interakzio hori testuinguru sozial zehatzean kokatzen da. Honek diskurtsoa nola sortu

45 Judith Butlerren lanean bertan lerro kritiko honen zantzu handiak ikus daitezke, hain zuzen ere materialtasunaren mugek garrantzi handia hartu dute bere idatzietan. "Cuerpos que importan" liburuaren atal berean ere zera dio: "*el poder que tiene el discurso para materializar sus efectos es pues consonante con el poder que tiene para circunscribir la esfera de la inteligibilidad*". (Butler, 2002). Diskurtsoek beraz, "ulergarria" dena eta ez denaren arteko muga marrazteaz gain bere eragina materialtasunera daramate. Ziur aski lerro horri jarraituz, bere hurrengo liburuetan garrantzi berezia eman die mekanismo diskurtsiboen eragin materialei, bai sexuari dagokionean (Butler, 2010a) baita gerra, indarkeria eta gizatasunari buruzko bere azken idatzietan ere. (Butler, 2010b).

46 "*Llamamos gramática cultural al sistema de reglas que estructura las relaciones e instituciones sociales. Abarca la totalidad de los códigos estéticos y de las reglas de comportamiento que determinan la representación de los objetos y el transcurso normal de situaciones en un sentido común que se percibe como socialmente conveniente*" (Blissett, Brünzels, & Autonome A.F.R.I.K.A.-Gruppe, 2000)

eta garatuko den baldintzatzen du, tartean, zer esan daitekeen eta nola, zer ez, ze ahotsek duten pisu eta zilegitasun handiagoa eta zeintzuk txikiagoa... Baina aldi berean, ekoizpen diskurtsibo hori -ilustrazioan (Ilustrazioa 1) "textua- nola sortu den aztertzeaz gain, garrantzitsua da halaber nola erabilia izango den, alegia, nola interpretatuko den aztertzea. Izan ere, testu hori produktua izateaz gain baliabidea ere bada.



Ilustrazioa 1: Diskurtsoa ulertzeko diagrama (Fairclough 1989, neronek moldatua)

Halaber, testuaren bi ezaugarri hauek (ekoiztua izatea eta baliabide bezala erabilia izatea) interakzioan gertatzen dira, eta interakzioa bera ere aztertzeke modukoa da. Alegia, nola gauzatzen da interakzio hori? Zeintzuk dira mekanismoak eta keinuak, zeintzuk botere banaketak interakzio horretan. Esan beharra dago aspektu hau bereziki psikologia sozialetik garatu dela, eta askotan dimentsio sozial zabalagoak

kontutan hartzeari erresistentzia ugari eskaini dizkiola. Hau nahiko garbi ikusten da generoaren gaia aztertu izan denean diskurtso analisiaren ikuspegitik, baina hori aurrerago azalduko dut, ikuspegi feminista duen diskurtso analisiaren gaia jorratzean.

Aspektu guzti hauek dira, beraz, kontutan hartu beharrekoak diskurtso analisia egiterako orduan, behintzat arestian aipatu diren arriskueta erori nahi ez badugu. Dena dela, eta Fairclough.-en aburuz (Fairclough, 1989) klabea ez datza horrenbeste aspektu bat edo beste aztertzean, edo eta banan banan aspektuak ikertzean, baizik eta hiruen arteko harremana aztertzean, alegia, testu, prozesu eta testuinguruaren arteko harremana ikertzean.

3.2 - Diskurtso analisi kritikoa (DAK): diskurtso analisiari boterearen banaketa desorekatua gehituz.

Dudarik gabe, arestian aipaturiko diskurtsoen azterketarako proposamena oso erabilgarria izan daiteke gizartearen baitan dauden botere harremanak eta boterearen banaketa aztertzeko. Hain zuzen ere, azken hamarkadetan hau izan da Fairclough (Fairclough, 1989) (Chouliaraki & Fairclough, 2002), Wodak (Wodak, 1989) edo Erica Burman (Burman & Parker, 1993) bezalako autoreek, beste askoren artean, moldatu nahi izan duten proposamena diskurtso analisi kritikoa garatzeko. Izan ere, botere harremanen azterketa egitea, haien ustez, ezin daiteke ustezko neutraltasunetik egin, baizik eta banaketa desorekatu horretan kaltetuak suertatu direnenganako konpromisotik. Horrekin batera, ezinbestean, ikerketa soziala egiten denean bertan, botere banaketa gertatzen denaren usteetik abiatzen da DAKa, ikerketak berak izan dezakeen boterea berdintasun faltaren kontra erabili nahi horretatik. Zentzu horretan, beraz, DAKa boterearen gaiari era kontzientean eusteko ahalegina da, Teun Van Dijk-en hitzetan: “*el ACD, con tal peculiar investigación, toma explícitamente partido, y espera contribuir de manera efectiva a la resistencia contra la desigualdad social*” (Van Dijk, 1999).

Jendartean ematen diren berdintasun faltaren kontrako posizionamendua izango litzateke beraz, DAKaren ezaugarri nagusietakoa. Konstanteak dira gai honi egiten zaizkion aipamen eta keinuak DAKari buruzko eskuliburu eta artikuluetan. Ruth Wodaken hitzetan DAKari buruz esan genezake: “*podría ser definido como fundamentalmente comprometido con analizar las relaciones de dominación, discriminación, poder y control estructurales, tanto opacas como transparentes, que se manifiestan en el lenguaje*”. (Wodak & Meyer, 2001).

Honela, diskurtso analisi kritikoa egiten dutenak ez dira soilik botere harreman eta zapalkuntzen jakitun eta kontziente, baizik eta aldi berean horien aurrean posizioa hartu eta berauek ulertzeko konpromisoa azaltzen dute: nola agertzen edo isilean gordetzen diren ahots ezberdinak diskurtsoetan, nola artikulatzen diren haien arteko harremanak. Era berean, diskurtsoa eraikitzerako edo moldatzerako orduan berorretara dugun sarbidea ez da berdintsua edo unibertuala, are gehiago diskurtso mota zehatz batzuei

dagokionean: *“El acceso a formas específicas de discurso (...) es en sí mismo un recurso de poder” (Van Dijk, 1999)*. Era honetan, beraz, lengoaiaren dimentsio gatazkatsua mahai gainean jarri, aztertu eta irtenbidea bilatu nahi zaie bere horretan bidegabetzat jotzen diren egoerei.

Dena dela, aurrera egin aurretik aspektu batzuk argitu nahi nituzke. Nahiz eta, aipatu bezala, DAKen klabea izan den posizioa hartu beharraren inguruko eztabaida, ezin esan beroni balioa ematen diona posizio hartze hutsa denik. Alegia, botere harremanen inguruan jarrera esplizitua hartzen duten hainbat ikerketa metodologia eta paradigma daude, ikerketa parte-hartzailea edo ikerketa-ekintza izan daitezke adibide batzuk. Horien denen helburua esparru diskurtsibo akademikotik kanporatuak izan diren subjektuei ahotsa ematea izan da era bada. Baina horrek ezin du inolaz suposatu beraien balidazioa (edo behintzat balidazio bakarra) hori izango denik. Diskurtso analisiak bere bide propioak garatu behar ditu, eta horretarako ezinbestean analisisan oinarritu beharko da, erabilgarria soilik ez, balidagarria ere⁴⁷ izan beharko da, eta are gehiago ikerketa akademikoa bezain “enpirista” den esparruetan lekua egin nahi badu. Baloratzea beraz, ez da bere horretan ikertzea, eta ikuspegi metodologikotik ez dio baliorik eransten gure ikerketari, nahiz eta ikuspegi epistemologiko eta etikotik azterketari zintzotasuna gehitu diezaiokeen. Posizioa hartzea ezin daiteke inoiz egin bere arriskuak kontutan hartu gabe: *“El pseudo-análisis basado en la toma de posiciones puede reducir la complejidad del discurso siempre que el analista seleccione citas en aras de obtener un efecto retórico atractivo para quienes lean su trabajo” (Antaki, Billig, & Potter, 2003)*.

Noski, boterearen banaketa desorekatua aztertzen duen metodologia bezala, DAKa ez dago boterearen inguruan esparru ugarian (filosofian, antropologian, soziologian...) eman diren eztabaidetatik at. Botere harremanok diskurtsoetan duten isla eta eragina aztertzean ere konplexutasuna handitzen joan da, norabide bakarreko harremanen irudikapenetik sare konplexuagoak irudikatzeraino. Kasu batzuetan boterearen aspektu inposatzailea eta

47 Balidazioarena hain zuzen ere epistemologia eta ikerketa feministatik soberan landu eta eztabaidatu den gaia dugu. Puntu honetan soilik argitu nahiko nuke ikerketa bat balidatzeak ez duela zertan suposatu behar ikerketa horrek akademiaren balidazio baldintza denak betetzea. Balidazioa ere kuestionatu beharreko printzipioa izan daiteke, eta balidazio hori emateko prozesu eta baldintzak demokratizatu beharrekoak.

norabide bakarrekoa azalduko zaigu, adibidez Van Dijk-ek zera dio, botereari buruz aritzerakoan kontutan hartu beharrekoa da kontrol terminotan aritu behar garela (“*el poder social en términos de control*”), beronen oinarrian talde sozial batzuen gaitasuna legoke, kontrol mekanismoak martxan jartzeko gaitasuna hain zuzen ere. Baina aldi berean, bere analisisian konplexutasun hori txertatzen du ere nolabait, zera dioenean: “*los grupos dominados tienen, conocen y siguen sus propios intereses, en ocasiones contra todo pronóstico*”, eta are gehiago: “*es posible que algunos sectores de los grupos de poder sientan y muestre solidaridad con los grupos dominados, y que apoyen su lucha contra la desigualdad*” (Van Dijk, 1999) .

Fairclough-ek ere, konplexutasuna gehitu asmoz, diskurtsoan, haren bitartez eta haren azpian botera “izan” eta jokatzeko modua kuestionatu izan du: “*El poder en el discurso o detrás del discurso no es un atributo permanente de alguna persona o grupo social. A lo contrario, quienes ostentan el poder en un momento determinado tienen que reafirmar continuamente su poder, y aquellas/os que no lo tienen pueden siempre optar a pugnar por él.*” (Fairclough, 1989). Honekin eztabaida sakon eta ikuspegi anitzekoan sartu gaitzke buru belarri. Hain zuzen ere, azken urteotan mugimendu feministan oso presente egon den eztabaidan, boterearen irudikapenaren ingurukoa⁴⁸. Nola adierazi dezakegu alde batetik boterearen gaitasuna ez dela erabatekoa -eta beraz aukerak eta lasterbideak egon badaudela berdintasun faltari aurre egiteko- baina, aldi berean, botere harremanak era desorekatuan banatzen direla ikusgarri egin?

Agian hauxe dugu DAKaren eta bestelako teoria zein metodologia kritikoren erronka: “*poder evidenciar por un lado las diferentes relaciones en la elaboración abierta del discurso dependiendo de la posición social, y al mismo tiempo contribuir a la investigación crítica a través del diálogo con las identidades de la modernidad tardía*” (Chouliaraki & Fairclough, 2002). Honela, erronka boterearen inguruko teoria eta ikuspegi ezberdinen artean loturak eta elkarrizketa sortzean datza, hain zuzen ere DAKa ikerketa eredu kritikoa den heinean ikuspegi ezberdinak baliatu eta integratzeko nolabaiteko gaitasuna duela

48 Espainiar estatuan gai honen inguruan sortu eta garatu diren eztabaiden inguruko erreposoa eta hausnarketa egiten du, besteak beste, Silvia L. Gil-ek “Nuevos Feminismos, sentidos comunes en la dispección” liburuan (Gil, 2011)

kontutan hartuz. Hain zuzen ere, oraintxe bertan aipaturiko “Discourse in late modernity” lanean (Chouliaraki & Fairclough, 2002) boterearen teoria eta ikuspegi ezberdinen berrikusketa interesgarria egiten dute autoreek, teoria marxistetatik abiatu eta post-estrukturalistetara helduz, diskurtsoen analisiari dagokionean ikuspegi bakoitzak eskaini ditzakeen aukerak aztertuz, eta beraien arteko artikulazio puntuak seinatuz.

3.3 - Diskurtso Analisi Kritiko Feminista: ikuspegi feminista txertatuz.

Eztabaida guzti hauen baitan hasieratik bertatik parte hartze zuzena izan zuten hainbat akademiako kide eta aktibista feministek. Hori dela eta, astiro-astiro eta eztabaida ugariaren berotara hasi den diskurtso analisi kritikoaren baitan ikuspegi feminista argitzen eta gorpuzten, nahiz eta oso prozesu berria eta oraintsukoa den. Ezin bestela izan, perspektiba feminista duen diskurtso analisi kritikoa (hemendik aurrera Diskurtso Analisi Kritiko Feminista, DAKF deituko dudana) ez da bloke zurrun eta irmoa bezala jaio, baizik eta ikuspegi anitza bezala. Ezinbestean, feminismoaren baitan geratzen den modura, ikuspegi ezberdinak daude DAKFn ere, eta berauen arteko elkarguneetan aritzean datza interesik handiena.

Urteetan zehar, ikuspegi feminista jorratzen zuten hainbat ikerlarik leku aproposa topatu zuten (eta dute) DAKaren baitan. Generoen arteko berdintasun falta ikerketa gai garrantzitsua izan da DAKaren baitan, bestelako berdintasun faltekin batera: “... *la gente ocupa diferentes posiciones respecto al discurso dependiendo precisamente de su posición en las relaciones sociales: (posición en el mercado productivo -categorías de trabajadoras/es en el nuevo capitalismo- Gee etc), género (Haraway), raza (Bhabha) y generación (Lury)*” (Chouliaraki & Fairclough, 2002). Aitzitik, horrek ez du esan nahi ezinbestean interes feministak DAKan islatuak izan direnik uneoro, eta are gutxiago kasu guztietan. Gauza bat da ikerketa feministak esparru emankorra topatu duela DAKan, eman eta jasotzeko esparrua alegia, eta beste bat DAKaren agenda feminista izatea uneoro.

Beste hainbat diziplinatan bezala, ikerlari feministek gutxika-gutxika eremu propioa garatzeko beharra azaldu dute, hainbat kontraesan mahai gainean jartzeko gaitasuna izango duen eremua, ikuspegi eta interes propioak taularatzeko eta, era berean, diziplina ezberdinetan ematen diren eztabaida eta korpusen eraikuntzan ekarpena egiteko. Michelle Lazarren hitzetan: “*Las académicas del discurso feministas pueden aprender mucho de las inter-conexiones entre las particularidades de las estrategias discursivas empleadas en varias formas de desigualdad social y opresión que pueden reflejarse en el análisis crítico feminista y en las estrategias para el cambio social. El matrimonio entre el*

feminismo y el ACD, en suma, puede producir una crítica política rica y potente para la acción." (Lazar, 2007).

Ekarpen hau emankorra izan dadin ezinbestean begirada feministak izan dezakeen esparru edo eremu propioa aitortzea garrantzitsua litzateke, baina zoritxarrez ez gabiltza korpus teoriko erraldoiari buruz. Begirada zehatz bati buruz ari gara, oraindik ere oso zabaldua ez dagoen ikuspegi baten korrante batean -DAK- mugitzen dena. Dena dela, azken urteotan esponentzialki hazten ari den ikuspegia bada.

DAKFera eraman duen bideetako bat lengoia eta generoaren inguruko ikerketak izan dira. Berauen garapena ulertzeko, teoria feministaren beste espresio bide batzuekin dituen parekotasun eta prozesu paraleloei so egitea interesgarria izan daiteke. Hain zuzen ere, pentsamendu feministaren baitan garatu diren eztabaida ugari eragin handia izan dutelako DAKFren norabideak markatzerakoan. Diziplina ugari zabaldu diren eztabaida horiek, maila epistemologikoan eman direnek, mugimenduen baitan suertatu direnek, klabe garrantzitsuak eskaintzen dizkigute.

Lazarrek "*activismo analítico feminista*" (Lazar, 2007:145) izendatzen duen horrek garapen une ezberdinak ezagutu ditu, abiapuntu eta printzipio epistemologiko ezberdinetan oinarrituak. Lazar, West eta Kramarae-k idatzitako artikulua -"El género en el discurso" (West, Lazar, & Kramarae, 2000)- erabiliko dut gida moduan generoa eta diskurtsoen azterketaren mapa marraztu duten hainbat lerro seinatzeko.

Hasiera batean, hirurogeita hamargarren hamarkadan ezin esan diskurtsoaren inguruko ikerketa feministarik zegoenik. Emakumea eta lengoaiaren inguruko azterketak baziren, baina ez nahi eta nahi ez -eta kasu gehienetan ez zen horrela- ikuspegi feministatik garatuak. Berezi hirurogeigarren hamarkadako mugimendu feministaren bultzadari esker, interes esparrua irekiko da emakumeak eta lengoaiaren inguruan, aurrekaririk gabekoa. Ez dago esaterik aurretik interesik ez zegoela, baina bai aurreko garaiekin alderatuz interes hau esponentzialki hazten dela garai horietan. Hizkuntzalaritzaren esparruan lehen

ikerketak argitaratuko dira hurrengo urteetan⁴⁹ eta intereseko gaiak gizon eta emakumeen artean ematen den hizkuntzaren erabilera ezberdina eta ezberdindua izango dira. Ikerketen xedea gizon eta emakumeek ezberdin hitz egiten dutela demostratzea da gehienetan, ezberdintasun hau bultzatu dezaketen arrazoi edo faktoreak esplikatzen ahalegindu gabe.

Abiapuntu hau ez da berria, hain zuzen ere diziplina ezberdinetan garatu den ikuspegi feministaren azterketa egiterakoan hainbatetan topo egingo dugu halako hastapen faseekin. Antropologian adibidez, "Women studies" bezala ezagutu zirenak dauzkagu, soziologian edo ekonomia kritikoaren baitan ere lehen lanek emakumeen existentzia eta ekarpena mahai gainean jartzea zuten helburu. Emakumeak eta beraien jarduna gizarte zientzien ikerketa objektu bilakatzen hastea, beraz, diziplina ezberdinetako lehen pausua izan da. Pausu garrantzitsua den arren, aipatu esparru ezberdinetan egin diren hausnarketek adierazten dute berehala agortutako bidea izan dela.

Genero eta diskurtsoaren inguruan ikuspegi ezberdinak garatzen hasiko dira. Ikuspegi funtzional honetatik ("gizon eta emakumeek ezberdin hitz egiten dute") lengoia-estiloen ikuspegira pasako gara ("gizon eta emakumeek rol ezberdinak jokatzen dituzte hitz egitean"). Ideia honek, ordea, gizon eta emakumeen ikasketa eta sozializaio esparru banatuen existentzia du oinarri, alegia, azpi-kultura banandu biren existentzia. Ikuspegi feministatik kritika zorrotzak egin zitzaizkien abiapuntu hauei, Trömel-Plotz edo Tannen bezalako autoreen eskutik (biak ala biak West et al., 2000-n zitatuak). Lengoaiaren ikasketa eta erabilpen prozesuak era bananduan egiten ditugula planteatze hutsak boterearen eta gatazkaren ikuspegia erabat alboratzen du ezinbestean. Gizon eta emakumeok ez gara bizi mundu paralelotan edo banatutan, mundu berdinean bizi gara baina berdintasun falta egoeran, maila diskurtsiboan eta linguistikoan ere.

Identifika dezakegun beste ikuspegia genero eta interakzio linguistikoarena da. Ikuspegi honen arabera, testuinguruak baldintzatzen ditu generoaren bitartez finkatzen diren lengoaiaren posizio eta erabilera ezberdinak. Beste ikuspegietan testuingurua kontutan

49 Aerbischer eta Forel, 1983; Spender, 1980; Trömel Plötz 1982... Denak ala denak West, Lazar, & Kramarae, 2000-n zitatuak.

hartzan bazen ere, ikuspegi honetatik testuingurua bera da ekintza linguistikoa ahalbidetzen duena, bere ezinbesteko kondizioa, eta ez ekintza gertatzen ari den leku eta unean dagoen “dekoratua”.

“El énfasis se desplaza desde las cuestiones internas del individuo hasta el campo de la interacción, y en última instancia, el institucional. Más que una propiedad de los individuos, estas analistas consideran el género como una característica emergente de las situaciones sociales...” (West et al., 2000) . Esan daiteke, ezberdintasunak ezberdintasun, eskola post-estrukturalisten ikuspegira gehien hurbiltzen den begirada litzatekeela azken hau.

Genero eta lengoaiaren inguruko ikerketa guzti hauetan oso presente egon dira beraz boterearen, subjektuaren edo irudikapenaren inguruan mugimendu feministan sortu diren eztabaida guztiak. Esan dudan bezala, ikerketa hauek ez dute beti ikuspegi feminista bermatua izan, emakumeen inguruan ikertzeak ez baitu begirada hau ziurtatzen. Mugimendu eta pentsamendu feministaren baitan piztu diren eztabaida aberats eta anitzak izan dira hain zuzen ere diskurtsoen ikerketa kritikoa egitean ikuspegi feminista txertatzeko beharraz eta erronka honi aurre egiteko beharrezkoak diren tresnak sortzeko garrantziaz ohartarazi gaituztenak. Horrek eman du aukera emakumeen inguruko ikerketak egiteaz edo generoa aldagai bezala ikusteaz harantzago ikerketa feministak garatzeko.

Garapen horretarako hain zuzen ere, gako garrantzitsua izan da zientziari -diskurtso bezala- egindako kritika. Sandra Harding-en hitzetan: *“las técnicas de la crítica literaria, la interpretación histórica y el psicoanálisis se han utilizado para 'leer la ciencia como un texto', con el fin de poner de manifiesto los significados sociales -los planes simbólicos y estructurales ocultos- de los enunciados que son presuntamente neutrales”* (Harding, 1996) . Hari horretatik tiraka, garrantzizkoa da ulertzea DAKFren helburua ez dela ikerketa objektuaren diskurtso analisisan agortzen. Era berean jakintza ekoizteko moduan, ikertzeko prozesuan ematen direnak problematizatzea du xede DAKFk, alegia, diskurtso-analisiak berak diskurtsoan duen eraginak aztertzea eta horietaz jakitun izatea. *“Ser consciente de la ficcionalidad y textualidad del proceso de investigación y de que*

cualquier acto de investigación implica una serie de opciones de autoría y estrategias (...) y que por lo tanto la investigación es en sí una construcción discursiva constitutiva de 'construir el mundo'" (Baxter, 2004) abiapuntu ekidin ezina da DAKFrentzat.

Hau esanda, aukera orok dakartzan arriskuaz ohartzea ere ezinbestekoa dugu. Argudiaketa honek zailtasun handirik gabe etengabeen bere baitara biltzen den eztabaidara eraman gaitzake. Alegia, diskurtso-analisiak berak diskurtsoan duen eragina kontutan hartu behar baldin bada, beraz, eragin hori aztertzea komeni baldin bada, ikerketa prozesua amaitu ezina izan daiteke -eta hein batean hala da- baina horrek zera ekar dezake: ikerketa bera ikerketaren baitan murgiltzea, errealitate sozialarekin inolako harremanik izan gabe, eta ondorioz zilegitasun eta egokitasunik gabe. Hau da, ikerketa soziala errealitatetik urruntzea.

Zirkulu amaitu-ezin hauek analisisian izan dezaketen eragina murrizteko aukera baliagarria erreferente kritikoen bilaketa egokia izan daiteke. Mugimendu feminista eta bere agenda sozial eta politikoa erreferente kritiko interesgarria da ikerketak errealitate sozialarekin gertu mantendu ahal izateko. Hau da, hartan ere, ikerketa feministaren ezaugarri nagusietakoa: kokapen politiko eta sozialetatik kanpo legokeen esparru berezitu batean kokatu ordez, kontziente dela baldintzapen sozio-politiko guzti horien eraginaz. Zentzu honetan, DAKFk ere hala beharko luke: *"dejar su posicionamiento teórico bien claro y explicitar las asunciones epistemológicas que deben ser aplicadas a cualquier acto de análisis del discurso"* (Baxter, 2004).

Izan ere, ezinezkoa da edozein teoria feministaren inguruko hausnarketarik egitea aldi berean mugimendu feministan eman den garapen politiko, sozial eta ideologikoa kontuan hartu gabe. Mugimendu feministak berebiziko gaitasuna erakutsi du teoria ezberdinez gain teoria bera ulertzeko moduak eta jakintzaren genesi prozesuak kuestionatu ahal izan dituen korpus teorikoa garatzeko. Horrela, epistemologia feministatik jakintzari egiten zaion hurbilpena ez da neutrala, eta ez du hala izateko asmorik ere, eta horregatik du ezinbestekoa mugimenduarekin eztabaidan jardutea etengabeen. Konpromiso sozial eta politikoa ekoizpen teorikoa ezaugarritzen du, alde bikoia den harreman iraunkorrean eta,

hau dela eta, ekarpen teoriko feministek askotan diziplinarteko izaera izan ohi dute. Izan ere, zaila da begirada feminista ikuspegi bakarretik garatzea (hizkuntzalaritzatik, soziologiatik, biologiatik...), haien arteko batura izanik preseski mugimenduak taularatutako erronka deskriptibo eta proposamenei erantzun diezaiokeen ikuspegia garatzeko gakoa. Honela, lehenago ere azaldu dudan bezala, diskurtsoen analisi kritikoak epistemologia feministen proposamenekin bat egiten du balizko bidegurutzeari, DAKFri bere garapenerako eremu emankorra eskainiz.

Erreflexibitatea bera dugu eztabaida horren erdigunean. Epistemologia feministak hausnarketa sakonak burutu ditu gai honen inguruan ere, eta bide horretan ezin aipatu gabe utzi Donna Harawayk gai honen inguruan egindako ekarpenak (Haraway, 1995). Bere lanean jorratu dituen bi kontzeptuk nabarmen lagundu dute ikerketa feministaren garapena, eta ondorioz DAKFn ere eragin nabarmena izan dute. *Ezagutza kokatuak* eta ezagutzaren *difrakzioa* dira kontzeptuok.

Harawayren ustetan, eraginkorra eta erabilgarria izan daitekeen epistemologia feministaren ideia bera arriskuan legoke, hain zuzen ere, eztabaida epistemologikoak dikotomia ezegokian erori izan direlako. Dikotomiaren alde batean enpirismo feminista⁵⁰ eta bestean posmodernismo feminista⁵¹ leudeke. Autore estatubatuarrak dikotomia hau berdefinituko du, izen berriak ezarriz: “konstruktibismo erradikala” *versus* “enpirismo feminista kritikoa”. Bere helburua dikotomia hau haustea da, *standpoint theory*⁵²

50 Sandra Harding-en hitzetan (Harding, 1996) enpirismo feminista epistemologia feministen historian seinatu daitezkeen hiru korrante nagusien artean bat litzateke. Bere hitzetan: “*sostiene que el sexismo y el adrocentrismo constituyen sesgos sociales corregibles mediante la estricta adhesión a las normas metodológicas vigentes de la investigación científica*” (Harding, 1996). Nahiz eta askotan korrante epistemologiko hau garai zehatz batekin eta epistemologia feministaren hastapenekin harreman du eta agortutzat jotzen den, esan beharra azken hamarkadetan ekarpen interesgarriak egiten direla ikuspegi honetatik. Honi buruz “The virtues of feminist empiricism” Richmond Campbell-en artikulua gomendagarria da (Campbell, 1994).

51 Berriz ere Harding-en eskutik: “*las feministas comparten un profundo escepticismo respecto a los enunciados universales (o universalizadores) sobre la existencia, la naturaleza y las fuerzas de la razón...*” (Harding, 1996). Feminismo posmoderno honek harreman handia du korrante post-estrukturalistekin eta baita feminismo post-kolonialarekin ere.

52 Standpoint theory epistemologia feministaren hirugarren korrante nagusia litzateke, bere abiapuntua ondokoa da: “*la posición dominante de los hombres en la vida social se traduce en un conocimiento parcial y perverso, mientras que la posibilidad subyugada de las mujeres abre la posibilidad de un conocimiento más completo y menos perverso*” (Harding, 1996). Honela alboratuak diren edo alboetan dauden ikuspegia (“standpoint”) hobestea da planteamendu nagusia.

delakoaren abantailak aintzakotzat hartuz baina ikuspegi horretatik eratorri diren arrisku batzuk ekidinez, aldi berean: zapalduak edo baztertuak diren subjektuen romantizazioa eta berauen berdintzea klase homogenea balitz bezala, edo eta subjektu hauek ezagutzaren ekoizpenean inolako interes partikularrik ez dutenaren ustea zabaltzea. Alegia, emakume guztiek (adibidez) ez dutela posizio bera jokatzeko gizarte eremu eta prozesuetan, eta are gutxiago interes propioa gabe jokatzeko zientzia ekoizpenean.

Haraway-ren asmoa beraz, objektibotasun feminista garatzea da. Horretarako bere esanetan: *“necesitamos el poder de las teorías críticas modernas sobre cómo son creados los significados y los cuerpos, no para negar los significados y los cuerpos, sino para vivir en significados y en cuerpos que tengan una oportunidad de futuro”*⁵³ (Haraway, 1995:322). Ideia honetatik tiraka, bere esanetan objektibotasun feministak hain zuzen ere esan nahi duena ezagutza kokatuak onartzearen beharra da. Ezagutza kokatuak nor bere kokapen sozial eta politikoaren onarpenetik abiatzen dira, baina alde aurretik onarturik kokapen orok duela bere botere posizio zehatza eta interes propioa, alegia, kokapenak ez duela bere horretan jakintzaren esparruan pribilegio argigarrik ematen.

Difrakzioaren kontzeptua ere estuki loturik dago arestian aipatutakoarekin. Zientzia txuri, mendebaldar eta maskulinoek so ikusezina garatu dute mendeetan zehar. Alegia, so egiten duen begia bera agertokitik kentzea lortu dute, beraien soa ustezko objektibotasunean disolbatuz. Haraway-k begirada⁵⁴ berreskuratzea animatzen gaitu. Gure begiradaren bitartez ikusi eta hausnartzen dugula abiapuntutzat hartzeak eta onartzeak beste edozein planteamenduk baino gehiago gerturatzen gaitu objektibotasunera bere ustetan. Hain zuzen ere hori da difrakzioak eskaintzen diguna. Argazkilaritzan edo argiaren teorian difrakzioa gertakari zehatza da. Argi izpiek zulo estu

53 Hizkuntza originalean esaldiak zera dio: *“to build meanings and bodies that have a chance for life”* (Haraway, 1995) , nire ustetan ez da horren argi jasotzen itzulpenean bere bizitzeko bizigarritasuna bermatzeko proposamenekiko ikuspegi konprometitua. Ideia berbera garatu du Butlerrek *“Marcos de guerra”* (Butler, 2010b) liburuan eta gaur eguneko bizigarritasunaren nozioa oinarritzeko da ekonomia feministaren bueltan, bizitzaren sostengarritasunari begira garatzen ari diren hainbat lanetan (Legarreta, Perez Orozco, & Ávila Cantos, 2006), (Perez Orozco, 2006).

54 Ingeles originalean *“vision”* hitza erabiltzen du, nik *“begirada”* bezala itzuli dudana, eta *“gaze”*, nik *“so”* bezala itzulia. Nolabait *“begirada”* hitzak errealitatea aztertzean jarrera aktiboa izatearen ideia berreskuratu nahi du, alegia, era kontziente batean gure begirada hori nora bideratzen dugun kontziente izan eta onartzea.

bat zeharkatzen dutenean gertatzen den fenomeno da difrakzioa. Hauek forma aldatu eta ez dira argi-lerro bezala pasatzen hortik aurrera. Kotxe baten autoak gauaren erdian bezala zabaldu egingo dira, zuloak argi iturri berria izango balitz bezala jokatzeko baitu. Ondorioz, difrakzioak argia puntu zehatz batean kontzentratzea ekiditen du. Argi puntuak dispersatu egingo dira, "Airy disko" bezala ezagutzen dena sortuz. Disko hori deformazio horren adierazpena da.

Ikerketari aplikaturik, difrakzioaren bitartez errealitatearen ikuspegi zabalago eta anitzagoa lor dezakegu, ikuspegi guzti horien dispersioak objektibotasunaren eta materialtasunaren ideia bera deuseztu gabe. Horretarako ezinbestekoa da hurrengoa ulertzea: *"los conocimientos parciales, localizables y críticos, que admiten la posibilidad de conexiones llamadas solidaridad en la política y conversaciones compartidas en la epistemología"* (Haraway, 1995:329).

Azken finean, azken hamarkadetan eman den eztabaida prozesuaren haritik, eta behin zientzia egiteko eredua andro-zentratua, euro-zentratua eta produktibista dela onarturik, modernitatearen osteko etengabeko zurrunbilo erlatibistan ez erortzeko mekanismoak ezartzea erronka ikaragarria da ikerketa feministarentzat, eta oro har ikerketa kritiko ororentzat: ikerketen nondik-norakoak finkatzeko, metodologiaren baliagarritasuna ontzat emateko, lanaren zilegitasuna balidatzeko...

Bide horretan ezinbestekoa izango da ikertzaileen komunitate artikulatuak osatu eta balore akademiko andro-zentratuei aurre egin diezaiokkeen masa kritiko sendoa sortzea. Izan ere, nahi eta nahiez, zientziari begiratzeko modu horrek komunitatean egon beharko du zentratua, zientzia-komunitatean, bai, baina aldi berean pentsaera feministaren komunitate zabalean eta aktibismo feministaren komunitateetan halaber.

4 – Corpusaren analisia.

4.1 - Aztertutako dokumentuen inguruko zehaztapenak eta irizpideak.

Gizon-talde eta maskulinitatearen inguruko inizatiben kariatara sortu diren testuak aztertzean ezin ditugu beraien horretan bakarrik analizatu, ezinbestekoa dugu testuinguruan kokatu eta sortuak izan diren, jasoak diren eta ulertuak diren moduak kontutan hartzea.

Hona hemen talde eta ekimen hauen diskurtsoak aztertzerako orduan aintzat hartzeko hainbat xehetasun:

Lehen zehaztapena ikerketaren objektuaren hedapenari berari dagokio. Ikerketa egitea planteatu nuenean, lehengo zalantza berau izan zen. Merezi al du halako ekimenen diskurtsoa aztertzeak? Ze nolako hedapen maila daukate honelako ekimenek? Ezagutzen al ditu jendeak? Zalantza honek salto egin zidan hasieratik hain zuzen ere talde eta ekimen hauek kuantitatiboki txikiak direlako. Baina horrek, halabeharrez esan nahi al du beraien ekimenek ez dutenik oihartzunik?

Dakigunez, diskurtsoen plazaratze eta hedatzean eragiteko gaitasunak ez dira berdin banatzen gizartean. Talde sozial batzuek ahalegin handia egin arren ez dute sarbiderik topatzen diskurtsoak zabaltzeko eta moldatzeko gakoak izan daitezkeen gune batzuetan, komunikabideetan kasu. Pentsa dezagun, adibidez, zenbat hitz egiten den prostituzioa bezalako fenomenoaz telebista edo egunkarietan, eta zenbat aldiz entzun ditugu sexu-langileak edo beraien elkarteetako bozeramaileak hitz egiten. Edota genero indarkeriaren gaiari lotuz, askotan ikusi izan ditugu gaiari buruz politikari edo polizia-arduradun ugari, aldiz askoz gutxiagotan dute talde feministek gai horri buruz beraien diskurtsoa plazaratzeko aukera hedabide handietan.

Gizon-talde eta maskulinitate taldeen diskurtsoen inguruan, ezin dugu esan egunerokoan presentzia handia dutenik. Dena dela, une zehatzetan eta gune batzuetan, lortu izan duten presentzia beraien hedapen materialarekin (talde kopurua, talde bakoitzeko partaide kopurua...) ez doala bat. Berez, azken urteotan "*rara avis*" izan direlako edo, nahiko

atentzio jaso dute. Era berean, instituzioetatik, bai Emakundetik beraien “Gizonduz” programarekin eta baita herri ezberdinetako udaletxeetako berdintasun sailetatik erraztasun eta laguntzak eskaini zaizkie talde hauei, are gehiago, kasu askotan taldeak beraien sortzerako orduan garrantzi handia izan dute ekimen instituzionalek, era zuzen edo zeharkakoan. Noski, panorama zabala da eta izan da, eta badaude ere instituzioekin harreman maila oso ezberdinak mantendu dituzten taldeak.

Baloratu beharreko beste aspektu bat egindako azterketarako corpusa bera litzateke. Testu idatziak aukeratu ditut. Gehienetan taldeek beraien landu eta idatzitako testuak dira. Testuok taldeek sinatzen dituzte, eta ez dago beraien autoretza pertsona bakarrari egozterik, nahiz eta agian hala izan. Dena dela, honek ez du zertan garrantzi handirik hartu behar diskurtsoen analisisian, izan ere, Foucault-ek adierazten digun bezala (Foucault, 2008) historikoki autoretzak testu edo corpusei koherentzia eta sinesgarritasuna eman dien arren, nozio hori zalantzan jartzea badago diskurtsoak ez direlako inoren barne-pentsamoldeen adierazle.

Bide honetatik, albo batera utzi beharra dago testuak barne-egien adierazle bezala ulertzearen ideia, diskurtsoen eraikuntza eta interpretaziorako beharrezko diren unitate bezala ulertuz. Bide horretatik garrantzitsua da diskurtso analisiari ekitean tentazio horri eustea (Antaki, Billig, & Potter, 2003) .

Honela, pentsa genezake testu hauen atzean nolabait talde edo ekimen bakoitzaren izaera deskubritu dezakegula. Eta hau egia da baina soilik erdizka. Noski, testuen azterketak pistak emango dizkigu, eta aukerak ere ikusteko zein mailatan diren taldeen diskurtsoak anitzak edo beraien artean konektatuak, zeintzuk diren elkarrekin batzen dituzten aingurak eta zeintzuk banatzen dituztenak. Baina azterketa honetatik ezin daitezke erabat ondorioztatu taldeen jardunak edo izaerak. Horretarako, ezinbestekoa litzateke bestelako metodologia batzuetara jotzea, adibidez taldeetako kideekin sakoneko elkarrizketak eginez, eztabaida taldeak eginez, beraien ekimenen inguruko azterketa, ekimenon jarraipenaren analisisa... Talde bat, azken finean, ez du bakarrik kalera plazaratzen duen diskurtsoak egiten.

Gizonezkoen taldeen kasuan gainera, planteamenduetan ere aniztasuna da nagusi. Gai honen inguruan lan ugari egin duen Xabier Odriozolak dioen bezala, planteamendu ezberdin ugari topatu daitezke berak “*maskulinismo*” bezala definitu duen mugimenduaren baitan (Odriozola, 2008)⁵⁵. Bere banaketa horretako multzo baten testuak soilik aztertu ditut (berak “*los grupos progresistas que están completamente a favor del cambio*” deitzen dituenak), eta hala ere nuke ñabardura ugari eta aniztasuna daude tarteko. Baina esan bezala, ezinbestean kontutan hartu beharko dugu diskurtso soziala eraikitzean, jendarteak jasotzen duena askoz zabalagoa, nahasiagoa eta definizio gabekoa dela.

Era berean, testuen izaera bera dela-eta, ez gaude elkarrizketa edo eztabaidetatik sortutako datuen aurrean. Testuok, testu kolektiboak izanik, hainbat eskutatik pasatakoak izango dira askotan. Kasu batzuetan zuzenketa ugari egindakoak izango dira, terminologia bat edo beste erabili edo ideia bat edo beste nola adieraztearen inguruan barne-eztabaida luzeak izango ziren kasu batzuetan ere. Horrek, noski, bere alde ona du, hain zuzen ere, testuak (printzipioz, eta onartzen badugu taldeek barne-demokraziaren arauak errespetatzen dituztela) kontsentsuan oinarritutakoak direla, alegia, taldekideek oniritzia eman baldin badiote, suposa dezakegu adostasun maila altua badagoela bertan azaltzen denaren inguruan.

Bestalde, abantaila hau gure kontra bueltatu daiteke ere, sorkuntza kolektiboan askotan kontsentsu hori azaltzen den era berean, kontsentsu falta ikusezin egiten delako. Hain zuzen ere ez dakigu testuok idaztean zein izan zen kontsentsu maila, zenbaterainoko eztabaidak egon ziren, testuak adosteko erraztasun edo zailtasunak egon ziren, ideia gatazkatsuak... Horretarako lehen esan bezala, bestelako teknika batzuk erabili beharko genituzke, elkarrizketak edo eztabaida taldeak kasu.

Amaitzeko, eta nahi eta nahi ez egin beharrekoa denez, ikerlariak berak jartzen dituen mugak azaldu beharko ditut ere. Azken finean, kontutan hartu beharrekoa da lan hau

⁵⁵ Emandako izenarekin (“maskulinismoa”) eta espresio guzti horiek mugimendu bakararekin identifikatzearekin ez nago ados. Esango nuke hain zuzen ere Odriozolak berak egindako talde-familia ezberdinen tipologia horrek berak ezinezko egiten duela mugimendu bakarrean biltzea.

Euskal Autonomi Erkidegoko gizon-talde eta maskulinitate ekimeneren argazkia den bezala, ez dagoela inoiz eta inon bere kabuz atera den argazkirik. Kamara nik aukeratu dut, eta baita objektiboa ere. Ikerketaren asmoa angelu zabaleko objektiboa erabiltzea da, talde batean edo bestean larregi zentratu gabe, hau da, makro objektibo batek emango ligukeen ñabardura eta hurbiltasunik gabe, baina plano orokorreko argazkia egitea, panorama orokorra marraztea gaur egunean dauden taldeen diskurtsoen inguruan.

Honek, ezinbestean, informazioa eskuratu eta galtzea dakar. Agian talde zehatz baten idatzietan edo jardunean gehiago zentratuz gero, taldearen eta bere diskurtsoaren garapena ikusi ahalko genuke, denboran zehar izan dituen aldaketak eta baita eztabaida sortu duten gai eta kontzeptuak. Begirada zabala ezartzeak, ordea, irudi orokorra emango digu, denbora-lerroan nahikoa mugatua (testu denak urte bertsuetakoak dira) baina zabala, panoramikoa.

Aztertutako taldeen dokumentuak:

Gizon taldeez ari naizenean, eta lehen emandako Odriozolaren definiziotik tiraka (Odriozola, 2008), sexismoaren gaiaren inguruan sentsibilizatuak dauden eta horren aurrean aldaketa “progresistak” planteatzeko bildu diren taldeez ari naiz, eta berauen testuak izan dira aztertu ditudanak.

Nahiz eta talde eta ekimen hauen baitan antolaketa eta plazaratze eredu oso ezberdinak izan denok mantentzen dituzte gutxienez ezaugarri komun minimo batzuk: aldarrikapen feministak printzipioz onartzen dituzte, eta hein baten edo bestean sustengatu ere; izaera publikoa dute, alegia, jendeak badaki egon badaudela; eta azkenik jardura publiko minimoa mantentzen dute, adibidez testuak argitaratuz, edo ekimen publikoetan talde bezala parte hartuz.

Azken bi baldintzak ez dira lar problematikoak, baina lehen biek alde batera uzten dituzte hainbat eta hainbat talde, gizon-talde edo ekimenak direnak, baina jarrera progresistarik ez dutenik, eta are gehiago, kasu askotan mugimendu feministak lorturiko garaipen batzuen ondorioei aurre egiteko elkartu direnak. Honen adibide izan daitezke “Zaintza partekatua” aldarrikatzen duten talde batzuk.⁵⁶

Hau argituta, esan beharra daukat gizon-talde hauetaz gain badagoela ere instituzio ekimen bat azterketan, hain zuzen ere Gizonduz ekimena. Gizonduz ekimena 2007an jarri zen martxan eta ordutik gizon-taldeen sustapena izan da beraien helburuetako bat, dirulaguntza edo formakuntzaren bitartez adibidez. Hori dela-eta, uste dut gaur egungo panorama ulertzeko bere eragina kontutan hartu beharrekoa dela. Ekimenak berak izandako eragina dela-eta, beraien web orritik ateratako bi testu aztertu ditut. Bata argitaratu berri duten liburu baten kapitulua da, alegia “*Los hombres, la igualdad y las nuevas masculinidades*” (Bergara, Riviere, & Bacete, 2008) libururako Miguel Ángel

⁵⁶ Kurioso da nola gaztelaniazko “Custodia compartida” euskaraz “Zaintza partekatua” bezala itzulia izan den. Dakigunez, “custodia” eta “zaintza” hitzek ez dute esanahi berdina. Are gehiago, “zaintza” hitza askotan mugimendu feministak planteaturiko kontzeptua da, umeen, nagusien eta oro har etxeko atetik barrura egiten den atentzio eta zaintza lanaren banaketa aldarrikatzeko. Harrigarria da bi kontzeptuok baliokide bailiran itzuli izana.

Lozoyak idatzitakoa. Lanaren corpora definitzean, topatu dudana mugetako bat hain zuzen ere testu berdinak leku ezberdinetan aurkitzea izan da. Alegia, bertako taldeek gehienetan oso gutxi produzitzen dutela propio, nahiz eta salbuespenak egon, eta kasu askotan testu berdinekin buruz buru egiten dugu, talde ezberdinek sinatuak edo beraien web orri edo *blog*-etan zabalduak. Hori dela-eta, uste dut ez litzatekeela oso zilegi izango azterketa EAE-n bertan produzituriko testuetara mugatzea erabat. Horregatik, Gizonduz eta Emakundek argitaratu duten aipatu liburuan agertzen den Lozoyaren testuaz gain, AHIGE elkarteak plazaratu zuen manifestua ere hartu dut aintzat, hainbat lekutan agertzen delako, adibidez, Piper Txuriak Bilboko taldearen *blog*-ean. ("Piper Txuriak," 2012-06-22an kontsultatua).

Bestalde, oraindik ere talde askoren lan edo testuak falta dira (nik dakidala, badira edo azken urteotan egon dira gizon-talde eta ekimenak Ondarroan, Ermuan, Santurtzin, Tolosan...). Honen arrazoia bikoitza da: alde batetik talde horietako batzuek ez dituzte idatzitako testurik argitaratu egundaino behintzat, eta bestetik argitaratu badituzte ez dituzte inon eskuragarri jarri.

Aztertu diren taldeen dokumentuak, beraz, honako hauek dira:

Testuaren izenburua	Egilea/sinatzailea	Jatorria
Manifiesto de condena de la violencia de género	Grupo de Hombres por la Igualdad de Álava (GHIA)	http://gizonak.blogspot.com
Los hombres ante la violencia sexista. 25 de Noviembre, día internacional contra la violencia hacia las mujeres	Gizon Sarea (Red de hombres del País Vasco por la igualdad.	http://www.gizonsarea.org/wp/
Los hombres, la igualdad y las nuevas masculinidades: presentación	Izaskun Moyua (Emakunde)	ISBN 84-89630-15-1
Gizonak emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean.	Miguel Angel Lozoya	http://blog.gizonduz.euskadi.net/ http://www.berdingune.euskadi.net/u89-congizon/es/contenidos/informacion/quees/es_gizonduz/quees.html
Decálogo: un hombre por la igualdad es aquel que:	Asociación de Hombres por la Igualdad AHIGE	http://www.pipertxuriak.com/
Trabajos y objetivos	Piper Txuriak (Berdintasunaren aldeko gizonen taldea)	http://www.pipertxuriak.com/
Ante situaciones de violencia hacia las mujeres. Manifiesto de la asociación de Hombres por la Igualdad y Contra el Sexismo de Bilbao, Piper Txuriak	Piper Txuriak (Berdintasunaren aldeko gizonen taldea)	http://www.pipertxuriak.com/

Azterketarako klabeak eta irizpideak:

Testuinguru teorikoa lantzen ari nintzela, eta bereziki maskulinitatearen inguruko azterketak begiratzen, hainbat gai klabeak zirela ikusi izan dut. Era berean, eta teoria feministan eta baita diskurtso analisi feminista kritikoa garrantzitsuak diren gai batzuk azpimarratu nahi izan ditut. Horiekin zerrenda osatu eta bertan jarri dut testuak aztertzean atentzio berezia:

-Gizon kategoriaren trataera: gizentasuna azaltzerako orduan non jartzen den azentua, alegia ikuspegi normatibotik, sinbolikotik edo enpirikotik azaltzen den maskulinitatea (Connell, 1995a). Era berean, eta horrekin lotuta, maskulinitatea esentzia bezala edo eraikuntza bezala tratatzen den, edo zein mailatan bata edo bestea.

-Espazio publikoa eta pribatua: maskulinitatearen eraldaketan zeri ematen zaion garrantzi handiagoa edo non finkatzen diren eraldaketa horretarako klabeak. Honi loturik, maskulinitatea eraldatzearen inguruan espazio eta jardun publikoan eragiteko beharra nola irudikatzen den.

-Etxeko lanen banaketa: aurreko aldagaiarekin harremanetan, etxeko lanen banaketari garrantzi berezirik ematen zaion, bestelako lan banaketa batzuekin alderaturik.

-Heterosexualitatea eta bikote harremanak: taldeek plazaraturiko dokumentuetan nolako garrantzia hartzen duen bikotean ematen diren harremanak eta nolakoa esparru zabalagoetan ematen direnek. Honekin batera, bikote harremanak irudikatzea heterosexualitatearen inguruan -egitate sozial bezala (Rich, 1980, Wittig, 2006) – zentratzen den taldeen esapidea edo ez, eta zein mailatan.

-Erru sentimendua eta aparteko taldea osatzeko nahia: taldea osatu eta bertan jarduteko motibazioak ze mailatan duten harremana gizon bezala patriarkatuaren onuradun izatearen errugabetasunarekin (Seidler, 2006) eta ondorioz sistema hori kuestionatu nahi duen gizonen talde bezala identifikatuak izateko nahi edo beharrekin, matxistaren etiketa

kendu nahi dutenekin.

-Motibazioak: aurreko puntuarekin lotuta, taldea osatu edo politika horietan aritzeko motibazioak nolakoak diren, eta aldi berean gizonezkook aldaketara gonbidatzerako orduan planteatzen den abiapuntuaren nolakotasuna. Nagusiki, diskurtso etikoa, morala edo aukerarena (gizonezkook berdintasunarekin irabazteko daukaguna) maneiatzen den.

-Pribilegioak edo kargak: maskulinitatearen bizipena zein mailatan neurtzen den patriarkatuaren inposatze bezala, alegia, gizonezkoontzat kargak dakartzan zerbait bezala, edo eta pribilegioak ematen dituen posizioa bezala. Ez da aukera dikotomikoa, bi diskurtsoak zein mailatan agertzen diren interesatu zait.

-Emozioak: gizonezkoen esparru emozionala nola irudikatzen den, eta horrekin batera gizonezkoen emozioa azaltzeko gaitasunak nola irudikatzen diren. Gizonezkook emozioak transmititu eta bizitzeko ez-gai bezala azaltzen garen, eta hala bada ze emozio diren “debekatuak” edo emozio kontzeptua bera -bere osotasunean- den gizonezkooi ukatua.

Aldagai hauetan atentzia jartzeaz gain 2012ko Maiatzean Leioako Komunikazio eta Gizarte Zientzien Fakultatean Barbara Biglia eta Jordi Bonet-ek emandako ikastaroan (Biglia & Bonet, 2012) emandako irizpideak jarraitu ditut testuen analisia burutzeko. Labur esanda, pausoz pauso honakoa litzateke prozedura:

-*Testuaren edukien analisia*: zertaz aritzen da, zeintzuk dira gai nagusiak, zein da bere sekuentzia narratiboa.

-*Testuaren generoa*: zein da testuaren genero literarioa, bat eta bakarra da, beste genero batzuek azaltzen dira eta zein da haien arteko harremana.

-*Interakzio komunikatiboaren azterketa*: nori hitz egiten dio testuak? Nori zuzendua dago? Nor da egilea eta nola aurkezten du bere burua?

-*Ahotsen analisia*: ahots bakarrak hitz egiten al du? Beste ahotsik al dago? Zuzenak ala zeharkakoak dira agertzen diren ahots horiek? Nola eta zertarako aurkezten dira beste ahots horiek (jakitun bezala agertzen dira, kritikatuak dira,

ardura ezartzen zaie?

-*Agentziak*: testuan agertzen diren subjektuak agente bezala identifikatzen al dira? Beraien ahotsak era zuzenean azaltzen dira ala egilearen/egileen bitartez?

-*Argudiaketa*: nola argudiatzen dira ideiak eta ze egitura du argudiaketa horrek? Ze erretorika elementu identifikatu daitezke?

-*Inter-textualitatea*: beste testurik zitatzen al da aztertutako dokumentuan? Ze helbururekin? Ze posizio betetzen dute zitatzen diren beste testuok?

-*Diskurtsoen arteko harremana*: ze motatako diskurtso ezagunei egiten zaie erreferentzia (diskurtso etikoa, politikoa, morala, ekonomikoa, kritikoa...) eta zertarako eta nola azaltzen dira testuan?

-*Boterea, posizioa, ideologia*: zein dira beraz, testuak esplizituki edo inplizituki babesten edo kolokan jartzen dituen posizioak? Posizio hauek hegemonikoak al dira?

Esan beharra dut pausu hauen nondik-norakoak ez ditudala testu bakoitzean eta banan-banan azalduko. Nahiz eta testu guztietan ariketa berbera egin, ez luke zentzurik izango dokumentu guztiek pausu bakoitzean eman dituztenak aztertzea. Izan ere, testuak emankorragoak izan dira azterketaren maila batzuetan besteetan baino, eta beraz, elementuren bat nabarmentzeko modukoa dela pentsatu dudanean, analisisan edo ondorioetan isla izan du berorrek.

Aztertutako testuen azalpena, beraz, arestian azalduko irizpideen arabera eta azterketarako finkaturiko aldagaien inguruan antolatu dut. Dena dela, irakurketa errazte aldera, analisisa ez dago aurreko atalean azalduko aldagaien arabera antolatua ehuneko ehuneko. Aldagai batzuek ez dut horrenbesteko garrantzirik hartu, beste batzuk elkartu egin ditut analisisa azaltzeko eta beste berri batzuk dokumentuen azterketa egiten ari nintzela azaldu dira.

4.2 - Modernitatea eta tradizioaren arteko lehia.

Aztertu diren testu ugarian, era batean edo bestean “tradizio” hitza azaldu izan da, era errepikakorrean gainera. Nolabaiteko ideia zabala azaltzen da testuotan zehar, bestalde gizarte mailan hainbatetan azaldu izan den ideia ere badena, genero zapalkuntza iraganeko gertakari edo praktika denarena, alegia. Honen aurrean, beraz, berdintasunaren aldeko aldarriak orainaldian edo etorkizunean kokatzen dira.

Honen adierazle dira aipatu bezala “tradizioa” hitzaren erabilera hedatua, adibidez “*el modelo tradicional de masculinidad*” (Moyua, 2008), “*modelo machista tradicional*”, “*masculinidad tradicional violenta*” (GHIA, 2007) “*tradicional aislamiento emocional*” (AHIGE, 2007). Baina aldi berean bestelako espresio bide eta hitzek hala adierazten dute ere: “*ez dira beren aitak bezain matxistak*” (Lozoya, 2009) edo “*ya*” espresioaren erabilera errepikatua: “*ya no tolera*”, “*ya no acepta*” (AHIGE, 2007).

Testuetan ez da inoiz ere aipatzen berdintasun falta gaindituta dagoen zerbait bezala, ez da halako zantzurik topatzen, baina bai ematen da diskurtso orokor bat zeinetan iraganaren pisua handia den berdintasun falta definitzeko, eta horren parean haustura bat planteatzen dute, nolabait marra bat marraztu eta beste aldera salto egiteko beharra. Aukeratu zitekeen egungo sistema patriarkarra definitzeko orduan bestelako hitzik, badago esatea adibidez “nagusi den eredu maskulinoa” edo “maskulinitate hegemonikoa”, aldiz tradizioa eta iragana burura ekartzen dizkiguten hitzak aipatzen dira. Aurretik ere esan dudana bezala, maskulinitatearen inguruko teorietan ere hainbatetan agertzen zaizkigu halako erreferentziak, maskulinitatea iraganari lotzen dituztenak (Seidler, 2006, (Cortés, 2004). Aldiz, literatura berean hainbatetan aipatzen den “maskulinitate hegemonikoa” kontzeptua (Connell, 1995) pare bat alditan soilik azalduko zaigu, (Piper Txuriak, 2011) (Moyua, 2008).

4.3 - Maskulinitatea irudikatzeko moduak. Zer da zalantzan jartzen dena eta noraino?

Sarreran adierazi dudan bezala, ezinezkoa izango dugu apenas topatzea maskulinitateri bere horretan eginiko erreferentziarik. Aitzitik, testuotan hitza agertu den guztietan, behin ezik, lagunduta joan da. *“Modelo tradicional masculino”* (AHIGE, 2007) , *“supuesta masculinidad”*, *“masculinidad tradicional violenta”* (GHIA, 2007) , *“masculinidad tradicional”*, *“masculinidad mal entendida”* (Moyua, 2008)... Kasu gehienetan ez da maskulinitatearen beraren existentzia kolokan jartzen. Hezkuntza prozesuaren ondorioz jaso diren balore maskulino negatiboak aipatzen dira ugaritan, eta baita berauek kuestionatzeko beharra ere. Baina maskulinitatea, egon badago. Gaizki ulertu da, edota soilik haren aspektu batzuk bultzatu dira eta horrek berdintasun falta egoera batera ekarri gaitu, baina ematen duenez adjektibo negatibo guzti horiek maskulinitatea zalantzan jarri eta deseraikiz gero, positiboa den maskulinitatearekin egingo dugu topo.

Galde genezake balore maskulino nagusiez gain -indibidualismoa, efikazia, bestearen/ezberdinaren satanizazioa, heroismoa eta gerrarako joera, emakumeen gaineko dominazioa, espazio publikoaren lukurreria... (Bonino, 2000)- zer dagoen maskulinitatetan, alegia, zer den maskulinitate berri bat balio horiek ez baldin baditu. Maskulinitatea al da oraindik? Argi dago, orokorrean, gaiari buruz hitz egiterako orduan generoa erabiltzen dela aldagai nagusi bezala, azken urteotan mugimendu feministaren baitan eman diren hainbat eztabaidei (Butler, 2007; 2002, De Lauretis, 2000, Fausto-Sterling, 2000) leku handirik utzi gabe, maila diskurtsiboan bederen. Generoa kuestionatzen da, sexua ukiezin utziz. Sexuaren araberako rol banaketaz hitz egiten da, *“...estereotipos y roles en función de sexo”* (Moyua, 2008).

Dena den, testuetako batean aipamen esplizitua egiten zaio gaiari, *“Hori guztia egingo dugu, oinarrian dauden eredu maskulinoa eta eredu femeninoa desagertzeko beldurrik gabe”* (Lozoya, 2009). Kasu horretan bi generoak zalantzan jartzen dira bere horretan, feminitatea eta maskulinitatea esentzia bezala kuestionatuz, eredu bezala identifikatuz. Dena den, eta feminismoetan eman diren hainbat eztabaidaren haritik tiraka (Butler, 2010, Braidotti, 2004, De Lauretis, 2000) interesgarria litzateke ere planteatzea hurrengo

eztabaida, era zabalean testuinguru teorikoaren hirugarren atalean azaldu dudana alegia: pisu berdina al du feminitatea bezalako identitate prekarioa kolokan jartzeak eta maskulinitatea bezalako identitate solidoa kuestionatzeak? Hainbat pentsalari feministek planteatu dutena ez da sexu ezberdintasunarekin (kategoria ontologiko bezala) amaitzea ezinezkoa denik, baizik eta horrek berriz ere desabantaila egoeran utziko lituzkeela emakumeak, alegia, estrategikoki ez dela horretarako unea, emakumeak identitate femeninoa garatzeko apenas denborarik izan dutenean. Edonola ere, ez zaio azterturiko dokumentuotan aipamen espliziturik egiten eztabaida horri, ez eta berorren oinarrietan dauden ekarpen teorikoei edo bertan maneiatzen diren terminoei -deseraikitzea, subjektu politikoa...). Honek ez du zertan pista handirik eman behar, izan ere, hedapenerako testuak izanik, normala da eztabaida sakonak eta terminologia teorikoa alboratzea. Baina esan bezala, edukietan ere, ez da azaltzen eztabaida hauekin loturiko ezer.

4.4 - Nola banatzen dira gizona, berdintasunaren aldeko gizona, emakumea eta berdintasunaren aldeko emakumea?

Uneoro anibalentzia handia azaltzen da aztertutako testuotan “gizon” kategoriaren inguruan. Noski, kategoria zentrala da diskurtso hauetan, hain zuzen ere *“text mining”* tresna batekin testuak aztertzean frekuentzia gehien eman dituen hitza adberbio eta elkartzaileez gain. Anibalentzia honen erakusle nagusia testu denetan ematen den aditz konjugazioen bariazioa da. Une batzuetan “gizonok” aipatzen da, eta lehengo pertsona plurala erabili, eta beste askotan “gizonak” eta hirugarren pertsona erabili. Inolako unetan ez da bigarren pertsona erabiltzen, alegia ez zaigu gizonekooi zuzenean interpelatu gizon kategoria kanpotik, baina bai ordea une batzuetan orokortasunera salto egin hirugarren pertsona erabiliz.

Kasu batzuetan, gainera, nabari da aditz formen aldaketa honek izan dezakeela zerikusirik berdintasunaren alde dauden gizonen eta beste gizonen artean ezberdintasuna markatzearekin, nahiz eta harremana ez den erabat garbia eta bat-batekoa. Adibidez, testu honetan:

“Gizonok, arreta handia izan behar dugu emakumeen aurkako indarkeria aztertzerako orduan”

“gazteei emandako mezuaren ondorio: gizonok emakumeak babestu behar ditugu eta haiekin ditugun harremanetan guk hartu behar dugu aurrea.”

“... emakumeek eta gizonak ahalegin handiagoa egin behar dugu...”

“...matxismoarekin eta haren adierazpenekin amaitzeko beharra sentitu behar dute, sexuen arteko berdintasunaren alde egin behar dute eta hori gauzatu ahal izateko, etxean eta kalean beharrezko diren ardurak bereganatzeko prest egon behar dute.”

“...gizonak oraindik zalantzak dituzte emakumeek beren bizitzak kudeatzeko duten gaitasunaren inguruan...”

“...emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako borrokan gizon gehienek parte hartu beharko lukete...” (Lozoya, 2009)

Aurreko lerroetan ikusten den bezala, ez dago oso garbi testuaren arabera idazten duena gizon kategoriaren barruan kokatzen den ala ez. Kategoriarekiko harremana beraz, nahasia da. Alde batetik badago taldearen barruan kokatzeko asmoa, hain zuzen ere gertutasuna adierazteko beste gizonekiko, nolabait besteak ere animatzeko berdintasunaren aldeko postura hartzera. Baina beste alde batetik, eta hau da agian interesgarriena, distantzia bat markatzeko ahalegina dago, nor garen esan eta “beste gizonak” bezalakoak ez garela adierazteko. Nolabait esanda, feminismoak gizon guztiak susmagarri bilakatu balitu bezala eta lerro bat marrazteko asmoa balego bezala.⁵⁷

Idea hau azterturiko testuen beste zati batzuetan ere topa daiteke, adibidez, norbere buruak izendatzeko orduan: “*como hombres comprometidos en el cambio social...*”, “*como hombres que asumimos la filosofía del respeto...*” (GHIA, 2007) edota beste gizonekiko dagoen harremana edo posizioa azaltzerakoan: “*...ser modelos para los demás hombres*” (Piper Txuriak, 2011) “*No aprovecharnos o utilizar situaciones de poder para imponer nuestros deseos o descargar tensiones con las mujeres, ni permitir que otros hombres lo hagan.*” (GHIA, 2007) “*vamos a intentar llegar al resto de los hombres*” (Gizon Sarea, 2007) edo baita esperientziari loturik “*ha supuesto la finalización de una fase inicial de conocimiento, toma de conciencia...*” (Piper Txuriak, 2009) ... Esan bezala, ez dago horren inguruko aipamen espliziturik, uneoro diskurtsoa anbibalentzia horretan mugitzen da: parte gara aldatu nahi dugun kolektiboan, baina aldi berean egin ditugun aldaketak agerian utzi eta gizonari, bere horretan, gainean daraman susmo-karga kendu nahi diogu.

Zentzu honetan, badira testu batzuetan ere erreferentzia garbiak, adibidez “*Qué es un hombre por la igualdad*” (AHIGE, 2007) dekalogoan, berdintasunaren alde dagoen gizona zer den definitzeko, nahiz eta definizioak nahiko irekiak izan halako kontzientzia egoera bati egiten zaio erreferentzia. Erabilitako aditzak, beraz, ez dira eksklusiboak: “*ha iniciado un camino...*”, “*mantiene una actitud de cambio*”, “*está aprendiendo*”, “*avanza*”, “*ha comenzado a cambiar*”... (AHIGE, 2007) egintzari dagokionean, alegia, ez zaio inori eskatzen prozesua amaitua izatea, baina bai halako predisposizioa bere jarrerak kolokan

⁵⁷ Maskulinitatearen inguruko testuinguru teorikoan aipatu bezala, honek badu lotura teoriko batzuen iritziarekin, adibidez (Seidler, 2006:106).

jartzeko.

Beste kasu batzuetan totalizazioetara jotzen da, eta gizon kategorია manifestua sinatzen dutenekin nahastu. Aurreko kasua esplizitua bazen banaketa horretan, beste batzuetan ez da batere garbi ikusten zeintzuk diren gizon horiek: *“los hombres queremos y necesitamos la igualdad”* (Gizon Sarea, 2007) , *“no supone un perjuicio o pérdida de derechos o libertades para los hombres. Al contrario nos beneficia profundamente”* (Piper Txuriak, 2011) . Gizon denon nahia al da berdintasuna? Denontzat onak al dira emakumeen konkista sozialak?

Hari honetatik tiraka, badago ere galdetzea testu hauen audientzia nor den. Une batzuetan ematen duenez, gizonetzoon kolektiboari zuzenduak daude testuak, beraien atxikimendua bilatuz edo haiengana heldu asmoz. Dena den, eta esan bezala, inongo momentutan ez zaigu gizonoi zuzeneko interpelaziorik egiten, ez da inoiz *“los hombres tendríais que”* edo halakorik. Hala ere, garbia da kasu batzuetan kolektibo osoari zuzentzen ari direla: *“nuestra responsabilidad es aún mayor” “si los hombres no denunciemos a quienes maltratan”* (GHIA, 2007) .

Beste une batzuetan, ordea, ematen du audientzia emakumeak direla, testuok beraiei zuzenduak daudela, are gehiago, maskulinitatea lehen aipatutako susmopean jarri zuten emakumeei, zehatzago: *“...gizon gehienek ez diotela inori tratu txarrik ematen ahaztu dugu. Agian, haiengana beste modu batera gerturatzea izango litzateke onena, aliatu moduan hain zuzen ere.”; “...hain ohituta gaude gizonen aldaketaren aurrean duten erresistentzia, oraindik bete beharreko ibilbidea eta eguneroko lanei ihes egiteko duten joera amorragarria aztertzeraz, non zaila baita aldatu direla ikustea –onartzea are zailagoa da.”* (Lozoya, 2009). Nori ari zaio zuzentzen kritika hau? Norentzat dira hitzok? Pluralaren erabilerak adierazi dezake berak ere gizonok horretan ikusi gaituela, autokritika ere badela. Agian feminismoak orokorrean ahaztu egin du gizon guztiak ez garela tratu txarren emaile. Azterturiko testu denetan zehar erreferentzia bakarra egiten zaio feminismoari, hain zuzen ere testu berdinean: *“badakigu eredu horri ez diogula zehatz-mehatz zertan jarraitu, eta hala erakutsi du feminismoak eta berdintasunaren aldeko gizonen mugimendu*

sortu-berriak” (Lozoya, 2009) .

Aipagarria da, halaber mugimendu feministari egiten zaizkiola interpelazioak, eskaintzak kasu askotan, baina esan bezala, sekula feminismo hitza aipatu gabe: “*decidimos cooperar con vosotras*” (Piper Txuriak, 2011), “*badira berdintasunaren aldeko gizon taldeak osatu nahi dituztenak ere, emakume mugimenduekin bildu eta sexu berdintasuna bilatzeko*”, “*...haien babesa eman diete –grina berezirik gabe– emakume mugimenduak gidatzen duen eta aldaketari laguntzen dioten lege aurrerapausoei.*” (Lozoya, 2009) , “*apoyar a las mujeres en su lucha contra la violencia*” (GHIA, 2007), “*creemos que solo junto a las mujeres es posible conseguirlo*” (Gizon Sarea, 2007) . Aipamen ugari beraz emakumeei (hitz-erabileren maiztasunean bigarren postua du) baina aipamenik ez mugimendu feministari, emakumeen mugimendua aipatzen da bi alditan, baina mugimendu feminista inoiz ez.

Horregatik atal honen izenburua. Alde batetik gizonak eta berdintasunaren aldeko gizonak banatzen badira (nahiz eta aipatu dudan bezala harreman anibalentea den batzuetan), zer dela eta emakumeak subjektu homogeen bezala azaltzea? Emakume guztiek borrokatzen al dute berdintasunaren alde, eskubideen alde edota askapenaren alde, eta uneoro? Ziur aski, inoiz baino garbiago ikusi da emakumeak lan-merkatura eta botere gune politikoetara hurbiltzean (azken hamarkadetan hasi den prozesu motelean) emakume izendatua izateak ez dakarrela ezinbestean “emakumeen interesak” (halakorik balego) edo agenda feministak defendatzea.

Guzti honek lotura handia izan dezake maskulinitatearen eta maskulinitateen inguruko eztabaida horrekin. Hain zuzen ere gizonezko taldearen heterogeneitatea aldarrikatu nahi da, gizon bat eta bakarraren ideia horrekin apurtuz –esan bezala, berau patriarkatuaren erakusle matxista ez dela azalduz- baina horrek bestalde emakumezkoetan eman daitekeen heterogeneitatea alboratzea dakar. Testuinguru horretan, komeni da kontutan hartzea identitateak homogeen edo heterogeen bezala aurkezteak ondorio ezberdinak izan ditzakeela identitate horiek botere posizio ezberdinetan kokaturik daudenean.

4.5 - Etxeko lanak eta espazio domestikoa.

Aztertutako testuetan hainbat aipamen topatu daitezke etxeko lanen banaketari edota espazio pribatuan ematen diren jarrereri. Aski ezaguna da mugimendu feministak bere garaian *“pertsonala politikoa da”* lema famatua egin zuela, engaiamendu politikoak etxeko atarrietan geratu ez zitezen. Honela, sistema ekonomikoa produkzio sisteman oinarritzea eta beronen ardura emakumezkoen eskutan uztea salatu du askotan [sistema ekonomikoaren kritika feministaren inguruko erreferentziak amaigabeak lirateke, eguneratutako ikuspegi gertukoa izateko ikus (Legarreta, Perez Orozco, & Ávila Cantos, 2006, Perez Orozco, 2006, Carrasco, Borderias, & Alemany, 1994) adibidez].

Lan-lerro honen garapenak etxeko bizitza erdigunean ipintzea ekarri du. Aztertutako testuetan ere horren eragina nabaria da, hainbat aipamen baitaude honen inguruan. Emakumeek esparru publikoaren “konkistan” aurrerapausoak egin dituzten bezala, gizonezkook ez ditugu esparru pribatuan emakumezkoek nagusiki beraien gain hartzen dituzten lanak hartu: *“esta importante transformación del papel de las mujeres en la sociedad y su creciente incorporación a ámbitos tradicionalmente considerados como masculinos, no se está viendo acompañada por una asunción significativa de los hombres del trabajo reproductivo ni del resto de funciones y valores tradicionalmente considerados como femeninos”* (Moyua, 2008) . Esparru hau klabe bezala seinalatzen da testuetan zehar, eta askotan konponbide bezala eskaintzen da: *“Gehienak ez dira beren aitak bezain matxistak; egunetik egunera gero eta argiago ikusten dute berdintasunaren aurkako argumenturik ez dela. Hori dela eta, ezkutatzea ezin da justifikatu, lanean hasi behar dute eta etxean mantala jantzi”* (Lozoya, 2009) . Aipatu beharra dago honetan indar gehiena jartzen duten testuak Gizonduz programarekin loturikoak direla. Beste kasu batzuetan aldiz irekiera handiagoa topatuko dugu berdintasun-ezaren gaia lantzerako orduan, eta esparru ugari aipatuko dira landu beharreko bezala: giza eskubideak aipatuko dira, aspektu legala, soziala, lanekoa, hezkuntzarena, irabazi ekonomikoa soilik bilatzen duen sistema... (Piper Txuriak, 2009, Piper Txuriak, 2011, Gizon Sarea, 2007) . Oro har, garrantzia ematen zaio espazio pribatuen ematen den lan-banaketari, eta baita zaintza lanei ere, baina diskurtsoetako batzuk oso zentratuak daude gai horietan, eta esparru

klabe bezala irudikatzen dituzte. Aldi berean, ekimen ezberdinen *blog*-ak begiratuta, ikusiko dugu taldeok burutu dituzten hainbat ekimen gai honen ingurukoak direla.

Espazio pribatuan gizonezkook gure ardurak gure gain hartzeak har dezakeen garrantzia inolaz ere zalantzan jarri gabe, ematen du arestian aipatutako lema famatuari buelta eman zaiola, eta “politikoa dena pertsonala da” bilakatu dela. Alegia, kasu askotan espazio “publikoan” (asko legoke esateko espazio publiko/espazio pribatu dikotomiaren egungo baliagarritasunaz) kokatzen diren hainbat berdintasun falta albo batera uzteko oraindik ere bide luzea egiteko dagoenean, sarritan etxeko esparrua konkistatu gabeko azken esparru, eta beraz, soluzio bezala aurkezten da. Egia da dokumentu askotan ez dagoela apenas aipamenik esparru publikoan eman beharreko aldaketetan gizonezkook jokatu beharreko rolaen inguruan. Alegia, “amantala jantzi behar dute” esaten da baina ez -adibidez- “beraien abantailei esker lortutako lanpostu kualifikatuak utzi behar dituzte”.

4.6 - Pribilegioak, abantailak, kargak eta kalteak.

Aurreko ideia honekin lotuta, adierazi beharra dago bi zentzutako harremana dagoela pribilegioak/kargak dikotomiaren artean. Espero nuen “pribilegio” hitza gehiagotan agertzea, alegia, gizonezkook hala jaiotzearen beste batzueganako dauzkagun abantaila eta botere-guneen irudikapen zabalagoa izatea. Hitza bera behin bakarrik agertzen da, oso era esplizituan gainera. *“es fundamental que sean cada vez más los hombres dispuestos a cuestionar el modelo tradicional de masculinidad, a renunciar a los privilegios que les pueda aportar el sistema patriarcal”* (Moyua, 2008). Erredakzioa bera ere, ez da erabat garbia, *“les pueda aportar”* esaten du. Aldiz, sistema patriarkarraren eragin negatiboez ari garenean, *“las consecuencias negativas que tienen para ellos los estereotipos y roles en función de sexo”* (Moyua, 2008) baieztapena garbiagoa da. Era berean, kontraste handia dago baieztapen honen eta emakumeen egoeraren inguruan hitz egiteko erabiltzen direnen artean: *“la violencia que sufren las mujeres por el hecho de ser mujeres”* (Piper Txuriak, 2011), *“esta violencia la sufren las mujeres por ser mujeres”* (Gizon Sarea, 2007).

Dena den, ideia bera, nahiz eta ez den hitz hori erabiltzen, beste lekuren batean ere topa dezakegu: *“(nos comprometemos a) no aprovecharnos o utilizar situaciones de poder para imponer nuestros deseos o descargar tensiones sobre las mujeres, ni permitir que otros hombres lo hagan”* (GHIA, 2007). Indarkeria matxistaren esparru espezifikoaz dabilenez manifestua, ulertuko da ziur aski *“deseos”* eta *“descargar tensiones”* harreman interpersonal gertukoei dagozkien terminoak direla. Era berean, etxeko lanaren esparruari so eginda, *“bikotean bizi diren gizon guztiek emakumeek baino denbora libre gehiago izaten dute emakumeek egiten baitituzte banaketa orekatuan gizonek egin beharko lituzketen etxeko lanak ere.”* (Lozoya, 2009).

Bestalde, aipamen ugari topatuko ditugu gizonezkook gizonetzko izendatuak izan garelako jasaten ditugun kargen inguruan: *“El sexismo produce daño a las mujeres pero también a nosotros mismos impidiéndonos ser emocionales, empáticos y aptos para el cuidado de*

los y las demas y nosotros mismos.” (GHIA, 2007), “cómo les afecta la socialización basada en el género, qué características y consecuencias tiene la masculinidad tradicional y hegemónica” (Moyua, 2008) . Pribilegioen eta zamen arteko oreka gatatzatsua da beraz, esan genezake, pribilegioen aipamen txikiagoarekin, ematen duenez. Aipatutako moduan, gizonezkoon jarrera sexistak ez badira inolaz ere justifikatzen, badago hainbat aipamenen bat horri erreferentzia egiten diotenak, deskribapena nolabait “biguntze” aldera. “Guztiok hezi gaituzte gizarte matxista batean, eta ziurrenik, denok izan ditugu inoiz emakumeen aurkako mikro-indarkeria moduak, nahita edo uste txarrez egin ez baditugu ere” (Lozoya, 2009) , “Esta violencia la sufren las mujeres por ser mujeres, y es una de las consecuencias graves de la falta de igualdad que padecemos” (Gizon Sarea, 2007). Galdetu beharko genuke berriz ere, zein den testu hauen balizko audientzia, gizonezkook berdintasunaren aldeko esparru ideologikora bereganatzeaz gain ez ote dagoen auto-afirmazio edo justifikazio maila bat ere.

4.7 - Gizona, bakarrik edo bikotean? Bikotea, heterosexuala ala ez? Seme alabarik? Eta familia, ondo?

Erreferentzia ugari topatuko ditugu testuetan zehar adierazteko “gizona” aipatzen denean ez garela ari gizon bezala jaiotzez izendatuak izan ginen guztioi buruz. Gizon kategorია ez da hain zabala edo erreza, eta askotan maskulinitateek -pluralean- suposatzen duten aniztasuna ez da dokumentuetan islatzen.

Testu batzuetan ahalegin handia egiten da indarkeria matxista eta bestelako sexismo formak bikotearen esparruarekin soilik identifika ez daitezen, gaiak ikuspegi orokorretik landuz, eta sexismoaren gune ezberdinak identifikatuz: “*Favorecer la igualdad real y efectiva entre hombres y mujeres, en todos los aspectos y ámbitos: legal, social, laboral, familiar, educativo, etc.*” (Piper Txuriak, 2009).

Beste testu batzuetan ordea, diskurtsoa eraikitzen ari denaren inguruko informazio ugari emango digun pistak topatuko ditugu, identitatearen helduleku. Bikoteari dagokionez: “*sexuaren araberrako diskriminazioaren aurka dagoen herrialde demokratiko batean jaiotzea eta indarkeria matxista errefusatzeko ez da nahikoa maite genuela esan genion eta harekin bizitzeko solidaritate ituna sinatu bide dugun emakumeari eskua altxa diezaiokegulako ustearekin amaitzeko.*”, “*errazagoa zaigula oro har emakumeekin solidario izatea, gure bikotekidearekin baino*” (Lozoya, 2009); seme-alabei: “*Ha iniciado un proceso de replanteamiento de la relación con sus hijos e hijas.*” (AHIGE, 2007) “*...empezando con nuestra propia educación, la de nuestros hijos e hijas en la igualdad*” (GHIA, 2007), “*...arretarekin jokatu behar dugu beti, gure seme-alabek mikro-indarkeria egoera berak errepika ez ditzaten*” (Lozoya, 2009). Era berean, aipamenean bat ere sexu-joerari: “*Ha comenzado a cambiar su actitud hacia la homosexualidad, reconociendo que las personas homosexuales sufren una situación de discriminación...*” (AHIGE, 2007).

Pista batzuk ematen dizkigute jakiteko zein den diskurtsootan irudikatzen ari den gizon eredua, nahiz eta noski, ez den erabat itxia edo agerikoa, gehienetan subjektu heterosexual batez ari gara, bikotean bizi dena, eta seme alabak dauzkana. Ez dago

erreferentziarik heterosexuala ez den sexualitatea dugun gizonezkooi, ez eta bestelako familia-eredutan bizi diren pertsoneri, gizon, emakume edo *trans*. Maskulinitateak, beraz, muga batzuen barruan ulertzen dira, eta horrek bi premisa eman ditzake: eredu horretatik kanpo daudenak ez dira gizonak edo beraien maskulinitatea ez da eraldatu behar, ez dituztelako jarrera negatiboak. Bi premisak oso arriskutsuak, nire aburuz. Lehenengoa aski ezaguna da, hain zuzen ere maskulinitate hegemonikoaren arauak hausteagatik (kasu honetan homosexualak izateagatik) maskulinitatearen esparrutik kanpo uzten baititu subjektu batzuk. Bigarren aukerak Oscar Guasch-ek (Guasch, 2006) ohartarazten zuen efektuari dagokio: maskulinitate hegemonikotik kanpo daudenak nolabait “alternatibotzat” jotzea, maskulinitate *subalternoa* eta *alternatiboa* nahastuz.

Edonola ere, ziur aski -ez daukat daturik hau baieztatzeko- taldeen beraien konposaketarekin ere zerikusirik izan dezake honek, ezaugarri zehatzak dauzkan talde baten esperientziatik identitate orokorra ondorioztatzen baita.

4.8 - Zergatik eta zertarako aldaketa?

Formulazio ugari topatzen ditugu gizonezkook eman beharreko aldaketaren aldeko zergatiak azaltzeko. Hemen, era ezberdinetako diskurtsoak nahasten zaizkigu testuetan zehar, oso eremu ezberdinei erreferentzia egiten diotenak, baina beraien artean nolabait konektaturik agertzen direnak. Esango genuke erreferentzia gehienak diskurtso moral edo etikoari dagozkiela, alegia, gizonezkoon aldaketa betebeharr bezala azaltzea edota aukera sozio-politiko bezala agertzea: *“arretarekin jokatu behar dugu”, “ahalegin handiagoa egin behar dugu tradizio honekin amaitzeko”, “bakoitzak bere ardurak bere gain hartu behar ditu”* (Lozoya, 2009) (ohar bedi testu honetan, nahiko laburra izanik “behar” hitza hogeita bat aldiz azaltzen dela), *“es responsabilidad de los hombres abandonar tales conductas”* (Piper Txuriak, 2011), *“los hombres debemos implicarnos”* (Gizon Sarea, 2007), *“...tenemos la obligación moral y política...”*(GHIA, 2007) ... Eztabaida interesgarria litzateke aztertzea nola konjugatzen diren esaldiotan eta orokorrean diskurtso hauetan politikoa, etikoa eta morala, baina luzerako joko luke eta ez da lan honen helburua (momentuz behintzat) horretan sakontzea.

Dena dela, bada beste diskurtso bat hainbat alditan ere agertzen dena, hain zuzen ere, aukera, abantaila eta irabazien diskurtsoa, askotan ongizatearen eta aurrerapen demokratikoaren esapidearekin agertzen dena. Hari horretatik tiraka, hainbat alditan ikusten ditugu berdintasunak gizonezkooi ekarriko dizkigun onuren ingurukoak: *“en el entendimiento de que eso nos beneficiará a todos y a todas”* (Piper Txuriak, 2009), *“los hombres queremos – y necesitamos – la igualdad entre mujeres y hombres”* (Gizon Sarea, 2007), *“vuestra liberación es también la nuestra. No supone un perjuicio o una pérdida de derechos o libertades para los hombres. Al contrario, nos beneficia profundamente, pues este trabajo nos ayuda a entender y cambiar esta “masculinidad” o modelo de hombre imperante hegemónico, y a ganar en humanidad, vida emocional, relajo, y salud”* (Piper Txuriak, 2011), *“...es un proceso que afecta a todas las personas, mujeres y hombres, y a todas puede beneficiar.”*, *“...incrementar las posibilidades desarrollo humano tanto de las mujeres como de los hombres.”* (Moyua, 2008).

Gizonezkook berdintasunaren aldeko jarrera hartzearekin gizarteak oro har eta guk bereziki (gehienbat maila pertsonalean, “*humanidad, vida emocional...*”) irabazten duguna azpimarratzea gizon-taldeen proposamena erakargarri egin eta hausnarketa hori egiteak ekar lezakeen ona adieraztea da. Baina, non da beste aldea? Nahiz eta agian metodologikoki oso egokia ez izan, gaur, testu hau idazten ari nintzela, atsedean une batean *twitter* sare sozialean topatu dudana elkarrizketa bat ekarriko dut hona:

-Lehen erabiltzailea: “*Gizonek askapen mugimendua behar dute airea bezala*” eta lotura jartzen du “[Por qué me parece fundamental que los hombres se cuestionen su heterosexualidad](#)” artikulura. (gaur ekainak 28 da)

-Bigarren erabiltzailea: “*bueno, egon badago mugimendu profeminista deiturikoa, gizon taldeen inguruan antolatua, euskal herrian ere*”

-Lehen erabiltzailea berriz: “*Maskulinitate heteronorm. misoginoa deseraikitze borondate indibidualak ezagutzen ditut, mugimendu indartsurik ez*” (ohar bedi “heteronorm.” hitza “hetero-normatibo hitzari dagokiola, sare sozialetan hitzak laburtzeko joera handia dago.)

-Bigarren erabiltzailea: “*egon nintzen taldean 5-edo ginen, bai... "hori arraro eta maritxuen gauzak dira" esaten zidan jendeak ez mugitzeko*”

-Lehen erabiltzailea: “*Bejondeiela arraroei, queerrei!*”

(Elkarrizketa *twitter*-en jasoa -<http://twitter.com>- 2012ko ekainak 28an. Parentesi artekoak nire komentarioak dira).

Bigarren erabiltzaileak ez dakigu noiz eta nola, baina gizon-talderen baten parte hartu du. Lau edo bost ziren, eta argi eta garbi azaltzen du jendeak bazterkeriaz erantzun ziola bere parte-hartzeari. Ez dira, beraz, beretzat abantaila handiak izan. Hain zuzen ere, maskulinitate hegemoniko bezala definitua izan dena alboratzean, bazterkeria jasotzea nahiko gauza ohikoa da. Baina horretaz gain, eta honek berriz ere badu harremanik arestian aipaturiko pribilegioen gaiarekin, berdintasun faltarekin amaitzearen abantailak onura izango dira gizonezko batzuentzat, baina beste batzuentzat, gehienontzat pribilegio galera garrantzitsua ekar dezake. Honek, noski, ez du esan nahi hori arrazoi izan behar denik aldaketak ez bultzatzeko, soilik du ziur aski etika eta politikaren inguruko eraikitzen

diren diskurtsoak nolabait “zintzoagoak” direla.

Berdintasunak eskaintzen dituen aukerak ere maskulinitatearen inguruko ikerketen literaturan ohiko da, esaterako, Daniel Gabarró-ren lanean: “... *las posibilidades de generar un movimiento de redefinición de la identidad masculina son elevadas si somos capaces de hacer entender a la sociedad que este mito de la virilidad es altamente conflictivo y, a su vez, explicarle los beneficios que con dicho cambio obtendrá*” (Gabarró, 2009) Kasu honetan biak (etika/politika eta abantailak) nahikoa orekatuak azaltzen dira.

“Nuevas masculinidades” liburuari Angels Carabí-k egindako hitzaurrean aldiz, oreka ez da hain argia: “... *quizás haya llegado el momento en que el hombre de nuestro tiempo comprenda que la autorreferencialidad del patriarcado resulta ya una ideología limitada, obsoleta, ahistórica, injusta, y posiblemente, una prisión para él mismo*” (Carabí & Segarra, 2000:18). Hemen beraz, maskulinitateari egozten zaizkion ezaugarrietatik batek bakarrik du zerikusirik etikarekin (“injusto” besteak gizonezkoentzako abantailekin (“prisión para él mismo”) edo “demodé” dagoen ereduekin lotzen direlarik (“limitada”, “obsoleta”, “ahistórica”). Honela, patriarkatuarekin harreman hau haustek batik bat abantailak ekarriko dizkigu gizonezkooi: “*Si es consciente de ello, el varón podrá aventurarse a experimentar nuevas formas de vivir en sociedad que le resulten más creativas, más nutricias, más satisfactorias, plenatmente viriles y más justas para todos*” (Carabí & Segarra, 2000)

4.9 - Emozioak.

Eta abantailak aipatu ditugunez, zeintzuk dira eredu aldaketak gizonezkooi ekarriko dizkigunak? Asko aipatzen den bat emozioen eremua da. Hain da horrela, non gaiari buruzko testu akademiko batzuetan klabe bezala jotzen da eremu hau maskulinitatea zalantzan jartzean: *“Dentro de la identidad oculta de cada varón se esconde una necesidad de crecimiento que rompa con la coraza que limita la expresión de nuestras emociones. El camino para crear nuevas formas de ser y manifestarse como hombre pasa necesariamente por reaprender el mundo emocional y de la escucha.”* (Pescador, 2005:08). Aztertutako dokumentuetan ere hainbat alditan agertzen den kontua da: *“Está aprendiendo a verse como un ser sensible, afectivo y, sobre todo, vulnerable. Además está intentando superar su tradicional aislamiento emocional”, “Intenta ir superando el miedo y el rechazo ante situaciones de cercanía y complicidad otros hombres”* (AHIGE, 2007) *“El sexismo produce daño a las mujeres pero también a nosotros mismos impidiéndonos ser emocionales, empáticos y aptos para el cuidado...”* (GHIA, 2007) .

Ondoriozta daiteke esaldi hauetatik gizonezkooi emozioen mundua edo emozioak espresatzea ukatu zaigula gizon izate hutsagatik. Baina, emozio guzti-guztiak ukatu al zaizkigu? Emozio batzuk hain zuzen ere gizonezko izatearen adierazle bezala ikasi izan ditugu: amorrua edo haserrea adieraztea normalizat jo izan da gizonezkoon kasuan, eta are gehiago gizonezko batek edo mutiko gazte batek ez duenean bere amorrua kanporatzen, negatiboki baloratzen da. Aldiz, emakumezkoen edo neskatuen kasuetan, ez. Beraz horra hor gizonezkooi ukatu ez zaigun emoziotako bat. Nork esan dezake gehienbat maskulinitatearen erakusleho diren guneetan (burura datozkit futbol partidak, edo frontoia, edo pornografia konbentzioak) ez dagoela emoziorik, edo emozio horiek ez direla espresatzen? Gizonezkooi ukatu zaiguna, ziur aski, emakumezkoei egotzi zaizkien emozioak adieraztea izan da. Aldi berean, emakumezkoei ukatu zaizkienak gizonezkooi egotzi zaizkigunak izanik⁵⁸.

58 Genero banaketan oinarrituriko emozioen sailkapena *“The emotional self”* liburuan ikertu du Deborah Luptonek (Lupton, 1998). Bereziki *“The emotional woman and the unemotional man”* atalean (105-136) emozio batzuk gizonezkoei eta beste batzuk emakumezkoei egotea aztertzen du, horrekin batera *“emozionaltasuna”* bera, alegia, emozioak sentitu eta azaltzeko gaitasuna generoaren banaketaren

Aldiz, gizonezkooi espazio emozionala ukatu zaigula diogunean, edo gure emozioak azaleratu eta konpartitzea debekatu zaigula diogunean, zer egon gaitzke esaten inplizituki? Bada, emozioak emakumezkoek “dituzten” horiek direla: samurtasuna, besteenganako enpatia, errukia... eta gizonezkooi egotzi zaizkigunak aldiz, ez dira emozio bezala katalogatzen: amorrua, handi-nahia, bat-batekotasuna...

Esparru teorikoan Luis Boninok ere ideia hau planteatzen du: *“En tanto los varones, por mandato de género, «hacen» más que «sienten»; los indicios de que algo del orden de la depresión les afecta deberemos buscarlos, no en su expresión emocional, sino en su comportamiento”* (Bonino, 2000:60). Zita hau benetan adierazgarria iruditzen zait, eta uste dut bat egiten duela aurretik azaldu dudanarekin. Hemen “sentir” eta “hacer” arteko banaketa azaltzen da. Noski, gizon eta emakumezkoen arteko banaketa hau klasikoa da, baina Boninok ez du naturalizat ematen baizik eta prozesu sozial eta heziketaren ondorio. Dena dela ere, atentziora deitzen didana zera da: “expresión emocional” zer da? Eta nola egiten da ikusgarri, behagarri? Alegia, nola dezake osasun mentalaren profesional batek (bere lan-esparrua hori da) jakin gizon (edo emakume) baten esparru emozionala? Bada, ziur aski berarekin hitz egin beharko du, edo berak irakurritakoa idatzi bederen. Eta sentimenduez hitz egitea ez al da “hacer”? Edo “hacer” zer da, gizonezkook egiten dutena sentimenduak azaltzen ez gabiltzan uneetan? Ez al dituzte egintzek sentimenduak azaltzen? Eta berdin ere, emakumezkoen portaera (“comportamiento”) ez al da aldatzen depresioak jota daudenean? Ala beraiek azkar batean onartu eta kartela zintzilikatuko dute: “depresioak jota”?

Emozioen esparruarekin harremanean, berdintasunaren aldeko posizioa hartzea, nolabait gizon berriak eraikitzearekin lotzen da, hortik azken urteotan hainbeste erabiltzen den kontzeptua: “maskulinitate berriak”. Lehenago ere aipatu izan dudana bezala, gizon berri edo ezberdin horiek eraikitzea hein handi batean kontzientziaren eremuan kokatzen da, kontzientzia bere zentzu marxistan, batik bat. Hortik aurrera egiten dena, lan jarraia da, eta bidaia pertsonal itxura ematen zaio ere, barne konkistarena: *“Estamos trabajando a*

arabera ezberdin partitzen dela argudiatuz.

nivel personal, colectivo educativo y social” (Gizon Sarea, 2007), “...cuestionar y modificar el modelo machista”, “...aprender a negociar, reconocer los errores y afrontar pacíficamente conflictos” (GHIA, 2007), “Ha iniciado un camino personal de búsqueda y replanteamiento...”, “mantiene una actitud de cambio...”, “está aprendiendo a verse como un ser sensible...”, “Intenta ir superando el miedo y el rechazo...” (AHIGE, 2007).

Edonola ere, aipatu beharra dago diskurtso honen alboan ere, arestian aipatu bezala, badirela hainbat erreferentzia, nahiz eta horrenbeste ez sakondu, gizona kook berdintasunaren bidean egin beharreko lan politiko edo sozialari. Dena dela, ez nuke nahi esan emozioen lanketa ez denik lan politikoa, hala dela ulertzen baitut, baina uste dut politiko eta emozionalaren arteko muga hautsi nahian berriz ere eraldaketaren esparrua hankamotz geratu daitekeela, desorekaturik eta gainera genero banaketaren oinarri-oinarrian dauden dikotomietatik abiatu.

5 – Ondorioak eta etorkizunerako lan lerroak.

5 - Ondorioak eta etorkizunerako lan lerroak.

Egindako ikerketaren ondoren ondorio orokorrak ateratzea ez da lan erreza, are gutxiago aldezturik lanak izan dituen mugak seinalatzen ez baditut. Lanetik ateratako ondorioekin batera, hortaz, azterketa egiterakoan topatu ditudan mugak identifikatzen saiatuko naiz. Hutsune eta muga hauek zuzentzea, behin lana “amaituta” edo “itxita” dagoela, etorkizunerako lan lerro bezala seinalatzea besterik ez dut, azken finean hutsuneak hori baitira, etorriko denarekin bete beharrekoak.

Hasteko, eta nahiz eta corpusaren azalpenean ere aurreratu dudana, esan beharra dut gizon-talde eta ekimen batzuen dokumentuak eskura ez izateak lanetik ateratako ondorioak baldintzatu dituela. Taldeen laginak oso homogeneoa izaten amaitu du, gutxienez ikuspegi diskurtsibotik, eza baitut taldeon egitura, konposaketa edo ibilbidearen inguruko datu larregirik. Talde ezberdin gehiagoren ekoizpenak aztertu izanez gero, emaitza anitzagoa izango litzateke, puntazorrotzagoa, adar gehiagorekin, eta horrek beti ere konplexutasuna eta, ondorioz, aberastasuna eskaintzen dio lanari.

Taldeen arteko homogeneotasuna izan da, orduan, analisia egiten topatu izan dudana ondorioetako. Honek zerikusirik izan dezake arestian aipaturiko taldeen laginaren tamaina txikiarekin, baina baita ere taldeen gaztetasunarekin. Gaztetasunaz ari naizenean, noski, ez naiz taldea osatzen dutenen adinaz ari. Arestian aipaturiko moduan, talde hauek oso garai bertsuetan sortu izan dira, programa instituzionalek bultzaturik kasu batzuetan, eta horrek ziur aski diskurtsoetan homogeneotasun hori eragin du hein handi batean. Talde gutxi dira (norbanako gutxi diren bezala) gai horren inguruan idazten dutenak, are gutxiago akademia kanpotik. Era berean, idatziak egiten direnean, ikusi dugun bezala, askotan beste talde edo norbanako batzuek idatzitakoa “birziklatzeko” joera dago. Esan bezala, mugimendu sozial bezala duen gaztetasun (erlatiboak) eragin dezake hau.

Esan bezala ikerketari konplexutasuna gehituko lioke (hona hemen lehenengo etorkizunerako lan lerroak) talde gehiagoren dokumentuak lortzeak. Ez soilik taldeek beraiek idatzi dituzten dokumentuak baizik eta aldi berean talde barruan eztabaidatu izan

dituztenak, edo adostasun handia sortu dutenak. Honetarako, taldeekin harreman zuzenagoa izatea garrantzizkoa litzateke, eta horrek ere testuen testuingurua⁵⁹ ezagutzeko aukera emango luke, analisia aberastuz. Era berean, interesgarria izan daiteke idatzizko dokumentuak aztertzeaz gain bestelako dokumentuak, grafikoak esaterako, aztertzea⁶⁰.

Honekin batera, ondo legoke ere taldeetako kideekin elkarrizketak burutzea, nahiz eta hau ez dudan lanaren gabezi bezala ulertzen. Ikerketa honen helburua kaleratzen diren diskurtsoen azterketa egitea zen, eta zentzu horretan elkarrizketek hurrengo faseari erantzun beharko liokete, hots, esparru publikora kaleratzen diren diskurtso horiek taldeetan parte hartzen duenen iritziekin kontrastean jarri eta konplexutasuna gehitzea. Horrekin batera taldeen jardunaren azterketa eginez gero (zenbat jende, ze ekimen, ze motatako ekimenak, noren parte-hartzearekin...) eraikuntza diskurtsibo horien irudi osatuagoa izango genuke, izan ere, akatsa litzateke -eta dikotomia faltsuan erortzea- diskurtsoa soilik hitzekin egiten dela pentsatzeak.

Azterketarako aldez aurretik finkaturiko aldagaiak banan-banan aztertu ordez (hori jada corpusaren analisiaren atalean esplikatu dut) nolabait multzokatu eta ondorio zabalagoak -orokorragoak- ateratzen saiatu izan naiz.

Hasteko, maskulinitatearen -edo maskulinitateen- inguruan sortu diren talde hauen eraikuntza diskurtsiboak ulertzeko identitatearen gaia ezinbesteko osagaia dela uste dut. Alde batetik, maskulinitatea irudikatzeko orduan zein burutu nahi den eginbide sozialaren hartzaile edo jomugak irudikatzerako orduan maskulinitatearen ideia zehatz bati eusten zaiolako. Gizontasun eredu horretatik kanpo dauden eta egon daitezkeen beste gizontasun motak ez dira aipatzen, eta are gehiago, kasu batzuetan kanpo uzten dira. Honela, gizon heterosexuala da diskurtso horren protagonista, baina ez bakarrik heterosexuala, baizik eta bikotean bizi eta bere bizitza-proiektuaren baitan seme-alabak

59 "Cotexto" esaten zaio testua edo dokumentua sortzearen inguruan jaso dezakegun informazioari, nork idatzi duen, kolektiboa den, gatazkatsua izan den haren onarpena, zenbat pertsonak eman dioten atxikimendua...

60 "Piper Txuriak" Bilboko gizon-taldeak eta Deustua-San Inazioko modulu psikosozialerako Emakume Zerbitzuak 2012. urtean egutegia argitaratu zuten, hilabete bakoitzeko irudi bat eskainiz. Irudien analisia egitea interesgarria litzateke, gai aldetik bikotean eta etxearen esparruan zentratzen baitira batik bat, edo gizonen arteko entzute edo babesean. Ondo legoke ikustea 12 argazki horietan zein gai ez diren ukitzen eta zeintzuk azaltzen diren era errepikakorrean.

dituena. Ez dago beste adineko gizonzkoei erreferentziarik ere (aita izateaz gain aitita direnei), ez eta besteen umeak zaintzen aritzen direnei, ez eta familia-eredu nuklearrak aparteko bizi-aukerak egin dituztenei.

Honek lanaren sarreratik planteatu dudan galdera erantzuteko parada ematen digu, erabateko erantzuna ez bada ere. Alegia, maskulinitatearen krisiaren parean gaude, eta ondorioz maskulinitatea eraldatzen ari da, edo eta sektore sozial zehatz batzuetan gertatzen ari da aldaketa hori? Azaldutakoaren arabera, sektore sozial zehatz baten aldaketaren aurrean gaudela esango nuke. Baina galdera hori baino konplikatuagoa da, eta merezi du konplexutasuna gehitzea etorkizunerako lerro gehiago marratzuz, bide batez. Zeri deritzogu aldaketa? Ematen duenez, eta aurreko nire planteamendutik ondoriozta daiteke gizon-talde eta ekimen horietan daudenak direla maskulinitatea iraultzeko edo gutxienez eraldatzeko lanean dabiltzanak. Horren arabera nire ondorioa zuzena litzateke, eta sektore hori litzateke aldatzen ari dena. Baina horrek aldaketaren ikuspegi boluntarista hutsa onartzea litzateke, non subjektuek sentitu, hausnartu eta eragin egiten duten beraien eraikuntza identitarioa aldatzeko. Aldiz, genero eraikuntzen eraldaketak sakonekoak dira eta ez beti edo erabat boluntarioak, eta ziur aski beste sektore sozial batzuen maskulinitateak ere eraldatzen arituko dira, baina ez dute esplizituki borondate hori adierazten.

Beharrezkoa da beraz, maskulinitateen eraldaketak eta maskulinitatearen eraldaketa boluntario edo antolatuak oharkabeen ez parekatzea. Ikusi dugun bezala, aldatzeko lan esplizitu eta antolatua egiten ari direnek oraindik ere aspektu batzuk bere horretan mantentzeko joera dutelako (apur bat gorago azalduko gizon gazte heterosexualaren irudikapenaz ari naiz) eta ziur asko, aldaketa sakonak burutzen ari diren sektore batzuek ez dutelako zertan beraien burua “maskulinitate berri” bezala identifikatuko. Burura etortzen zaizkit aurrerago ere aipatu ditudan adibide batzuk: egoera ekonomikoagatik “emakumezkoen lanak” egitera behartuak izan diren gizonak (heldu edo umeen zaindari, etxeke langile...), lanean botere postuak izan ondoren kaleratuak, adinean aurrera egin ahala beste ardura batzuk hartu behar izan dituztenak (tarteka umeen zaindari dabiltzan aitonak kasu).

Identitatearen aferarekin loturik topatu dut baita ere aparteko taldea sortzearen beharra. “Nola banatzen dira gizona eta berdintasunaren aldeko gizona” atalean azaldu dudan bezala, maskulinitatearen inguruko diskurtsoa hein handi batean erruduntasun sentimendu inplizitu batetik sortzen da, edo behintzat hala ematen du. Garrantzizkoa ematen du adieraztea gizon guztiok ez garela patriarkatuaren onurak aprobetxatuz emakumezkoak eta “bestelako” gizonak zapaltzen aritzen garenek. Horri izaera ematea, talde izaera ere, diskurtsoan hainbatetan agertzen den ideia da: berdintasunaren aldeko gizona, gizon berdintasunezkoa. Horren inguruan publikoa izatea ere garrantzitsutan jotzen da, nahiz eta ez den problematizatzen larregi diskurtso publikoan. Alegia ez dago aipamen garbirik aliantza politikoen nolakotasunari (aipatzen ez den mugimendu feministarekin, adibidez). Horrek ez du esan nahi ez dagoenik eztabaida hori talde edo ekimenen baitan, eskua sutan jarriko nuke badaudela, nire esperientziatik abiatuta. Baina eztabaida horiek ez dira kanpora begirako diskurtsoan islatzen. Noski, dokumentuen izaeragatik (dibulgazio dokumentuak dira) ere izan daiteke hori. Beste behin ere, taldeetako kideekin elkarrizketa sakonak egin ahal izatea edo beraien erreferentziazko irakurketak zeintzuk izan diren jakiteak lagunduko luke esparru hau apur bat argitzen.

Aparteko taldea sortzearen ideia horrek -ohikoa den bezala- badu bere argi eta ilunak. Alde batetik gizonaren irudik monolitikoarekin apurtzen du, eta are gehiago, lagungarri izan daiteke beste gizon batzuek ere kuestionatu nahi dituzten aspektu batzuk kolokan jartzera animatzeko. Bestalde, izan dezake “gizon zintzoen” eta besteen arteko muga marrazteko gaitasuna, eta horrek maskulinitatearen kuestionamendu hori bera zailago bilakatu dezake.

Identitate propioaren -gizon berdinzalea- finkatze horrekin batera etor daiteke ere “bestearen” identitatea ere, osatzen gaituen kanpoko muga. Kasu honetan, “modernitatearen eta tradizioaren arteko leia” atalean azaldu den bezala “beste” hori gizonezko matxista klasiko bezala irudikatzen da askotan, iraganeko bezala, troglodita bezala. Horren arriskuak nabariak dira, izan ere, gogoko ez ditugun jarrerak (matxismoa kasu honetan) identitate zehatzekin lotzean (tradizionala, karka, iraganekoa) eta ez

jokabideekin (hegemonikoa, zapaltzailea...) erdigunea nortasunean jartzen dugu, eta ez boterearen -edozein izanda ere gure boterearen ikuspegi teorikoa, horretan ez naiz sartuko- esparruan. Boterearen esparruan, denok jokatu ditzakegu inoiz jarrera zapaltzaile edo hegemonikoak, identitatearen esparruan aldiz, behin identitatea "irabazita", zailagoa da pertzepzio hori aldatzea. Nork esango dio 31 urteko gizon homosexual ezkertiarri jarrera zapaltzaileak dituela? Bera -ni- ez da karka bat!

Nortasunarekin zuzenean lotutako azken gaia maskulinitatearen beraren irudikapena da. Maskulinitatea aldarrikatzen da aldaketa batzuen baitan baina maskulinitatea. Onartuta nortasun afirmatibo gabe oso zaila dela bizitzea, gizon izateko era berriak aldarrikatzean gizon izaten jarraituko dugula aldarrikatzen dugu era berean. Aldebikoa da afera hau ere. Hasteko, ziur aski gizontasuna eta feminitatea esentzia gisa kontsideratuak izatea erabat hedatuta dagoelako jendartean. Baina aldi berean, gizonezkook genero identitateari uko egitea, eta are gutxiago era bolondresean, oso zaila delako. Ez da kasualitatea gizon kategoriatan erabat kuestionatu duten gizonak berez kategoriatan hori kanpotik eta hertsaduraz ukatu zaien horietako batzuk izatea (gay mugimenduko gizon batzuk adibidez).

Edonola ere, eta nortasunaren aingura oso indartsua dela etsita, maskulinitatea -bere eraldaketa guztiekin- aldarrikatzea edo feminitatea aldarrikatzearen arteko ezberdintasunak nabarmenak dira. Feminismoak feminitatea aldarrikatu izan duenean bi ikuspegitatik egin izan du: feminitatearen esentzia aldarrikatuz, eta hor patriarkatuak berak sortutako definizioekin egin izan du topo -naturari lotua, ulerkorra, maitekorra...- hainbat feministen ezinegona sortuz, ez baitziren nortasun kolektibo horretan islaturik sentitzen. Bigarren aukera testuinguru teorikoan subjektu femenino feministari buruzko hausnarketetan azaldu dudana bezala, arriskuagoa eta arras abstraktuagoa da, subjektu femeninoa ezinbestean subjektu feministarekin lotzen duena, historikoki bere subjektu izateko aukera ukatu zaiolako hain zuzen ere, bere eginbide ekintzaileaz eraikitzen ari den subjektu prekarioa bezala.

Bietako edozein aukeratuta ere, emakumezko subjektua konplikatu eta era errazean "eutsi" ahal ez zaiona da. Subjektu maskulinoa aldiz, libreago aritzen da (diskurtsiboki

bederen) modernitate berantiarraren garai hauetan. Muntatu eta desmuntatu daiteke eta hala ere ez dio bere buruari “gizon” deitzeari utzi behar. Argudiaketa honek, testuinguru teorikoaren atal horretan planteaturiko eztabaidaren egokitasunera narama, eta baita etorkizunean horretan sakontzeko beharrera.

Nortasunarekin loturiko kontuak albo batera ikusita era batean edo bestean espazioarekin loturik irudikatu ditudan beste bi kontu daude. Bata etxeko lanen ingurukoa (“etxeko lanak eta espazio domestikoa” izeneko atalean landutakoa) eta bestea emozioen munduaren ingurukoa (“emozioak” atalean). Biak ala biak diskurtsoan aldarrikatzen diren esparruak dira, bakoitza oso era ezberdinetan.

Alde batetik, etxeko lanen kasuan arduraren ikuspegitik aldarrikatzen da espazio horretan parte hartzeko beharra. Sexuaren araberako lan banaketaren injustizia onartuz gizonezkook etxeko lanak partekatzearen aldeko apustua egiten da. Arestian aipaturiko moduan, honek esparru publikoaren -ordaindutako lanari adibidez- inguruan proposamen gutxi egitera garamatza, nahiz eta ziur asko, gaur egunean ere, etxeko lanen banaketa orekatua egin arren lan-kargak ez liratekeen automatikoki berdinduko. Lehenago esan bezala etxeko lan horiek esparru zehatzekin identifikatzen dira: ez dago aipamenik bakarrik bizi diren edo beste gizonekin elkarbizitzan dauden gizonen inguruan. Nola banatuko ote dute horiek lana genero ikuspegitik parekatua izan dadin?

Bestalde, eta emozioen kasuan, emozioen inguruko atalean bertan argudiatu dut emozioei era esentzialistan begiratzearen arriskua, emozioak genero hezkuntzaren bidez emakumezkoei egotzi zaizkien emozioekin parekatu eta nahastuz. Logika honen arabera gizonezkooi emozioen mundua ukatua izango litzaiguke, eta ez emozio *batzuen* mundua.

Baina bi atal hauek komunean zerbait dute eta espazioarekin loturik dago. Hain zuzen ere esparru domestikoa eta emozionala (elkarri oso loturik daudenak) dira historikoki maskulinitateari eskapatu zaizkion esparruak. Alegia, etxearen esparruan izan dira egosiak askotan, zapalkuntza handienekin batera, iraultza txiki ugari. Eta ez esparru horiek emakumeentzako gune naturalak direlako, baizik eta gizonezkoen absentsiaz

botere gune bilakatu direlako askorentzat, energia eraldatzaile bihurtu izan dena batzuetan.

Feminitateari egotzi zaizkion emozioak ere (enpatia, ulerkortasuna, ahuldadea, auto-ezagutza eta kontzientzia...) gizonezkoontzako esparru ukatuak izan dira, edo hobe esanda, emozio horiek kanporatzea izan da ukatua. Eta ezin ukatu emozio horiek adierazi ahal izatea askatzailea dela nahiz eta kasu batzuetan ondorio ezkorrak izan gure maskulinitatea kolokan jartzen duelako. Beste behin ere, emakumezkoekin ezberdintasuna agertzen da hemen: emakumezkoentzat historikoki maskulinoak izan diren emozio batzuk azaltzea (amorrua edo lidergo nahia esaterako) negatibotzat jotzen da askotan.

Bi esparruak lantzea ezinbestekoa jotzen dudan bezala, atentzioa deitu dit biak ala biak irabazteko esparruak direla gizonezkoontzat. Ikuspegi honekin lotzen da “zergatik eta zertarako aldaketa” atalean aztertutako berdintasunerako motibazioen gaia, genero roletan emandako aldaketak balizko irabaziekin lotzearena.

Orokorrean, esango nuke maskulinitatea kuestioan jarri eta eraldatzearen apustua nortasun kontuarekin lotzen dela batik bat, eta boterearen edo hegemoniaren inguruko azalpenei ez zaiela horrenbesteko garrantzirik ematen diskurtsootan. Honekin loturik egon daiteke ere feminismoari era zuzenean erreferentziarik ez egitea, izan ere, teoria feministak lotura handia suposatzen du boterearen inguruko irakurketarekin, nahiz eta testuinguru teorikoan azaldu dudan bezala nortasunaren inguruko gaiak ere garrantzi handia izan.

Gizon-talde eta maskulinitatearen inguruko ekimenok maskulinitatea eta genero harremanak eraldatzeko lanean dabiltzala garbia da, eta lan horretan bilaketa teoriko, pertsonal eta kolektibo/politikoa da haien diskurtsoan nabari dena. Lan hori zaila dela onartuz, eta lanketa horri konplexutasuna gehitzea egokia, sana eta beharrezkoa dela uste dudalako, espero dut ikerketa honetan plazaratu ditudan ondorioak lagungarri izatea bide horretan, hori izan baita hasieratik lan honen helburu eta bokazioa.

6 – Erabilitako bibliografia.

- AHIGE. (2007). Decalogo: un hombre por la igualdad es.
- Amorós, C., & Miguel Álvarez, A. de. (2005). *Teoría feminista : de la ilustración a la globalización. 1, de la ilustración al segundo sexo*. Madrid: Minerva Ediciones.
- Antaki, C., Billig, M., & Potter, J. (2003). El Análisis del discurso implica analizar: Crítica de seis atajos analíticos. *Athenea Digital-Revista de pensamiento e investigación social*, 1(3), 14–35. Berreskuratua -(e)tik <http://psicologiasocial.uab.cat/athenea/index.php/atheneaDigital/article/viewArticle/64>
- Anzaldúa, G. (1993). *Borderlans, la frontera. The new mestiza*. San Francisco: Aunt Lute.
- Aranda, O. (2008). Algunos hombres buenos. *lahaine.org*. iritzi artikulua. Berreskuratua irailak 11, 2012, -(e)tik <http://www.lahaine.org/index.php?p=34273>
- Aresti, N. (2001). *Médicos, donjuanes y mujeres modernas: los ideales de feminidad y masculinidad en el primer tercio del siglo XX*. Bilbo: EHUko Argitalpen Zerbitzua. Berreskuratua -(e)tik <http://dialnet.unirioja.es/servlet/libro?codigo=244084>
- Aresti, N. (2010). *Masculinidades en tela de juicio : hombres y género en el primer tercio del siglo XX*. Madrid: Cátedra [etc.].
- Austin, J. L. (1998). *Cómo hacer cosas con palabras*. Barcelona; Buenos Aires; México: Paidós.
- Baxter, J. (2004). *Positioning Gender in Discourse: A Feminist Methodology* (First Edition.). Palgrave Macmillan.
- Biglia, B., & Bonet, J. (2012). *Análisis crítico del discurso con perspectiva feminista*. Ikastaroa -(e)n aurkeztua Curso de análisis del discurso con perspectiva feminista, Komunikazio eta Gizarte Zientzien Fakultatea, Leioa.
- Biglia, B., & Lloret, I. (2010). Generando géneros y patologizando sujetos. *El género desordenado. Críticas en torno a la patologización de la transexualidad*. (or. 211–228). Madrid: Egales.
- Biglia, B., & San Martín, C. (2007). *El estado de Wonderbra* (1. arg.). Barcelona: Virus.
- Blissett, L., Brünzels, S., & Autonome A.F.R.I.K.A.-Gruppe. (2000). *Manual de guerrilla de*

la comunicación. [Barcelona]: Virus.

Bonino, L. (2000). Varones, género y salud mental. Deconstruyendo la «normalidad» masculina. *Nuevas masculinidades*.

Bourdieu, P. (2007). *La dominación masculina*. (J. Jordá, Trans.). Barcelona: Anagrama.

Braidotti, R. (2004). *Feminismo, diferencia sexual y subjetividad nomade*. Gedisa.

Bugallo Sanchez, L. (2001). Feminismo y transexualidad: Aproximación a la vivencia de la sexualidad femenina desde la transexualidad femenina, 343–348. *Berreskuratua - (e)tik* <http://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=608898>

Burgos, E. (2012). Deconstrucción y subversión. *Judith Butler en disputa. Lecturas sobre la performatividad*. (or. 101–135). Madrid: Egales.

Burman, E., & Parker, I. (1993). *Discourse analytic research : repertoires and readings of texts in action*. London; New York: Routledge.

Butler, J. (1998). Actos performativos y constitución del género: un ensayo sobre fenomenología y teoría feminista. *debate feminista*, 18(9), 296–314.

Butler, J. (2001). *El género en disputa : el feminismo y la subversión de la identidad*. México: Paidós.

Butler, J. (2002). *Cuerpos que importan : sobre los límites materiales y discursivos del sexo*. Buenos Aires; Barcelona: Paidós.

Butler, J. (2004). *Lenguaje, poder e identidad*. Madrid: Editorial Síntesis.

Butler, J. (2006). *Vida precaria : el poder del duelo y la violencia*. (F. Rodríguez, Trans.). Buenos Aires: Paidós.

Butler, J. (2007). *El género en disputa. El feminismo y la subversión de la identidad*. Barcelona: Paidós.

Butler, J. (2010a). *Deshacer el género*. Barcelona: Paidós.

Butler, J. (2010b). *Marcos de guerra : las vidas lloradas*. Barcelona: Paidós.

Campbell, R. (1994). The Virtues of Feminist Empiricism. *Hypatia*, 9(1), 90–115.
doi:10.1111/j.1527-2001.1994.tb00111.x

Carabí, A. (2003). *Construyendo nuevas masculinidades: la representación de la masculinidad en la literatura y el cine de los Estados Unidos (1980-2003)* (Memoria

de proyecto de investigación No. 62/03) (or. 149). Madrid: Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales.

Carabí, A., & Segarra, M. (2000). *Nuevas masculinidades*. Barcelona: Icaria.

Chouliaraki, L., & Fairclough, N. (2002). *Discourse in late modernity : rethinking critical discourse analysis*. Edinburgh: Edinburgh University Press.

Connell, R. W. (1995a). *Masculinities*. Cambridge, UK: Polity Press.

Connell, R. W. (1995b). *Gender and Power: Society, the Person, and Sexual Politics*. Cambridge: Polity Press.

Cortés, J. M. G. (2004). *Hombres de mármol : códigos de representación y estrategias de poder de la masculinidad*. Barcelona: Egales.

Davis, A. Y. (1983). *Women, Race, & Class* (1st Vintage Books ed.). Vintage.

De Lauretis, T. (2000). *Diferencias : etapas de un camino a través del feminismo*. (M. Echániz Sans, Trans.). [Madrid]: Horas y Horas.

De Miguel, A. (2003). El movimiento feminista y la construcción de marcos de interpretación: el caso de la violencia contra las mujeres. *Revista internacional de sociología*, (35), 127–150. Berreskuratua -(e)tik <http://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=825146>

De Miguel, A. (2007). El movimiento feminista y la construcción de marcos de interpretación: praxis cognitiva y redes de acción colectiva, 287–300. Berreskuratua -(e)tik <http://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=2350442>

Derrida, J. (1977). *Limited Inc*. Northwestern University Press.

Fairclough, N. (1989). *Language and power*. London: Longman.

Fausto-Sterling, A. (2000). *Cuerpos Sexuados*. Madrid: Melusina.

Federici, S. (2004). Calibán y la bruja : Mujeres, cuerpo y acumulación originaria.

Foucault, M. (2005). *Historia de la sexualidad*. Madrid [etc.]: Siglo XXI.

Foucault, M. (2008). *El orden del discurso*. Barcelona: Tusquets.

Foucault, M. (2009). *La arqueología del saber*. (A. Garzón del Camino, Trans.). Madrid: Siglo XXI.

Fox Keller, E. (1991). *Reflexiones sobre género y ciencia*. València: Alfons el Magnànim.

Institució Valenciana d'Estudis i Investigació.

Gabarró, D. (2009). *Transformar a los hombres: un reto social*.

Galván, V. (2010). *De vagos y maleantes : Michel Foucault en España*. Barcelona: Virus Editorial.

García García, A. (2008). ¿Qué le pasa a los hombres?: A propósito de las dinámicas identitarias masculinas en la modernidad tardía. *Arxius de sociologia*, (19), 41–51. Berreskuratua -(e)tik <http://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=2912626>

GHIA. (2007). Manifiesto de condena de la violencia de género.

Gil, S. L. (2011). *Nuevos feminismos : sentidos comunes en la dispersión : una historia de trayectorias y rupturas en el Estado español*. Madrid: Traficantes de Sueños.

Gizon Sarea. (2007). Los hombres ante la violencia sexista. 25 de Noviembre, día internacional contra la violencia hacia las mujeres.

Guasch, O. (2006). *Héroes, científicos, heterosexuales y gays: los varones en perspectiva de género*. Barcelona: Bellaterra. Berreskuratua -(e)tik <http://dialnet.unirioja.es/servlet/libro?codigo=268428>

Halberstam, J. (1998). *Female masculinity*. Durham: Duke University Press.

Haraway, D. J. (1995). *Ciencia, cyborgs y mujeres: la reinvención de la naturaleza*. Universitat de València.

Harding, S. (1996). *Ciencia y feminismo*. Madrid: Morata. Berreskuratua -(e)tik <http://www.casadellibro.com/libro-ciencia-y-feminismo/8471124149/548658>

Hooks, B., Brah, A., Sandoval, C., Anzaldúa, G., Levins Morales, A., Bhavnani, K.-K., Coulson, M., et al. (2004). *Otras inapropiables : Feminismos desde las fronteras*. <http://www.nodo50.org/ts/editorial/otrasinapropiables.pdf>. Berreskuratua -(e)tik <http://libros.metabiblioteca.org/handle/001/321>

Irigaray, L. (2009). *Ese sexo que no es uno*. Madrid: Akal.

Jiménez, R. M. M. (2002). *Sexualidades transgresoras: Una antología de estudios queer*. Icaria Editorial.

Laqueur, T. (1994). *La construcción del sexo. Cuerpo y género desde los griegos hasta Freud*. Madrid: Catedra.

- Lazar, M. M. (2007). Feminist Critical Discourse Analysis: Articulating a Feminist Discourse Praxis. *Critical Discourse Studies*, 4(2), 141–164. doi:10.1080/17405900701464816
- Legarreta, M., Perez Orozco, A., & Ávila Cantos, D. (2006). *Transformaciones del trabajo desde una perspectiva feminista. Producción, reproducción, deseo, consumo*. Madrid: Tierra de nadie.
- Lozoya, J. A. (2009). Gizonak emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean: sarrera.
- Lupton, D. (1998). *The emotional self: a sociocultural exploration*. London; Thousand Oaks, Calif.: Sage Publications.
- Maldonado, T. (2010). El análisis y la lucha feminista. Entre la identidad y la diversidad de las mujeres. *Granada 30 años después. Aquí y ahora. Jornadas feministas estatales*. (Coordinadora Estatal de Organizaciones Feministas.). Madrid: Coordinadora Estatal de Organizaciones Feministas.
- Mitchell, J. (1977). *La condición de la mujer*. Barcelona: Anagrama.
- Modleski, T. (1986). Feminism and the power of interpretation: some critical reading. *Feminists studies, critical studies*. Indiana University Press.
- Moyua, I. (2008). Los hombres, la igualdad y las nuevas masculinidades: presentación.
- Perez Orozco, A. (2006). *Perspectivas feministas en torno a la economía: el caso de los cuidados*. Madrid: Consejo económico y social.
- Perona, A. J. (1995). La construcción del concepto de ciudadanía en la modernidad. *Arenal: Revista de historia de mujeres*, 2(1), 25–40. Berreskuratua -(e)tik <http://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=186316>
- Pescador, E. (2005). Las nuevas masculinidades: formas de ser hombre desde las emociones y la escucha.
- Piper Txuriak. (2009). Trabajo y objetivos.
- Piper Txuriak. (2011). Ante situaciones de violencia hacia las mujeres. Manifiesto de la asociación de Hombres por la Igualdad y Contra el Sexismo de Bilbao, Piper Txuriak.
- Platero Méndez, R. L. (2010). Sobrevivir al Instituto y a la Facultad: voces y vivencias sobre la heteronormatividad, la homofobia y la masculinidad de las chicas. *Revista*

- de Estudios de Juventud*, (89), 39–58. Berreskuratua -(e)tik
<http://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=3650999>
- Rich, A. (1980). Compulsory Heterosexuality and Lesbian Existence. *Signs*, 5(4), 631–660.
 Berreskuratua -(e)tik <http://www.jstor.org/stable/3173834>
- Rich, A. (1986). Compulsive heterosexuality and the lesbian existence. *Blood, bread, and Poetry. Selected prose 1979-1985*. New York. Berreskuratua -(e)tik
<http://es.scribd.com/doc/48505260/ADRIENNE-RICH-Heterosexualidad-Obligatoria-y-Existencia-Lesbiana>
- Rich, A. (2009). Prefacio a «Heterosexualidad obligatoria y existencia lesbiana» (1980-1982), 145–148. Berreskuratua -(e)tik <http://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=3124262>
- Rubin, G. (1986). El tráfico de mujeres: notas sobre la economía política del sexo. *Nueva Antropología*, Vol VIII, 30, 95–145.
- Rubin, G. (1989). Reflexionando sobre el sexo. Notas para una teoría radical de la sexualidad. In C. Vance (Arg.), *Placer y peligro. Explorando la sexualidad femenina* (or. 113–190). Madrid: Revolución.
- Seidler, V. J. (2006). *Masculinidades : culturas globales y vidas íntimas*. España: Montesinos.
- Solá, M., & Missé, M. (2010). Reflexiones feministas sobre el no-binarismo. *Granada 30 años después. Aquí y ahora. Jornadas feministas estatales*. Madrid: Coordinadora Estatal de Organizaciones Feministas.
- Soley-Beltran, P., & Sabsay, L. (2012). *Judith Butler en disputa : lecturas sobre la performatividad*. Barcelona: Egales Editorial.
- Trujillo Barbadillo, G. (2009). Del sujeto político «la Mujer» a la agencia de «las (otras) mujeres»: el impacto de la crítica «queer» en el feminismo del Estado español. *Política y sociedad*, 46(1), 161–172. Berreskuratua -(e)tik
<http://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=3141643>
- VA. (2010). *Granada 30 años después. Aquí y ahora. Jornadas feministas estatales*. Madrid: Coordinadora Estatal de Organizaciones Feministas.

- Valcuende del Río, J. M., & Blanco López, J. (2003). *Hombres : la construcción cultural de las masculinidades*. Madrid: Talasa.
- Vance, C. S. (1989). *Placer y peligro : explorando la sexualidad femenina : (selección de textos)*. Madrid: Revolución.
- Van Dijk, T. A. (1999). El análisis crítico del discurso. *Anthropos*, 186(Septiembre-Octubre), 23–36.
- West, C., Lazar, M. M., & Kramarae, C. (2000). El género en el discurso, 179–212.
Berreskuratua -(e)tik <http://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=2135302>
- Whittier, N. (1995). *Feminist generations. The persistence of the radical women's movement*. Philadelphia: Temple University Press.
- Wittig, M. (2006). *El pensamiento heterosexual y otros artículos*. Madrid: Egales.
- Wodak, R. (1989). *Language, Power and Ideology: Studies in Political Discourse*. John Benjamins Publishing Company.